

EUSKERAZAINTZA

EUSKERAREN
ERRI AKADEMIA

XV Zenbakia.

1991
Jorraitilla-Ekainilla

AURKIBIDEA

	Orr.
Laburpenak dirala-ta.— Umandi	1
Euzko odola.— Yakakortaxarena tar Tx.	4
Erderakadak.— Begi-luze.	6
Euskerazko izenak Erdiaroko idazkeran.— B. Latiegi.	7
Euskera batuaren billa.— Lino Akesolo.	12
Aetzen Uskaraz.— Josu Cabodevilla.	22
Erderakadak eta akatsak.— Gaztañaga tar J.	30
Neure Idazlan Bilduma.— Etxaburu tar J.M.	32
Geureari ekin.— Aita Onaindia.	35
Orduen Liturjia. Argi naiko batzuk.— A. Zatarain	37
Esaldi eta esaera batzuk.— A. Zubikarai.	40
Nere ikuspegitik.— Etxaburua tar Asier.	43
Euskaldunak munduan. 1. Loiolako.— Arrinda tar Anes.	46
RH Ezezkorra.— Txomin Garmendia.	62
Esaldi jatorrak.....	64
Oroitarria apurtu (Barruko azalean).	
Esaldi jatorrak.— Oñatibia tar Manu. (Barruko azalean).	
Odei gorritzak. Zubiri tar Iñaki. (Kanpoko azalean).	

Zuzenbideak:

GETARIA 21 - DONOSTIA
C. LARREATEGI 14 - BILBAO

OROITARRIA APURTU

Igaz, Iraillean, ainbat euskeltzale batu giñan Kakaraztelu'n, gure adiskide min eta euskera maitale gartsu zan Garde tar Martzelino zanaren omenez.

Esan bearreko da omenaldia Euskerazaintza'k eratu zala, eta gure taldekoe-kin batera, an alkartu giñala Kardaberaztarrak ere.

Omenaldi aretan, oitura danez, oroitarri bat ipini zan jaiotetxean, oraingoak eta gerokoak Garde'ren oroitza zaindu dezaten, eredu bezela.

Oroitarriak ez du asko iraun.

Norbaitek atsegiñez ikusi ez? Euskeraren urratsik nai ez?

Ezin degu sinistu iñok gorrotoz egin zezakenik, Garde ontasun uts zalako, eta apaiz fedetsu, gizon borondatetsu, napar jator eta euskeltzale kezkatu.

Ala eman zuen bere bizitza. Guk orrela ezagutu gendun. Bizi izan zan tokietan era berean.

Bere erritarrak pozik ikusi zuten bertako semearentzat gogorapen ori egitea.

Baiña oroitarria apurtu dute.

Nork? Nortzuk? Zegaitik?

Guretzat Garde'ren oroitza maiteago zaintzeko ziri bat besterik ez da. Eta euskerarena zer esanik ez.




Garde'tar Martzelino zena, euskeraren eta euskaldunen alde lan asko egiña Napa-roa'n.

EUSKERAZAINTZA

Legerako Gordetza: BI - 1928 - 87

Konponketa: Flash Composition. Bilbao



LABURPENAK DIRALA-TA

Euzkal-goza lantze ta euzkal-bizirako oña i bedega a, bereziena, ezinbestekoa euzkera dalarik, ez da esan bea gure gogoari dagokion guztia euzkeraz eta euzkeraren bidez egin bea dala, nai ta ez. Auxe da Eia maite dutenek eta E i'aren arazoetan diardutenek gogoan beti onartuta ukar bea -izango luketen egia, beren lanetan E i'aren onurazko zituak jaso al-izateko. Lengoak baño aro askoz egokiagoan bizi gera orain eta alegiñak egin bea -izango genituke guziok alik eta ongienik adion au ustiatzeko.

Eia ta izkuntza ororenak ditugu ta o engatik guztiok bat izatea dagokigu lan berean eta elburu berean ari-izateko; o ela yardunik be ba-dugu zer egin, eta ez gutxi alajaña, biak au era eraman al-izateko. Zoritxa ez guztiz erdibiturik gagoz ekintza ontan eta ori dala-ta ezin bea -izango litzaken guztia egokiro bete. Beraz, oso bidezkoa izan bea guziei eskari bizi au egitea: Guziok eta bakoitzak gogo berean lan egiteko, iñor arbuyatu gabe alka ekin yardutea, ororen elburua berbera dala gogoratzean.

Asmo o ezaz idatzi nai dugu lantxo au nire laguntza txikia orori eskaintzean eta guztion elbururako egokia izan dedin yoranez beterik.

Urte batzuetan bama ari gera euzkeraren alde lan geyago egiteko sortu zaigun bidean, bide egokiagoan, eta ezin esan dezakegu beaT-izango litzauguken bezin ondo ta zuzen gabiltzalarik beraren bama; alderantziz, lan, neke ta alegiñak alpe-ik galtzen ari gerala oartzea dugu bea a, negarga ia dugun jokeran; ba-dirudi eziña zaigula euzkaldunoi gure egokitasuna ongi ikustea ta ororenak diran arazoak zentzunez erabiltzea; zergatik?, o a erantzuteko oso e eza ez dan galdera, baño orixe da egia, ukatu ezin dezakeguna.

Dana dala, ona izan bea geldirik ez egotea ta ene aldetik, gogo onenaz ekiteko nayeana, nire iritzia bein eta be iro age erazi nai dut, eman al dezakedan laguntza eskeiñi gabe ez geratzeko. Ene ustez oraingo ontan euzkeraren aldeko jokaeran oke batzuk egiten ari dira, ta gaurko nire xedea oyetako bat salatzea da, nire izpideak ematen eta nire oa ak gogo onez ere ona dizaizkidatela guziei gartsuki eskatzen diet; guzian bezela, ba-dakit ontan be okerturik dagoena nerau izatea, baño alarik ere egokia dala deritzait nire iritzia agertzea, al dudan asmo onenaz egiten dudalako. Ikus dezagun arloa:

Laburpenak dirala-ta, egiazkoak ez diran asmoak zabaltzen ari dira aldi ontan gure artean. Esan dezagun lenengoz izkuntza guztietan, itzegitean batez ere, laburpenak ugari egiten dirala ta ori ezinbestekoa bezala begiratu bea dugula dirudi, guztien jokera, nai ta ez, ortarako emana izango baillitza. Alan eta guztiz be, itzegiten egiten diran laburpenak o ela baka ik agertzen dira, idaztean egin gabe; alakotz, oituraz ala erosotasunez laburpenak egiten dira mintzatzean, baño idaztean eliztiaren arauak ja aitu nai ditugu a etaz eta itzak beren osotasunean idazten ditugu beti. Ikus ditzagun adibide batzuk:

Españeraz itzegitean beti esaten da onela: "Madri" ta "Valladoli", ta idaztean "Madrid" eta "Valladolid" jartzen; "liberta", "verda", "carida", ta o elako beste asko, "libertad", "verdad", "caridad",... idazteko; "soldao" esaten da alde guztietan, "soldado" idaztean, bai ta "uste", "usted"en ordez; lenengo aditz-jokoaren aditz-izenondoak berdin: "estao", "cenao", "cantao", "bailao", "ganao", "sacao" ta beste amaika guztiek esaten dituzte, eta "estado", "cenado", "cantado", "bailado", "ganado", "sacado",... guztiek ere era berean idaztean. Eta laburpen guzti oyetan "d" izkia da itzegitean uzten dana; baña idaztean mintzatzean bezela egon balitz, utz aundizat artuko litzake nun-nai. Eta ez dirudi "d" izki ori oguzteko zalla danik, zergatik ordea jokutzen da o ela?; geuk ez dugu ikusten erantzun egokia zein izango litzake, baña esan nai dugunerako aski edo da egipen ori aipatzea baka ik. Ba-liteke nunbait eta itz batzuetan laburpen ori itzegiten ere ez egitea, baña oso oroka a dugu egikera ori.

"H" izkia ere itzegitean ezta iñoiz adierazten, eta soñu gabeko izkia deitzen da beti, baña idaztean a etaz jafiko da bea dan tokian beti ere, ta iñoiz au egiten ezpada utz aundia bezela salatzen da. "U" izkiaz be orobat gertatzen da: "gue", "gui", "que", "qui" idatzi ta "u" ori esan ez mintzatzean.

Parantzeraz ere oso ezaguna da nola idazten dan: "eau" ta "au", bietan itzegitez "o" esateko; berdin "monsieur" idatzi bai baña oguzi ez; "soierie", "Normandie", "flatterie", "maladie", "mairia", "muette", "cassette", "miette", "oculaire", "menteur", "flatteur" eta beste asko idaztean, baña "soieri", "Normandi", "flateri", "maladi", "mairi", "muet", "caset", "miet", "oculer", "menter", "flater" esatean. Eziña edo onelako guztiak aipatzea.

Argi agertzen da, beraz, nolako ta zenbat laburpen egiten diran auzokoak ditugun erderaetan.

Goazen orain gure ikuntzan gertatzen diran laburpenak begiratzen; muetatutrik ja iko ditugu, itz bakoitzerako, esaten dana lenengoz ipintzen eta nola idazten dan u engoan jartzeko:

Izenak: "Aiskide", "adiskide"; "egue i", "egube i"; "egualdi", "eguraldi"; "Yinkoa", "Yainkoa", "Yaungoikoa"; "zuixa", "zurixa".

Izenordeak: "Bea", "bera"; "neonek", "neronek"; "geok", "gerok"; "zeok", "zerok".

Galdetzekoak: "Noaño", "noraño"; "noena", "norena"; "noentzat", "norentzat"; "ze", "zer"; "zeaitik", "zergaitik"; "zetako", "zertako".

Zenbatitzak: "Bapez", "bat ere ez"; "bost'erdiak", "bost eta erdiak"; "lauetako", "lauetarako"; "seina", "seirena".

Aditzondoak: "ain", "aren"; "ainbeste", "arenbeste"; "aistian", "arestian"; "geyo", "geyago"; "ona", "onera"; "ointxe", "oraintxe"; "o untz", "o eruntz".

Bayetzak eta ezetzak: "Bai zera", "bai zera"; "barik", "bagarik"; "ez zea", "ez zera"; "iñopez", "iñor bere ez".

Aditzak: "Eingo et", "egingo det"; "emongotzut", "emongo dautzut"; "eztopeingo", "ez dot bada egingo". "ikusikou". "ikusiko dogu"; "joan bikot", "joan bea - izango dot"; "aizazu", "adi zazu"; "a apazak", "a apatu zak"; "eiguzu", "egiguzu"; "ekatzu", "eka ezazu"; "esaidazu", "esan egidazu"; "itxoin", "itxon egin"; "eztaipa", "ez dakit ba"; "ba-gea", "ba-gera"; "ba-kit", "ba-dakit"; "gura bozu", "gura badozu"; "esateet", "esaten det"; "ein", "egin"; "ze biozu", "zer beaf dozu".

Zenbat o elakoak! Eta guzti oyetan ez dira berdin oguzten eta idazten; oguztean itzak laburtutrik esaten dira baña idaztean beterik jartzeko. Zergatik, orduan, orain ikusten danez, "Bilbo" idatzi "Bilbao" ipiñi ordez?, naiz eta itzegitean "Bilbo" esan?; o ela batzuen batzuek "Bilbao" euzkeraz "Bilbo" dala oket uste dezakete; ta ainbeste onelakoak: "Galdakao", "Galdakano"; "Leioa", "Lejona"; "Bermio", "Bermeo"; "Onda u", "Onda oa "Aramaixo", "Aramayona"; "Otxandio", "Otxandiano"; "Lemoa", "Lemona"; "Oinati", "Oñate"ren ordez, eta aba .

Azken oyei buruz ere, "Bilbao"ri buruz bezela gerta diteke, laburtutako itzak toki guzti oyen egiazko euzkal-izenak dirala uste diteke, beste ainbeste okefak egiten.

Jokera ori ez bide dato sakon egindako azterketa baten ondorioa bezala, osterantzean izpideak eta azalpenak ikusiko edo entzun genitzake noiz-edo-noiz; eztakit inñun emanak ote diran, baña nik neuk ez ditut ikusi ez entzun ere, ta kez-kaz beterik egon bea , zergatik galdetzean erantzun egokia, eltzen ez dalako, ta ayeruak sortzen zaizkigu jokera ori erabiltzea euzkerari dagokion egituratik sortua ez dala usteko.

Nundik baña? Zabarkeriaz ibiltzetik apika?, garden zaleegi bezela ez agertze-ko bildu etik?, etxekoa dana arbuyatzeko xede oke batetik?, itzak antolatze-ko euzkerak duen egokitasunari buruz muke yardunetik?, norbait begitan arturik dagoelako?, benetako lan sakona egiteko uzku egoteagatik? aisatasun aundie-giaz yardun nai-izateagatik?


Ezin geron aldetik egokia izan ditekera azalpenik aurkitzea, ta bildu -izan beaf beti egiazkoa zein ote dan ikusi ezkerro deitoragafia dala oartzeko. Edozein eraz gaur euzkaldunen eta euzkaltzaleen artean ba-dago zerbait minga ia dana: Erdi-biturik ari-izatearen egipena, egipen mingotza, ta erdibitze ofek euzkerari kalte izuga ia ekartzen diola argi baño argiago agertzen da; ta () ela dalarik, nola ontzat artu euzkerarenganako egiazko maitasunik dagoela?

Gure aldetik gure iritziari eusteko dauzkagun izpideak azaltzen ari gera ta o e-la jafaitu nai dugu. Oke egon gaitezke?, bai noski, baña bai ta beste guztiak ere, inñork uste izan baitezake bere iritzia egi-egia, egi utsa izan ditekela, ori a o-keri izuga ia izango baillitza. Beraz, guzoi dagokigu apaltasunaz ari-izatea, alka en laguntza bifatzea, gudan eta batik bat gure izkuntzan siñismen osoa ukan eta guztiz entzindurik egoteko bea ean. Ez inñoz anaya arbuyatu, ez e az uste inñoz gure egia ta gure egokitasuna etxeko lekoretik elduko zaizkigula. Gure biziari geu gera eutsi bea diogunok, eta gure ebazkizunak beren euzkal-bideeta-tik eramaten oyei buruzko erabakiak geuk ere artu bea ditugula, inñork ulertu ezin baitezake geuk bezin ondo zera ortan dagoen egiazko zentzua. Jakiña, ortan dagoen yardespena guretzat bete-betean artzeko ere.

Guzti o engatik barneraño sartu bea dugu guregan, euzkal-arazo guztietan yarduteko geu gerala nor eta geu be erabakitze-ko baka ak. Ia noizpait o ela jokatzeko gai ote geran.

Umandi





EUZKO ODOLA

Itun Zaarrak, irudi bitxiz azaltzen digu gizakiaren sorrera. Irazaleak, buztinaz tankeratu el zuan giziduria eta Bere betiraundeko bizi-amatxo bat aren soñan sartzeko, sudurrera ats egin ornen zion eta ats orren eragiñaz, soin guzti barna odoleraiak ekiñik, bizira ekarri ornen zuan.

Egilleak, biziaren oiñarria, inolaz ere bada, odolari ipiñi zuan, Abel anaiari bizia kendu zionean, ixuri zuan anaiaren odola deika zeukala aurpegiratu bai zion Kain'i lainkoa'k. Ez da bada arritzekoa orlako endeluzko bizi-oiñarria, Irazaleak, bere iakinduri aundiaz, aalmen altsuaz eta aukera guztietako bixikotasunaz aberastu nai izatea. Bizi bakoitzan odolaren batasunaz oartzen gera, baiña Irazaleak bakarra daki zenbateko gai aukeraz, banaikeraz, ugaritasunaz, edertasunaz eta aberastasunaz orni duan, ainbeste endatako gizasailak ikusten ditugunez, bakoitzaren odolak ere gai berexgarriak izan lezazkela uste bai genezake, atzetan banango arroillak bakoitzak dituan legetxe.

"Enda berexiak", guk aipatzean, bat baiño geiago belarri xut jarriko zaigula ba dakigu, enda berexien izenean egin diran odolkeri eta sarraskiak, ikara bizian utzi bai dute gizadi osoa. Ala ere, uka eziñak dira banango endak, begien aurrean bai dauzkagu eta Irazalea'ren ederrenetako sorkuntzak eta arrigarrieneko asmakizunak bai dira.

Endakeriak eta arren geikeriak alde bat utzita, beti onartu bear ditugu bada endak, Irazaleak bizidunei eskeiñi dien gaitasun berexi bat bai da eta adimenak, adimenik ez dutenengandik, gizakiak berexten gaituenez, endak ere, batzuek besteangandik, berexten gai gaitu, Egilleak gizodolean banandu nai izan dituan gaitasun bixiko eta ugari oien arauz.

Odolaren gaitasun edo segai bixiko eta ugari oiek, oraintsu arte ez dituzte kausitu aturatzaille eta iakinzaleak eta batzuk beintzat ikasten, oraintsu berritan asi dira. Segai oiek atxeman ala, berexteko, abedeko izkiak izendatu dituzte eta oraingoz ezagutuenak izki oek daramazkite: O, A, B, AB, Rh eta Rh ezezkorra (edo D-d).

O segaia, odol edo enda naasketarik izan ez duten baztar lurraldetako aintziñenetako gizataldeetan geienbat aurkitzen da. A eta B, odolaren segai multzopillokaiak dira, batzutan banaka eta bestetan AB biek batbatean.

1940'garren urtean aurkitutako odolaren segai bat da. Rh. Segai au, Rhessus tximuaren odolean ere aurkitzen dalako, tximu izen orren aurren bi izkiekin izena eman zaio. Enda txuriek, eunetan 85 laintatan daukate Rh baikor au eta Rh au ez daukatenak, Rh ezezkorrak beraz, eunetan 15 laintatan iotzen dira.

Enda baltzatan orratio, lainta aundigotan dago Rh baikorra, eunetan 85 orde, 95'tan.

Euskaldunak berriz, ludiko beste aberri guztiengandik Euskerakin berexi nai izan gaituan antzo, ba dirudi odolakin ere berexi nai izan gaituala Irazaleak, inungo endatan aurkitzen ez dan laintatan bai dauka euskaldunak bere odolean Rh ezezkor ori, ia eunetan 40'ko laintatan.

Aurkikuntza arrigarri au, gutunaurpegian argazkian azaltzen dan Mikel Gotzon Etxeberrri, argentinatar sendagin eta euzkotar seme jator orrek kausitu du eta Euskalerra'k, bere seme kutun eta iakintsu bati zor zaion betiraundeko oroimena

izan bear dio, edereitza bakan onek, giziztian, berebiziko garrantzia eta gora bai du.

Egia da bai, gure arpelariak, edesti aurreko arpegizon euskaldun aren bizibidea eta siniskeriak iakiteko, arritresna ugari eta artzuloetako marrazki eta irudi arrigarriak aurkitu dituztela eta aien bidez, gure aintziñako arbaso eiztari aiek nola bizi ziran eta ze siniskeriak zituzten ikasteko, argi ugari ematen dizkigutela eta orrexegaitik dira aberrian goraiatuak, omenik aundienak eskeintzen zaizkielela.

Ala ere, aurkikuntza oiek oro, arri-tresna eta irudi illak izanik, ioandako eta iraganiko edestiko gertakizunak azaltzen dizkigute, guztiz arrigarriak eta iakingarriak, baiñan sendagille iakintsu onek gure odolean bizirik daukagun gai berexi bat aurkitu digu, lurbirako beste enda guztietatik berexten gaituan Irazaleak eskeiñitako altxor bat, odol garbia, tximuaren Rh odolaren kutsu gabekoa, beste enda guztiengandik berexten gaituan odol xaiña, Kristo'ren aurretik 50.000 urtez lenagotik iarauntsiz datorkiguna, odol orretzek, Rh ezezkorrak, berexten bai gaitu beste enda guztiengandik euzko enda bezala.

Aurkikuntza miresgarri ontatik, egiustekizun au ateratzen digu atxeter iakintsu onek: Gaurregun euzkotarren aurkitzen dan Rh ezezkori, Europa'n izan zan aurren erriko euzkotar biztanleen odol garbiaren aztarna dala, antxen duala sorburu euzkotarren Rh ezezkori orrek eta orain Europa'n daukagun Rh baikor eta Rh ezkor oien arteko naasketa ori, ondoren etorritako errien odol kutsaketaz gertatu bide dala.

Tximuaren Rh'rik gabeko geure zaiñetako odol garbi eta xain au, ez da bada euskaldunontzat omenizen eta gaillaldi txikia, Europa'ko lenengo biztanleak izan gerala adierazten duala uste bai genezake.

¿Enda guztietako odol naastua daukaten arren, "Endaren Eguna" urtero ospatzen duten aberriek, omenonezko berezintasun au ba'leukate, ze iaikizunak egingo ote lituzkete?

Orlako bizibideko altxor aberats au, ez du utzi Irazaleak galdu genezaken geure esku axolakabekoetan, Euskera elerik aintziñakoena utzi digun bezela, ondatu ez dezagun, iraungarriko lege batzuk ipiñi bai dizkio.

Lege oiek, Mendel apaiz iakintsuak egindako aturalanei esker ikasi ditugu. Ona guretzat iakingarrienetako bat: Sortizantzatan, garbia edo ernalozimifidea, garaile irteten du eta orregatik deitzen zaio garailea; xixtorra edo ernalozimifidea, atzerat uzten du, orregaitik deitzen zaio atzeratutzia, erabat galtzen ez dan arren. Garbi iraun dezan, Irazaleak aurren odol garbiari, xixtorra menderatzeko indar garailea eman dio eta xistorrak euren artean naasten diranean, garbiak geitzera jotzen du eta xistorrak gutxitzera, erabat izkututzen ez diran arren. Bere garbitasuna xistorrengandik zaintzetako, burruka bizi au euki du bada euzko odolak eta orlako laintatan gaur ere aurkitzen ba'dugu, Irazaleak eman dion garaile indar orrenxengatik izan da eta aleunkako mendeak eta mendeak iragan ala, ba dirudi xistorrak menderatuz, garbiagotzen ioango dala.

Rh ezezkori odoleko neskatxa bat, Rh baikorreko batekin ezkontzen zanean, amaren odol garbiak, kurruka latz bat asten zuen aitaren odol Rh baikor orren aurka eta odolean gaitzak iota, iaiozko aurra gaixotu eta askotan il egiten zan, orrexegaitik euskaldunak euskaldunakin ezkontzera io dute, ondorengotan ezbear izugarriak sortzen bai zitzaizkien.

Irazalearen sorlanak diranez, enda guztiak dira bada euren gaitasun berexgarriekin iatorrak, arrigarriak eta ontzat eman bearrak, bat baiño bestea obeagotzat jotzen ibilli gabe eta sendia sortzekoan, bakoitzak bere eskubide guztia dauka enda guzti oietatik bere ezkontidearen aukeramena egiteko, ala ere, enda bakoitzari bere gaitasun eta mana berexiak eman dizkionez, ba dirudi gaitasun oiek ez ondartzeko, ez naasteko eta iraunarazteko, bere odoleko kideakin sendia egin dezan Irazaleak nai duala.

lainko'k dakian garaietatik, Rh kutsurik gabeko odol garbi ori, arbasoak zainduta, iarauntsiz artu dugunez geroz, ondorengoai ere urrea baiño aberatsagoa dan altxor ori iarauntsiz uztea, euskalduna bearturik dagoala usteko nuke.

Zaindu ditzagun bada ardura guztiz Irazalea'ren bi bezuza eta emari arrigarri oiek, Euskera eta Enda, bi oriek, zaintzeko Irazaleak eman dizkigun ondasunak bai dira eta nola erabili ditugun erantzukizun estua eskatuko bai digu, morroi artean ondasunak banandu zituan nagusiak, itzuli ondoren, eskatu zizkien bezela, Kristo'k bere alegi oargarri batean adierazten digunez.

Irazaleak emandako bi ondasun eta bezuza aberats oiek galduko ba'genitu, euskaldunenak egingo luke betirako.

Iakakortaxarena'tar Txomin
("Rh Ezezkorra Euskaldunetan" liburutik)

ERDERAKADAK

Prezioren indizea gora eta telefono tarifak gorago.

(Egunkaria, 91-4-13).

Idatziz deklaratzearrekurriko dau Akusazioak.

(Egunkaria 91-4-13).

Mundu aurreko afizionatuen txirrindulari lasterketa.

(El Correo Español).

Propositu enmiendazkoa.

(El Diario Vasco).

Polizien mandoak komisarian enzerratu dira.

(ET.B.)

Alternatiba, Autodeterminazioa, Detenituak, Errefuxiatuak, Insumisioa, Mili, Objetoare, Negoziatioa, Sorteorik ez, Torturarik ez...

("Korrika"ren zabalkunderako paperetan erabilitako itz batzuk).

Velocitate handiko trenak

(F. Krutvig. Egunkaria 91-4-3).

Geurea defenda dezagun.

(Lab).

Autopistan peajerik ez.

Lan aundia daukazu gauzak pentsatzen. Utzi egingo dizut.

(ETB 1, 7-11-91. Bazkal ondoko zine-mintzetan).

Egon mesedez kristalaren atzean deitu arte.

(Mosedez, kristalaren atzean egon, deitu arte).

Erabilpena eziñezko terminala

Ekaiñak 23. Jon deunaren gaua.—Gautxoriaren erretea.

Geigarri erdikoa

(El Diario Vasco)

Begi-luze



EUSKERAZKO IZENAK ERDIAROKO IDAZKERAN

* * *

871'an Araba'ko Larruki bat

Larruki au ere Kukulla'ko Donemillan'nen Lekaidetxeko larruki-sortan dago. Eme ibilli bearra dugu beraz, bere zentzua jasotzerakoan, sorta ortako beste larruki asko bezala, au ere, geroago aizundua ta okertua izatea balitekean gauza bait da.

Ori, euskal larruki zarrak irakurtzerakoan beti gogoan artu bearra dan gauza dugu, bein baiño geiagotan izan bait .dira bir-idatziak, eta maiz aski aizundu edo falsifikatuak.

Larruki oneri ortza sartu aurretik ordea, amai dezagun "Euskerazaintza"ren azkeneko zenbakian agertzen ari giñan 869'garren urteko beste ura.

Done-izenak eta giza-izenak gelditu zitzaizkigun aztertzeke.

Done-izenak auek dira, "genitibu" edo "noren-keran" ia danak:

SANCTI FELICIS SANCTI JOHANNIS SANCTI MICHAEL
SANCTE CRUCIS SANCTA MARIA

GURETZE DONEA, aurreneko aldiz agertzen zaigu larruki auetan. Eraspen ori eusko-kristautasunean noiztik datorkigun ez dakigu, baiña zarra izan bear duala dirudi.

SANCTA MARIA, "nominatibu" edo "izen-keran" dago. Beste gramatikari buruzko okerkeritxoren batzuk ikusiko zituan irakurle lartedunak, baiñan beerdarioan orrelako gauzak ugariak izaten zirala badaki noski.

Andra Miren agertu zaigu len ere Kukulla'ko larruki auetan. Zarra da Euskalerrian beraganako zaletasuna. Bere aipurik zaarrena, nik entzun dudanez, VII mendekoa dugu.

DONIBANE'ren izena "H" bat erdian sartuz idazteko oitura, erdiarioan nabarrena da. Orrela igaro da izen ori izkera germaniar batzuetara: "Johan".

Guk idazian auetan darabilkigun eginkizunetarako, auxe da larruki ontako done-zerrendatxo orrek erakusten digun gauzarik jakingarriena: 869'an yare zala oraindik eusko-kristautasuna egoaldeko eraginmenetik. Done oiek Eliz Orokorra-
ren doneak bait dira; ez bereiziki Eliz Bisigotarrenak.

Bat bakarra dugu Eliz osokoa ez dana: FELIZE DONEA, baiñan ori, esanik utzi genuan lez, emengo Donea dugu. Euskalduna, errioxarra eskierki, bakarda-
dean erriaren ustez Donetasunera iritxia, eta erriak oraindik an "San Felices" ize-
nez ezagutzen eta eraspenki omentzen duana.

* * *

Giza-izenak ordea, larruki ontako giza-izenak, ez dira euskaldunak, SANCIO, ots Santxo izan ezik. Balpuesta'ko gotzaia zan, eta, ain zuzen, urte ortan iI zala dirudi.

DIDACO, larrukia idatzierazi zuan kontearen izena da. Konte orretaz len ere itzegiñak gera.

ALDEFONSO, Asturietako III Albontsa erregea da. Bearbada, larruki ontara geroago, XII'arren mendeko bir-idazketa batean sartua.

SEVERUS, abataren izena, laterazkoa da.

GOMAZ eta FLAGINUS, —Gomaze confirmat Flagino confirmat—, badaiteke biak izen bisigotak izatea.

Orrek, len ere ikusi aal izan dugun lez, atzerritiko giza-izenak eguneroko bizi-
tzara lenago sartzen dirala esan nai du, done-izenak liturgiara baiño.

Larruki ontan ematen diran aberastasunak auek dituzu, abereentzako larre eta iturrietaz gaiñera: beiak, zerriak, ardiak.

* * *

Goazen orain gure gaurko larrukira. 871'garren urtekoa da. Arras arduragarria da. Izen-buru au darama:

"De ecclesias et de eras salsas donatas ad Sancti Vincenti de Okoizta":
"Okoizta'ko Bingen Doneari emandako eliz et gatz-obiak".

Ona, bertan aurki dezazkegun "toponimu" edo "toki-izenak":

OCOIZTA	STABELLU	SALONE	LEGIONE
ARGANZONE	GANNA	LETONNU	EREIHEHI
OLLEROS	SPINO	HELHORRIAGA	ZEZTABE

BIAZATICA

Orain arte, apika atera zaigun "H" bat larruki auetan begien aurrera. Orain ordea bi izen ematen dizkigu larruki onek "H"z jantzirik. Bi "H"z jantzia gaiñera bakoitza!

Aztertu'itzegun biak, baiñan asi gaitezen larruki onen gunea dan Orkoizta'tik. Erri ortako Donebixente'ren leikadetxe ari, ots, elizari, ematen bait zaizkio larruki ontan agertzen diran aberastasunak: "... offerimus et donamus ad honeren Sancti Vincenti de Ocoizta et tibi abbá domno Petro..." "Okoizta'ko Donebixente'ren aintzarako, eta zuri Kepa abatari, opaltzen eta ematen dizkizuegu..." Eta ez dira txikiak, Bixente Deunari egiten zaizkion emaitzak.

* * *

OKOIZTA, —K'z—, larrukia bera baiño geroagokoa dan larrukiaren izenburuan. Baiñan larrukian bertan Ocoizta agertzen zaigu beti: Bost aldiz, Ocoizta, —"C"z—, eta bein Ocoista, —"S"z—.

Gaur-egun AKOSTA esaten zaio Okoizta ari; eta ia-ia gaur arte euskalduna

izan dan Zigoitia arabar-aranean dago, Gorbeia'ren ego-sortaldean, iparraldera Ubidea bizkaitarrarekin muga egiten duala.

Bederatzigarren mende artan bezala, oraintxe ere, Akosta'ko elizak Donebixente euskaldunari opaldurik jarraitzen du. Irauten dutela gauzak, Euskalerrian!

Izenez izen, Akosta baiño izen euskaldunagoa da Okoizta nere ustez.

Alatagutziz, izen geiago ditugu Akosta'ren, antzekoak (Ako, Akobarrena, Akoe-gi, Akordabeitia, Akoloria...), Okoizta'renak baiño (Okollo, Okon, Okuntza...).

"OKO" ori, —eta "AKO"—, "lar", "sasi", esan nai duten itzak ornen dira, **Lopez Mendizabal'en ustez. Ez dakit nondik aterea duan ori, baiñan berekin bat dator Kerexeta ere.**

~~*

EREIHEHI. Orra or, lenengo aldiz, IX mendeko dokumentu auetan bi "H" dar-mazkian aurreneko toki-izena.

Ez da erreza erri ori eskierki non zegoan jakitea. Ezta, oraingo erri bateri dagokion izena dan, edo izen ori zeraman erria aspaldi ezabatua dan igartzea.

Oro zailla izateko, zailla da izen ori nola esaten zuten asmatzea ere. Gauza bat dakigu ziur: EREIJEJI beintzat ez zutela agoskatzen.

Beste gauza bat ere ez dakigu. "H" oiek lenen lumalariak idatzi zituan, ala berreun urte geroago beste bir-idazle batek ipiñiak diran.

Danadala, "H" garai artan sarri "G"ren ordezt erabiltzen zuten. Aranehi, Aranegi da; eta Adurzaha, Adurzaga. Gaur-egun, Adurtza.

Beste batzuetan, "H" oiek, "kontsonante" edo "izki lagundun" gogorrek goxatzeko erabiltzen zituzten, gure egunotan protugalдарrek bezala. Portugalera, Espanha, España da. Eta Batalha, lekaidetxe eder baten izena, Batalla, lekaidetxe ori Portugal'ek Espaiñaren lepotik Aljubarrota'ko gudan lortu zuan garaitzaren omenez jasoa izan zalako.

Gure larrukiko EREIHEHI ori idazterakoan, edo aurreneko idazle zarrak edo aren ondorengo bir-idazleetakoren batek, bera oartzeke okerkeri bikoitz bat egin zuala esango nuke nik: Ari ere, edozeiñi ain errez gerta oi zaion "lapsus calami" edo "lumaren txirixtatxo" bat gertatu zitzaioa, alegia.

Txirristaldi bikoitza: Edo, Ereinehi idazteko lenego "H"aren aurretik, "N" bat sartzea aztu zitzaiolako, edo Ereinehi idatzi nairik, "N" baten ordezt "H" nabarmen bat irten zitzaiolako.

Nori ez dio lurrak, edo idazkiñak, orrelako biurrikeri bat egin? Ta izki-talde auek, bai "INH" eta bai "IN", biak "Ñ" agoskatzen zituztelako..., bildur aundi-girik gabe, larrukiko Ereinehi txorabiogarri zital ori, EREÑEGI dala, esango nuke nik. Eta orrela deitzen ziotela, IX mendeko euskaldun aiek: EREÑEGI.

~~*

Naitanaiez Araba'ren iparraldean egon bear zuan erri orrek. Badaia, Arrato, edo Gorbeia mendien egietan. Or ordea, gaur, Ereñegi'ren antzeko erri-izenik ez da.

Ereña bat bai, bada Araba'n; baiñan andik urruti dago. Eta Bizkai'ko Ereño'k ez digu balio, au bestea baiño urrutiago bait dago.

Ereñegi ura gaur-egungo errietako bat izatekotan, Arrato mendiaren eta Foronda'ko egazkinlandaren artean dagoan GEREÑA dala esango nuke nik, inguru artakoak bait dira larrukiak aipatzen dizkigun toki-izenak.

Alatagutziz atsegin aundiagoz esango nuke, zorioneko Ereñegi orixe aspaldi ezabatutako erri bat dugula. Eta, iparraldeago, Zigoiti'ko lurraldean Akosta'ren alboan zegoala.

Zergaitik? Larrukiak, "sub defesa Ereinehi usque via de O11eros": "Ereñegi'ren debekueko lurretik O11eros'ko bidera arte" diolarik, "O11eros" ori orain jendeak "O11erias" esaten dion Elosu'ko auzoa izan daitekealako.

"Defensa" itza, ez da latera txukuneko itza; erdiaroko latera baldarrekoa baizik. "Abereentzat sarrera debekatua duan lurra" esan nai du. Nik, "debekepeko lurra" lez itzuli dut euskerara.

Araba'n bada Ullibarri de los 011eros izeneko erria, baiñan txarto datorkigu, gure larrukiko tokietatik aski urruti dagoalako.

Buka dezagun aapaldi au, Ereíhehi EREÑEGI zala esanez. Eta Ereñegi ori, Zigoiti'n, orain 011erias dagoan tokiaren alboan egon zan errixka bat zala; aspaldi ezabaty zitzaigun errixka. Asko dira ba, Araba'n, orrela ezabatutako erriak. "Mortorios": esan oi diete.

~~*

OLLEROS.— Badut ordea, larrukian 011eros bezala agertzen zaigun 011erias orri-buruz esateko, beste zerbait ere: IX mendeko gure larruki batean OLLEROS orrek zer egiñik ez duala, alegia.

Ez da latera, lateraz "olleros" "figuli" bait da.

Gaztelera ez daiteke izan IX mendean.

Nork arraio, eta nola, sartu ote zuan bá larrukiaren lerroetara? XII mendean ondorengo kopiatzaille edo bir-idazleren batek ezpairik gabe.

"Usque via de 011eros", dio gugana iritxi zaigun larrukiak: "011eros'en bidera arte". Zer idatzi ote zuan IX mendean lenengo idazle arek? Ez noski, naiz bera euskalduna izan, "usque via de Eltzegilles"; esaldi ori lateraz parregarria bait da

Zer idatzi ote zigun ba? "011eros"en antzeko zerbait, naitanaiez. Bestela ez bait zan ark idatzitako izen ura, azkenean "011eros" biurtuko.

An bertan "011erias" esaten zaion toki-izen bat badala esan dugu. Baiña, orain-oraintxe arte zearo euskalduna izan zaigun lurralde artan, gaztelera izen ori naitanaiez beste euskal-izen zarrago baten itzulpena dugu.

Danadala, .—naiz orduango idazkera traketsak uste on aundiegirik merezi ez—, lumalari ark, '011eros" "O" nagusia erabilliz idatzi zualako, toki-izen bat eman nai izan zigula dirudi.

Zer ote zan ba, 011eros'en antzekoa eta gaiñera euskalduna, gure lumalari ark idatzi zuan euskal-tokiizena?

OLLAS. Bai, irakurle. OLLAS idatzi zuan Kukulla'ko lekaide euskaldun arek.

Parrez ikusten zaitut; eta badakit zer galdetuko didazun:

— Ai'zak i, Bixente: OLLAS izen euskalduna al duk?

— Bai noski. Izen ori gure agoskeran OLATS bait zan. Trakeskeri aundi bat egin zion idazterakoan, berak nai gabe, gure lekaide zar arek euskal-izen jator orri.

Lumalari ark bazekian toki aren izena "Olats" zala. Bazekian "la" ori idazteko bi "L" erabiUiz, "LLA" ipiñi bear zuala, baiñan ez zekian, —ez berak ez beste iñork orduan— "TS" euskalduna lateraz nola eman bear zan, eta orduango beste idazleek bezala, "S" bat ezarri zuan. Idazlerik geienak bezala. Beste batzuek "SS" jartzen bait zuten euskerazko "TS" soiñua lateraz emateko.

Orrela izatekotan. OLLAS ori OLATS izen euskaldunaren aldakuntza izango litzake.

"Etymology fiction"? Baleike. Baiñan arrazoi-ttantta pittin-pittin bestrik ez ba'da ere... ez al didazu emango, irakurle?

Nere ustez beintzat bide zuzena da, oiña larruki zarrean ipiñiz, iragarri dugun au: 011erias - 011eros - Olats.

Itzul gaitezen "Ereñegi"ra:

"Ereñ"ez asten diran toki-izenak bat baiño geiago ditugu Euskalerrian: Ereñotz, Ereñotza, Ereñuzketa, Ereñu, Ereño, Ereña, eta, agian itz orren aldakuntzak, Gereño, Gereñu eta Gereña.

"Ereñotz", zugaitz baten izena da. "Erramu" ere esaten diote toki batzuetan.

Eta, badaiteke, norbaitek esan duan bezala, "erramuaren egiazko euskal-izena "Ereñ" izatea. Ortaz "Ereñotz", "TZ" atzizki ugaritasun adierazlea daramala, ereñ askoko tokia izango litzake: Ereñeta.

~~*

BIAZATIKA.— Ez dakigu erri baten izena zan edo ez. Ezer ez jakiteko, ez dakigu izen ortako bederatzi izkiak nola irakurri bear diran ere.

Orrela irakurten ditu Antonio Ubieto Arteta'k: danak alkarturik izen bat osotzen dutela: "UBi inicit Biazatica sub defesa Ereihehi usque via de 011eros". "Ereihehi'ko debekupeko lurraren azpian Biazatica asten dan tokitik 011eros'ko bideraiño"

Luciano Serrano'k ordea, "ubi inicit bia zatica sub defesa Ereihehi usque via de 011eros" irakurri zuan: "Ereihehi'ko debekupeko lurraren azpian asten dan bide "zatico"tik 011eros'ko bideraiño".

Nor ote dan bietan arrazoiduna? Nere ustez, oraingoan, Luciano Serrano Kukulla'ko Abata zana.

Baiñan arrazoa Ubieto Arteta Balentziko'ko unibersitate-irakasle yayoarena ba'litz ere, ez litzauguke oker aundiegirik gertatuko. "BIA" aurre-izkiz asten diran toki-izenik badugu bá gure Euskalerrri ontan: Biarritz (Laburdi'n, naiz fonetikaz laburditarrek Miarritz esan), Biana (Naparroa'ko una), Biana, Bian, Biain (abizen giputzak), Bianditz (Lesaka'n), Biama (Oñate'n), Biakun eta Biar (Araba'ko Ganboan eta Iruraitz'en) Biaskarpe (Naparroa'ko Kaparrotsu'n)...

Eta asko-eta-asko, "IKA" atzizki amaitzen diranak: Langarika, Gatika, Zulaika, Pertika, Baztarrika, Totorika, Lauzirika...

Nere ustez ordea, Luciano Serrano'rena dala oraingo ontan arrazoa utzi dut esanik.

Zergaitik?

Laterazko esaldi ortan larrukia bideetaz itzegiten ari dalako. Bi aldiz aipatzen du, tarte laburrean, "bide" esan nai duan laterazko "via" itza:

"Ubi inicit BIA zatica sub defesa Ereihihi usque VIA de 011eros":

Egia da, bein "B"z, bia, eta beste bein "V"z, via, idazten duala itz ori; baiñan ortografiak goi-erdiaro artan ezer askorik balio ez zuala badakigu.

Baiñan larrukia bideetaz mintzatzen dalako, Luciano Serrano'ren irakurkera artzen ba'dugu egiazkotzat, "ZATIKA" itza zer demontre izan daitekean argitu bearrean aurkitzen gera.

"Via zatika": "Bide L. ?". Puntu oien tokian itz euskaldun bat jarri bear dugu. Laterazko itzik beintzat ez dezakegu jarri; Lateral(orrelako itzik ez du-ta. Gaztelazko bat jartzerik ez dago. Bederatzigarren mendean sekulan gaztelararik sortu zitekeanik, iñork ez zuan ba pentsatu ere egiten.

Naitanaiez bear du itz orrek euskal-itx jator bat izan!

"Zati", euskeraz, puska dala badakigu. Puska txikia berriz "zatiko".

"Zatiko" erabiltzen du, "pusketa" adierazteko, gaztelazko lenen olerkari izan zan Bertzeo'ko Gontzal'ek gaztelaraz idatzitako bere olerkietan. "Zatika" ordea, "zatiko"ren ttipigarri edo "diminutibu" bezala ez dut sekulan ez entzun ez ikusi.

"Via zatica" idaztean "bide urratua", "bide zatitua", "bide puskatua", gaztelaraz esan oi duten bezala, "camino a cachos" idatzi nai izan ote zuan gure lumalari zar arek?

Ez dakit. Zer iduritzen zaizu aun, irakurle? Gustora jasoko dugu zure iritzia "Euskerazaintza" ontan.

~~*

Gure gaurko saio au aski luzatu dugu ordea-ta, utzi dezagun jarraipena beste egun baterako.

Latiegi'tar Bixente



EUSKERA BATUAREN BILLA (Jarrai pena)

III

Ortografi-batasuna egin ondoren, euskera berdintzeko alegin eta saioak datoz urrengo. Au ere, Euskaltzaindiaren ardurapean, Euskaltzaindi sortu-berria bide-erakusle dala.

Urrats au urrats berria, pausu berria degu. Artean lau euskalki nagusi genituen, laurak nolabait berdinduak eta geiago edo gutxiago landuak, bakoitza bere literaturarekin. Emendik aurrera, aiei guztiz agur egin gabe, baiña aien gainetik, euskera bat lortu nai da, euskaldun guztientzat eredu jartzeko bezelakoa. Ortara iritxi nai liteke, beintzat euskeraren literatur-mailla baterako.

Euskaltzaindia sortu zaneko azaldu zan asmo eta ames ori. Gure izkuntza bat egitea, edo batasunera bidean jartzea, ori izan zan Euskaltzaindiak aurrean jarri zituen elburuetatik bat, eta ez garrantzirik gutxienetakoa. Oraindik ez du iritxi. Gauza zailla izan, noski, ez berez berezko lana. Baiña alegiñik egin da bide ortatik, leen eta oraiñago.

Leen eta oraiñago esan det. Au esanaz, bi aldi berezi nai ditut batasunaren billa egin diran salo eta ekiñaldietan. Biei gain-begiratu bat egiten saiatuko naiz.

Leendabiziko aldia. Euskaltzaindia sortu-berritakoa.

Egia esan, batasun-nai au ez zuen Euskaltzaindiak berak sortu. Ikusi degunez, ez ziran egon euskaldunak leendik ere beren gaitzaz konturatu gabe. Eta gaitz ori sendatzeko alegiñik egin gabe ere ez. Baiña zenbat eta elkar ezagutuago, zenbat eta euskal-gogoak sustrai sendoagoak bota, geiago nabaritzen zan euskaldun guztien euskara bat izan bearra. Eta gureak berez esnatu ez balira, or zeuden atzerritarrak gogoratzeko. Laster dira, ain zuzen, eun urte, atzerriko izkuntzalari batek (Hovelacquek) onako zerbait esan zuela: "Izkuntzarik geienek, tokian tokiko izkeraz gaiñera, beste zabalduago bat ba-dute, alkar artuz bezela sortua, eskolan edo nonbait ikasia, eta literaturak erabiltzen duenaren antzekoa, edo aren urbillekoa. Euskalerrian ez da olakorik gertatzen; idazle bakoitzak bere euskera du".

Izan ere, ala da; guk lau bost euskera ba-ditugu. Euskaldun guztiak elkar erreztu ulertzeko euskerarik ez da gure artean sortu. Idazleek pausu txiki batzuk eman dituzte aurrerago joateko, baiña bakoitzak bere euskalkiaren barruan, euskaldun guztiak elkar aditzeko erarik lortu gabe.

Idazleek banaka lortu ez zutena, norik edo zerk lortu zezakean? Geienak Akademi baten begira zeuden. Inork ezer lortzekotan, Akademiak lortu bear zuen. Akademiak ezarri bear zuen batasuna ortografian, idazkeran, eta berak urratu bear zituen euskera batu baten bideak ere. Iritzi ortakoak ziran okerra zuzendu nai zuten geienak. Eta orra ortako ordua iritxi, orain dala berrogeitamar urte.

Ordu orren begira, lentsuago asiak ziran, bai, saiaketa bat edo beste, esaterako, Azkuek bere Prontuario de la Lengua Vasca liburuan egiña, Gipuzkera osotuari bidea iriki naiez.

Baiña egia da gero Euskaltzaindiak artu zuela bere gain egiteko au. Iru elburu izango zituen Akademia sortu-berri orrek, onela zion lenbiziko urtean zabaldu zuen orritxo batek. Iru elburu: leenbizikoa, euskeraren ortografia bat egin; bigarrena, iztegia garbitu eta osotu; eta irugarrena, euskera literario bat, euskaldun guztientzat balio zezakena lortzen lagundu. Irugarren elburu au gero Euskaltzaindiaren arauetara eraman zuten. Eta bertatik ekin zioten lanari.

Zer egin zuten, egin? Leenbizi, ortarako zer giro zan ikusi, iritziak eskatu. Batasunik bai ala ez, eta nola egin.

Leenbiziko galderak baiezkoa artu zuen geienen aldetik. Zailena gelditzen zan: batasuna nola egin?

Bi euskaltzainek, Kanpion eta Broussain jaunek, eman zuten aurretiaz beren iritzia. Bi bide arkitzen zituzten egokienak batasunerako: leengo euskalki landu netako bat artu literariotzat euskera idatzirako; edo beste euskalki bat, bederatzigarrena, sortu, leengoetako bat oiñarri arturik.

Euskalki zaarretan, zaarrez eta landuago zelako, Lapurdiera ikusten zuten landuena eta egokiena ortarako. Baiña Lapurdiera zaarra orain illa degu. Lapurtrerek ere ez dute erabiltzen. Naiko aldatua daukate. Beraz, bide obertzat zeukaten gaurko egunetako euskalki biziren bat autatzea: gipuzkera, edo gipuzkeraren urbillekoren bat. Batez ere, gipuzkera, guztien erdian dagoelako, eta euskaldun geienentzat ulertterazena dalako. Baiña ez gipuzkera utsa ere. Nola galtzen utzi beste euskalkietan gorde diran ainbat ondasun? Beraz, gipuzkoarren euskera besteen ondasunez osatu egin bear zan.

Euskalerraren iritzia jakiteko, lau batzar antolatu ziran bereala: Bilbon, Donostian, Lekarotzen eta Hazparnen. Idazle batzuek, berak beretara ere, biali zuten beren esatekoa.

Iritzi-emaille guztiak ez zetozen bat. Batzuek zioten ez zala, beintzat, euskalkirik ito bear; ori euskeraren eriotzea izango zala. Euskalki bakoitzean batasuna egin, bai; besterik ez zuten nai, euskera biziaren kaltegarri edo ilgarri izan ez zedin. Inor beartu gabe jokatu bearko zan, nola nai ere. Beste batzuentzat, euskeraren bizia, euskeraren etorkizuna, euskera batuan zegoen. Eta inongo euskalkirik artu bear bazan oiñarri, botorik geienak Giputzen alde zeuden.

Aldi artan erdaldun izkuntzalri batek (Ramón Menéndez Pidal'ek) itzaldi bat eman bear zuen Bilbon, eta egun aietako gai oni buruz oar batzuk egiten zizkion Euskaltzaindi sortu-berriari, Euskal-Akademiari, Kanpion eta Broussain jaunen ageria irakurri ondoren.

Bera ez zan jaun oien iritzikoa. Menéndez Pidal-entzat Euskera batuak erriarena izan bear zuen. Baiña gipuzkera batu ori, Kanpionek eta Broussain jaunak azaltzen zuten ori, izan zitekean erriarena? Ezezkoan dago erdaldun izkuntzalaria. Orregatik, beste bide bat erakusten du batasunera irixteko. Gogoan du, leenbizi, izkuntza ez dala gramatika-bidez sortutako ezer, bai gizarteak, erriak sortutako zerbait. Munduak ez dauka, ez, izkuntza berri bat sortu eziñik; baiña ez

ornen da ortara iritxiko, izkuntza berririk asmatuz, volapukbat edo sortuz, edo beste izkuntza batzuk naastekatuz.

Menéndez Pidal orren eritziz, euskaldunek euskera bat izan ezinik ez daukate; baiña ez dute beingoan edo bat-batean lortuko. Lapurdiera naiz gipuzkera neurri egoki batean naasturik, gaiñera beste euskalkietako ondasun batzuk ari ezarrita, ez litzake gauza izango orrelako euskera batean liburuak ateratzea ere; baiña, aren iritziz, ori ez da sekula erriarena izango. Orrela euskeraren bizia etenda geldituko litzateke. Olako euskeran leengo mendeetako euskerarekin lokarri gutxiegi izango luke. Euskaldunek ez al dute beren euskera orrela ilko, ez Bizkaikoa, ez beste inongoa.

Ala ere, euskaldunek euskera literario bat bear dutela eta nai dutela dirudi. Ezingo al dute ori iritxi, artifizialkeriarik gabe? Baietz uste du Menéndez Pidal-ek. Artifiziala, itxura utsezkoa izango da landarea, alanbrezko adarrez eta paperezko ostoz ornitzen badegu; baiña ez da olakoa izango, azia erein eta lanaren lanez ernerazi eta azten laguntzen baldin badiogu. Orrelakoak izan bearko du euskera batuak ere, baldin errian sustraiak artuko baditu, eskolatu gutxi batzuek erabiltzeko tresna izango ez bada. Zer egin dezake, beraz, Euskaltzaindiak? Esaterako, indarrak geien erakusten duen euskalkiari aurrera egiten eta zabaltzen lagundu lezaioke. Euskalki bakoitzak erakutsi dezala bere gaitasuna, zeïnek daukan zabaltzeko edo edatzeko bizitasunik eta kemenik geien, eta beste euskalkien ondasunak beretzeko indarrak geien. Olako euskalkiak berez artuko du indarra idazleen lurretan. Eta idazleek lagunduko diote beste guztien artean nabarmentzen eta gaiña artzen. Orrela sortuko dira idazleen lurretatik itz berriak ere. Eta itz berriok berak berez nausituko dira, piskaka, la igarri gabe.

Egiteko ontan euskaldunak ez zuten urduriegi ez lasterregi jokatu bear. Ez eta áginduz, goitik bera, legez ezer ezarri.

Euskaltzaindiak 'ez zuen aldi artan jokatu izkuntzalari erdaldun onek erakutsitako bidetik oso urrutiturik. Ez zan legez ezer erabaki, ez agindu. Beste bide batzuk edo egiteko batzuk zeuden ordukoz beiñagoak: Euskera sakonago aztertu eta ezagutu, gramatika osoago eta jakite-argiz ornituago bat atera, iztegia ugartu, euskalki guztien ondasunak bildu. Bide ortatik joaz sortuak dira Azkue-ren Morfologia, errietan egindako azterketa edo Erizkizundia, itzen eta aditzen formarik erabillienak jakiteko; ortara zijozten Iztegi alik osoena egiteko lanak. Ortarako izan ziran, esaterako, Aita Oyeregiren itzik zabalduenezko iztegia. Azkue jaunna, gaiñera, berak leenago eta gero geienen gogoko gertatu zan bideari ekiñez, Gipuzkeraren inguruan saiatu zan euskera batua moldatzen eta ala bere Gipuzketa Osotua dalakoa eman zigun, literatur-euskeratako oiñarri edo enbortzat Gipuzkoakoa arturik.

Azkuek berak jokatu zuen Gipuzkera Osotu orren alde beste inork baiño su ta gar andiagoz. Onela zion, Euskaltzaindia sortu aurretik, Gipuzkoako Diputazioari eskiñi zion liburu batean: "Gure euskera zar oni, antziñako izkera guztiai bezela, umetsua izateak beronen bizia erruz eskintzen dio. Bakarra izan balitz, euskaldun geienok ezkenduke adiskideen artean erderara jo bear izango. Ezin bakartu dezakegu, batu bai... Oso ta nun-nai zabaltzeko indardun izango litzake bat egitea eskuratu (lortu) ezkerero. Gipuzkoako izkelkia (euskera) dugu onetarako galena; beronen gainean izkera batu liteke; bazterretako izkelkien gainean ez, erraz beintzat. Jaunak Euskalerriarren erdi-erdian Gipuzkoa eta izkelki guztien muintzat berarena jarri duen ezkeroztik, Gipuzkoak ar beza, beste Aldundiak baiño ere gogozago, izkera bati bizibidea emateko ardura eta arloa".

Gipuzkera osotu ortan egin nai izan zuen Azkuek bere nobela Ardi Galdua. Eta onen itzaurrean berriz ekiten dio bere leloari: "Euskera ilgo ezpada, noraezekoa, nai ta nai ezkoa degu izkelki bati, dialekto bati euskaldun guztiok errazen uler-tzen degun izkelkiari, Urumea-bazterrekoari indarra eta kemena ematea".

Eta geroago, Gipuzkera osotua atera eta gero, batasun-billa Bilbon, Donostian,

Lekarotzen eta Hazparmen egindako batzarrak aipatu ondoren, bere egiten ditu beste Bizkaitar baten itzak, Biktór Garitaonaindiarenak: "Nire aburuz, Gipuzkoako izkeltzia autetsi bear da, beste izkeltziak baiño obari geiago dituelako bere alde. Errazagoa da, bai zabaltzeko eta bai ulertzeko. Beste guztien erdian aurkitzen da; eta errazago da erdikoa bere inguru edo alboetara zabaltzen ertzak bat egiten baiño. Bizkaitarrak ulertzen dabe Gipuzkoarren izkera, Gipuzkoarrak ez Bizkaitarrena. Zuberotar edo Lapurtarren artan ori bera jazoten da (gertatzen da). Idazle guztien euskera ori ez da izango gaur egunean itz egiten edo idazten dan Gipuzkoera, baizik osotua, apaindua. Artu, bai Bizkaiko eta bai Zuberoko eta bai Napar eta Lapurdiko izkeltgi edo euskerak dituzten edertasun eta obekuntza bereziak eta Gipuzkoako izkeltgiari ezarri".

Orra Gipuzkera osotua nai zutenen elburua. Eta bide ortatik egin ziran alegiñak eta saioak, ogeitamaseiko gerratea etorri zan arte. Orduan bai Euskaltzaindiaren lanak, eta bai euskerazko lan guztiak, etena izan zuten zati baterako, Euskalerra indarrak menderatu zuen ezkeru.

Eta berriz euskeraz eta Euskaltzaindiak burua jasotzen asi ziranean, beste joera bat dator. Nola? Nortzuk dakarte joera berria?

Bi izen aipatu nai ditut emen: Krutwig jaunarena, eta Lafitte apezarena. Bata, aita alemanaren semea, Bizkaian jaioa; mugaz andikoa bestea. Batez ere, Krutwig jauna izan dala uste det nik oraingo bide berrien aita. Ez zuen berak euskera amaren altzoan ikasi, bai liburuetan eta an-orko erritar batzuekiko elkar-izkeltaldietan. Jaun onek erdiz erdi artu nai izan zuen Lapurdiera zaarra batasunerako oiñarri bakartzat. Gazterik zabaldu zizkion Azkue jaunak Euskaltzaindiko atak. Eta andik, barrutik ekion zion bere lanari.

Idazle zaarretan billatu bear ornen zuen euskerak batasunerako bidea eta iturria. Gure idazle zaarretan ospetsuenak, landuenak, ongien idatzi zutenak, Lapurtar zaarrak artu bear ornen genituzke eredu, eta ez iñondik iñora ere oraingo lapurdiera, Manexkutsua dariona.

Krutwig jaunarentzat, gaiñera, Lapurdi dago, ez Gipuzkoa, Euskalerraian erdian. Eta mapa buruz bera jarrita, alegiñak egiten zituen ori ala zala erakusten, egiztatzen.

Aren iritziz, lapurdiera zaarra artu, eta eginda daukagu batasuna. Ori bai; edozein idazleri antz emango zaio nontsukoa dan, bakoitzari geldituko ornen zaio bere kera eta antza, beste izkuntzetako idazle askori gertatzen zaion bezela. Baiña bide zuzena eta bakarra or degu; eta ez beste iñon. Ortan jaun onek ez zuen zalantzarik.

Krutwig jaunak bere eskolara ekarri zuen aita Villasante. Bere eskolara, eta Euskaltzaindiara. Eta orixe izan zan ain zuzen Euskaltzaindian sartzerakoan artuko zuen itzaldi-gaia. Giro ortan du sustraia beste Bilboko idazle baten joerak ere, Aresti jaunarenak, alegia. Eta onen ildotik dabiltzan beste orañagoko batzuen joerak ere, bai.

Euskera iltzat leen baztertu zana, Lapurdiera zaarra, orixe jarri nai digute euskera idatzi eta literarioarentzat eredu eta lege.

Joera orrekin aurrez aur, bekoz beko, daukagu Lafitte apez zentzuzkoarena. Onek ere batasuna maite du, eta batasuna nai luke, mugaz andiko idazleentzat beiñik bein. Lapurdiera zarra iltzat dauka, eta oraingo lapurdiera eta Nafarroa Behereko euskera ein batean naasturik egin du andiko aldeko guztientzat lege nai luken euskara eta euskal-gramatika.

Lafittek uste du Euskaltzaindiak ariñegi, lasterregi jokatu zuela Gipuzkerari begira jarri zanean. Gipuzkera nekez on artuko dute beste aldean. Eta arako beintzat euskera batu bat nai du: ez Lapurdiera berria, ez Naparrera, bai bien artekoa, Zuberoko euskera-tanta batzuekin naaste. Euskera ori nausitu ornen dan go idazle eta sermolaririk geienen artean, Zuberotarren artean izan ezik. Geiena Lapurdikotik artu du, au baita landuena, literaturarik ugariena izan duena.

Leenari zor zaio berea. Baiña ez gelegi. Orregatik, dana Lapurdiera izan ez dedin, napar-euskeraren kutsu apur bat sartuko zaio, eta Zuberokotik ere bai zerbaitxo.

Ori da Lafittek bere Gramatikan erakusten duen euskara, napar-lapurdiera. Jakiña, batasuna au Bidasoaz andiko alderako da. Bidasoaz onakoentzat ez du Lafittek legerik eman nai. Ala ere, ez uste, euskaldun guztien batasuna gogoan ez daukanik. Ori ere piskaka piskaka lortu daitekena, da, eta opagarri. Noiz edo bein etorriko al da! Bien bitartean, egin dezagun bakoitzak geure aldeko batasuna. Beste ori, urrenez urren, gogorregi jo gabe, emeki emeki, idazleek ekarriko digute. Ori da maixu onek nai lukena.

Auen ondoren, bear bada, beste batasun-saio batek merezi luke aipatzea. Beronen bultzatzailea: J. Basterretxea jauna. Oskillaso ezizenak egin du ospetsu. Egia esan, berandu samar azaldu da euskal alorrea. Baiña bai bizi zekarrela batasunaren kezka. Eta artarako bide bat asmarazi dio kezka orrek. Izena ere berria asmatu du bere ume orrentzat: *Euskera osotua, ez ain zuzen Gipuzkera osotua.*

Entzun dezaiozun berari, Kurloiak izeneko liburuaren sarreran bere asmakizuna azaltzen: "Orai direla hogei ta amar bat urthe hasi giñean euskaldunok batasunaren bilha, eta egin dugun aurrerapenaz konturatzen geranean, arras laburra iduritzen zaigu denbora hori.

"Lapiko batzuekin azalduko dizut dana, irakurle.

"Hasieran zazpi lapiko geneuzkan: Bizkaiera, Gipuzkera, Napar Garaikoa, Napar Beherekoa, Lapurdiera, Zuberoko euskera ta Erronkarikoa.

"Lapiko bakhar bat behar genuela ta bat hautatu ta beste lapikoetatik tanta batzuk bota genizkion. Hunela sortu zan lehenbiziko batasun-euskalkia.

"Gero, Peruk, Pernandok eta Manexek dastatu behar zuten eltze huntan gordeten zana. Huna zer erran zuten:

"Peruk: "Etxat gustetan lapiko hau", erran zuen, "neurea gustetan jat askozaz gehiago; baiña tira, beharrezkoa dogu batasuna eta iruntzi egin beharko dogu".

"Pernandok: "Gusto bikaiña du. Ba-aldago eltze oberik?, erran zuen.

"Manexek, berriz: "Eztut iresten ahal, erran zuen. Etzait laket".

"Anhitz liburu egin ziran lapiko bakarrarekin. Ikus dezagun orain nola egin ziran, zelako abegia egin zioten irakurleek, eta zer gertatu zan gero.

"Buru-hauste asko eman zioten Peruri liburu hauek, eta bizkaiera hutsezko liburuak bethi bezala idatzi eta irakurri arren, saiatu egin zan Gipuzkera Osotuan idazten eta irakurtzen. Manexek etzituen ulertzen liburu haiek. Baiña Pernandorentzat errezak eta pozgarriak ziran. Etzan gelditu Manex lanik gabe eta opor egiten. Huna zer egin zuan gero batasunaren alde: lapiko handi bat hartu, Lapurdiko eta Benaparroako eltzeak osorik hustu lapiko handi huntan, eta Zuberoko lapikoaren erdia bere barnera bota zion. Eragin ondo, eta bigarren batasun-euskalkia jaio zan hunela: Napar-Lapurdiera".

Ona guk leen aipatu degun Lafitte jaunaren lana gatz eta piperrez azalduta. Orain zer berri dakar Oskillasok? "Manexek egin zuana arras egoki iruditu zitzaion eta hartu lapiko handi handi bat, Manexena baiño bi bider handiagoa, eta han sartu du lapiko hauein barruko guztia liburutto hunen egileak. Eragin ondo eta hemen dizu dasta dezagun".

Orra Oskillasoren euskera osotua, euskera guztien puskaz egiña. Nolabait, Mogel-en "Peru Abarka"ko bizkaitar, gipuz eta frantzesarena gogoratzen digu. Basterretxearen eltzean, lapikoan, euskalki guztiek sartzen dute bakoitzak bere koipea.

Etorri gaitetzen orain azken-aldiko saioetara. Orain dala sei-zazpi urte agertu zan beste bultzada bat batasunaren alde. Mugaz andian abiatu zan, baiña emengoak zirala uste det bultz-eragille.

Or degu Baionako batzarra (biltzarra). Geroxeago Ermuko batzarra dator, eta

azkenez, Arantzazuko. Bultzada esan diot oraingo joerari. Eta alakoa da. Baionako batzarra ezkerer, bultza eta bultza ari dira asko, egundainoko ezin egonak jota bezela. Albait ariñen egin nai dute zerbait. Euskaltzaindiarekin naiz Euskaltzaindiaren gaiñetik, aurrera jo bearra ornen dago. Eupada bat ere jaurtiki zitzaion Euskaltzaindiari "edo batasuna egin eta goitik bera ezarri, edo euskeraren etsai zarete, eta aren etsaien adiskide". (Enbata, n.º 28, 1X1963).

Baionako batzarrak eman zuena or dago argitaratuta, orri batzuetan jasota. Ango erabakiak, batzuk ortografiari buruzkoak dira. Emen agertzen da leenbiziko aldiz H-ren auzia. Euskera osoaren batasuna badirudi ez daukatela oraindik gogoan, bai euskalkien barrukoa. Baina H ori euskalki guztietan sartzea nai dute bokal bi berdiñen artean, eta itz baten beraren bi adiera edo zentzua bereizteko (nahastu, aur-ahur). Ortik aurrera zillegi uzten dute; nai duenak erabilli dezala, eta nai ez duenak ez. Gero, zer-ikusi gutxiko oker batzuk zuzentzeko arau batzuk eman ondoren, deklinabiderako legeak ematen dituzte, eta aditza nola erabilli edo aditzaren zein forma on artu erabakitzen. Forma batzuk bi eratara erabiltzeko aukera edo baimena dago. Ez zan gauza andirik, baiña ez oso utsa ere. Eta gogoangarriena: Euskaltzaindiari dei egiten zioten, erabaki aiek aztertu eta onar zitzan.

Beste dei bat artuko zuen Euskaltzaindiak andik geroxeago: Euskaltzaindia sortu zaneko urre-eztaiak zirala-ta, gauza egokiena iruditu zitzaion norbaiti (Aresti jaunari), batasun-auzia berriz aztertu eta konpontzeko bidean jartzen saio berri bat egitea. Ala egitea erabaki zuen Euskaltzaindiak. Oiñatiko batzar batek sortua da Euskaltzaindia, eta aren oroigarri, zer gauza egokiagorik, Oiñatin beste batzar bat antolatuta eta batasunaren oiñarriak antxe bertan ipintzea baiño?

Bien bitartean, Durangoko Gerediaga Elkartea ere sartzen da tartean. Eta euskaltzale guztiei dei egiten die, Baionako batzarrari jarraituz, Ermuan batzar bat egiteko, ea aurrerago joteko biderik arkitzen zuten.

Emengo erabakiak era argitaratuak daude. Zer da beren muiña? Ainbeste elkarrizketa eta eztabaida izan ondoren, auxe baiño asko geiago ez: H-ari buruz Baionakoak erabakitakoa ontzat artu, eta Euskaltzaindiak Oiñatin artuko zituen erabakiak aintzat artuko zituelakoa.

Beraz, berrito daude guztiak Euskaltzaindiak zer esango zai. Eta Euskaltzaindiak zer egin zuen? Oiñatiko batzarra egin baiño leenago, euskal-idazle guztiei Arantzazura dei egin, an guzrien iritziak jaso eta eztabaidatu, an guztiekin batean batasun-bideak urratzeko. Eta or bukatu zan dana.

Esan nai det, azken-erabakiak artzeko batzarra, Oiñatikoa ez zala gertatu eta Arantzazuko batzar ortan emandako bide-erdiko pusu artan, erabakitzearen aurrerapen artan, gelditu zala guztia.

Beraz, Arantzazuko batzar ori degu aurreko lan guztien gallur bezela. Era ara begiratu bearko degu. An egin zan lana, eta artu ziran erabakiak edo ziranak ziralakoak ere argitara emanak daude.

Artarako izendatu zan batzordeak tau edo bost illabetez ekin zion lanari, eta batzordearen lan ori Arantzazun iru egunez irakurri, azaldu eta aldeka edo aurka aztertu besteri ez zan egin.

Ondorena ba-dakigu. Erabaki edo erdi-erabaki edo erabaki-aurrerapen batzuk artu ziran; bat, H-ari buruzkoa, badaezpadakoa, eta bide-erdikoa. Ango giro gorian badirudi ezin izan zala geiago egin.

Euskaltzaindiak, bere batzordearen bidez, artuak zeuzkan aurretik bide batzuk, arau batzuk, eta auetatik ez zuen, noski, alde egin nai izan. Ona zer irakurtzen degun, urte artan bertan, 1968-garrenean, epaillean artutako erabaki batean: "Beti izango da kontuan batasunerako normak estuegiak ez izatea; bein baiño geiagotan bi edo hiru ere emango dira, denboraren jardunean zuzenketak egiteko; eta, baita ere denboraren buruan premiak bearturik, puhturen batzuk aldatu bearra gertatuko balitz ere".

Arantzarurako gertatu ziran gaietan puntu asko jotzen zan: ortografia, itzen formak, morfologia, aditza eta abar. Guztietatik H-ari buruzko erabakia besterik ez zan artu, erdizkako erabakia bera, ez batasunerako egokiena. (Ongi ikusiko du... ez du gaizki ikusiko... aurrerago jo nai dutenak...). Beste gai batzuei buruz puntu batzuk oinarritzat artuko zirala, zein puntu izango ziran argirik eman gabe. Aditzaren batasuna beste aldi baterako utzi zan.

Gaiñera, guztia zan bein-beiñeko erabakia, "geroago ta astiroago argitarako ziran erabakien aurrerapena", besterik ez, "gaiak geroago obeki lantzeko asmoz". Eta agiriaren buruan, asiera-asieran, aitopen auxe: "Batasuna, noski, ez da Euskaltzaindiak egin dezaken gauza; eta are gutxiago bat-batean egin dezakeana".

Gero sortu dan giroaren berri, gutxi gora beera, edozeiñek jakin dezake. Batasunetik iñozko urrutien jarri ez ote geran nago. Iñoin baiño euskera berri geiago azaltzen zaigu. Eta dana, euskera batuaren izenean. Bakoitzak dauka bere euskera ejsera batutzat, edo talde bakoitzak alakotzat dauka berak nai duena. Sari-ketarik baldin bada, lanak euskera batuan edo Arantzazuko arauen araberan egiñak izan bear dutela aginduko dizute. Or korpon noren euskera batuan egiñak izan bear duten ez badakizu. Ala edo olako aldizkari batek, leengo euskalkien batean idazten jarraitu arren, norbaitzuen atsegiñezko legeren batzuk bete ezkerro, euskera batua darabilela esango dizute. Bestela dabiltzanak euskeraren etsai dira eta birao guztiak etorriko zaizkie gaiñera. Danerako ematen du bidea Arantzazuko Batzarrak. Beste batzuk, berriz, an egin zanari gutxi iritzirik, Euskaltzaindiaren azpitik edo gaiñetik, berek sortu nai dute euskera batu ori eta guztiei ezarri. Euskera batua ez ote da euskeraren izan gaizto gertatu? Ez da giro atsegiñik, ez. Leen baiño banatuago gelditzeko arriskuan ez ote gauden esan genezake.

Giro ito eta lorrin ontan, beldurturik edo, Euskaltzaindia ixilik dago eta, guk dakigula beintzat, ez du aginduko lanik aurrera eraman. Orrela, orainarteko ekiñaldiei ez zaie azken onik ikusten.

Euskera biziarentzat (ala esan du oraintsu atzerriko izkuntzalari batek) arriskurik andienetakoa izango litzake euskera batu baten alde zoro-moro jokatzea edo burrutatzea. Leenago, oker bat ikusten zuten askok euskera batua dalako ortan, alegia, beste dialekto bat sortzeko arriskua. Orain daramagun bidetik, bat ez, dialekto mordoa sortzeko arriskuan ez ote gaude? Batu bearrean, zatituago eta puskatuago ez ote degu egingo euskera errukaria? Eta azken batean, euskera batu orren aitzakiaz edo aren aldeko jokatzeko usteen, inguruko erderen alde ez ote degu jokutzen, eta ez euskalki ez euskera batu gabe gelditu?

Zoromrokeriak utzita, arkituko al degu bide oberik, zentzuzkoagokorik. Astiroegi, patxara geiegiz dabilela egozten diote norbaitzuk Euskaltzaindiari. Ez dute ongi ikusten astiro jokatzeko ori. Baiña gogoan izan ditzagun artarako izan litezken arrazoiak ere.

Entzun eta ulertu dezagun, esaterako, Mitxelenak Arantzazun bertan esana: "Ezin bestekoa, hil edo bizikoa dela uste degu euskera batasun-bidean jartzea". Ez dio gaur bertan euskerak bat egin bearra duenik. Batasun baten bidean jarri bearra daukala dio. Ori egin bear ornen du Euskaltzaindiak. Eta ortarako, aipa ditzagun berriz Mitxelena jaunaren itzak, "gidari eta biderakusle agertu nai luke gauden egoeran, egin ditekeanaren neurrian".

Orra beste zentzuzko gizon baten eta izkuntzalari jakintsu baten itzak. "Gauden egoeran" zer da guk egin dezakeguna? Ori ez degu aurkituko, ez zoromoro jokatuaz, batasun bat goitik bera nola nai aginduaz. Gure izkuntza gaixo samar degu; ez dezagun zakarregi erabilli; ez dezaiozun geiegizko sarraskirik egin, il ez dakigun.

Batasuna ez da ameslari batzuk uste duten aiñako erraztasunez egiten. Neke-rik eta eperik bearke da ortarako. Oztopa-arri bat baiño geiago kendu bearke da bidetik. Mitxelenak Arantzazun esana da urrengo au ere: "Ez da nor Euskaltzain-

dia, oraingoz behintzat, oiñarriztat zein euskalki hautatuko den erabakitzeko. Badira, hala ere, bestek beste, (eta Bilbao euskaldun ez dalarik), euskera idatzia-
ren beharretarako egokiagoak dirala erdi-aldeko dialektoak bazterretakoak bai-
ño". Baiña orain, batek baiño geiagok bazterretakoetara jo nai dute, eta euskalki
zaar eta illetara gaiñera.

Are geiago zion Mitxelenak: "Zenbaitetan, ez dago oraingoz deus egiterik,
horretarako behar genituzken istudioak ez bait ditu iñork egin. Beste zenbaitetan,
berriz, euskalkien arteko batasuna egitea gaitz bada ere, batasuna behar gendu-
ke euskalki bakoitzaren barrenean behinik behin, eta ori gure esku dago".

Izan ere, euskalki-barruko batasuna egiteko gai ez bagera, nola egin nai degu
euskera osoaren batasunik?

Olako arrazoi eta besteren batzuk gogoan izanik edo dabil, nonbait, Euskal-
tzaindia ain astiro, ain kontuz, pausu ariñegi eta lasterregirik emateko beldurrez.

Oraingo askoren egon eziñak, dana arrapatata egin bearrak ere bere arra-
zoiak ditu, bear bada, benetakoak naiz itxurazkoak. Aspalditik entzuna degu bi
bide bazirala batasunerako, bata eboluzioz, gerorik gerora egitekoa, eta bestea
erreboluzioz egitekoa, bat-batekoa. Azkenengo au naigo lukete batzuek orain.
Baiña Ermuako batzarrean norbaitek esan zuenez, erreboluzio batean aurreneko
lana leengo jauregiak erretzea izaten ornen da, gero ederragoak egiteko. Guk
oraingo euskeraren jauregia erretzen badegu, ez dezagun uste gero berriz biurtu
eta eraikiko degunik.

Orregatik zion Ermuan bertan beste gazte batek: "gai ontan zazpi begiekin ibi-
ll bear degula".

Ez dezagun amez zororik egin. Euskera bat egiña bagenu, ura zoriona gurea!
Bai, noski. Euskaldun guztion elkar adituko genuke; euskal-liburuek irakurle
geiago izango lukete, merkeago atera eta salduko litezke. Ura zoriona! Baiña
oraindik amesatakoa. Urrutikoa oraindik. Ames ori egi biurtu bearrez, zorion ori
urbildu bearrez, ez dezagun urrunago bialdu. Lafitte jaunak Ermuan esan zuen
bezela, ez dakigu batasuna egin ustez, ez ote degun euskera naastuko eta ilgo,
eta euskalki bat geiago asmatuz, irakurlerik gutxiago ez ote dugun aurkituko.

Jaun au (Lafitte) beldur zan, erriaren euskeratik urrunduz, euskera batu orrek
iraupenik izango ez ote duen; euskera ikastea ez ote diogun erriari neketsuago
biurtuko. Ori gure izkuntzaren eriotzea izango litzake. Gurearen eriotzea eta
erderari indar ematea.

Or dago gure zorigaitza. Beste izkuntza batzueri batasunaren auzia sortu zi-
tzaienean, ez zitzaien gertatu etxeko izkuntzaren kalte garbitan: etxeko izkuntza
bera sendoago, aberatsago eta gelagorentzat idekiago egiten zitzaien. Guri etxe-
koaren ilgarri eta kanpokoaren indargarri gerta lekikegu. Kanpoko izkuntzaren
bizigarri eta etxekoaren ilgarri gertatzen zaio euskereari banatasuna, egia; baiña
berdin gerta lekiote batasuna ere.

Ongi ikusi zuen Azkue zanak gure zorigaitza au. Eta bizi bizi adierazi zuen
bein, Hazparneko errikoetxean, eman zuen itzaldian. Frantzian irakurria zuen ipui
onekin: "Frantzian nintzalarik bein, ez dakit zein paperetan irakurri nuen, gezurra
esan bearrean canard (atea) esatea nondik datorren. Zelai idor elkor batean aate-
taldea ornen zegoen gosez, krak batak eta krok besteak, zer jan etzutela. Egazti
aietako batek urdail ustua betetzeko grauskada bat eman zion urren zuenari eta
ezur ta mami iretsi zuen. Aiek ala ikusita, beste guztiek elkar jaten asi ziran.
Lumaz iñaurria (estalia) gelditu zan laster zelaia; egaztirik bi baizik ez, gizen
gizen biak. Aiek ere mokokaldi gogorra eginta gero, batak bestea barrenean sar-
tuz, taldeko lagun guzuen aragiak urdail batean kokatu ziran". Eta Azkuek, bere
aldetik: "Nik irakurri nuen paperak etzuen aipatu aatetalde aren inguruan otso ta
azeri goseak amorraturik (amikaturik) zelatan ote zegoen. Izan balitz, etzan aate-
rikan bat ere bizirik geldituko; egazti-mordo osoa, puskatua ta iretsia, urren zan
oianera joango zan, otso-azerien sabelera. Talde ura bezelakoa gure euskalki-tal-

dea degu, eta al! beronen inguruan otsoa eta azeria bizi dira. Indian eta Grezian, eta Italian eta Españian eta Ingiaterran eta Frantzian eta Alemanian eta izkelgitalde bizi dan erri guztietan bezela, gure artean ere, alkar irestea bear bada, bildur naiz, sarrakioa erraietaraño sartua daukat, alkar jan eta bat gelditu baiño lenago, ez ote dituzten otsoak eta azeriak, Frantziako eta Espaiñiako izkerak, gure euskalkitxo guzi auek iretsiko".

Ori esan zuen Gipuzkera osotuaren alde ain gogo beroz eta zintzo ekin zuen gizon ark. Orregatik, noski, egoera ain negargarrian ikusten zuelako euskera, orregatik nai zuen euskalki sendo eta erdi-aldeko bat euskera batuaren oiñarritako. Orrexegatik, Bizkaiko semea izan arren, eta Bizkaiko euskera ain maite zuelarik ere, itzaldi aren bukarean onela zion: "Entzun au ongi, euskaldun maiteak. Bizkaitarrak, guztiak ez, noski, baiñan askok, gure euskalkia utzi ta beste bat, erdi-inguruko bat, euskaldun guztientzat ulerterrazago bat, aitzen aisago bat, autatuko genuke. Edozein euskaldunek zati bat baiño osoa maiteago izan bear du. Au gora bera, guztiok "nik nerea, nik nerea, nik nerea "ka astekoak bagera, otsoak eta azeriak guztiok ezereztu orduko, sendoen bizi dan euskalkia ar beza- te etorkizuneko euskaldun orok berentzat".

Gipuzkoako euskeraren alde zion ori. Sendo ikusten zuen au, eta, orregatik, kanpoko izkuntzen zintzur iresleei iges egiteko egokiena. Baiña Azkueren itzak gaurko egunetako ere balio ez ote dute? Gure arrixkurik andienetakoa, "nik nereaka" ibiltze ori ez degu oraindik uxatu. Eta ez, ain zuzen, bakoitzak bere euskalkiari nagusitza opa diolako. Beren euskera batua asmatzen eta zoromoro indarrez ezartzen saiatzen diranak ere, pekatu berean eta astunagoan erori dai- tezke.

Euskerak, bere gaixoan eta egoera bildurgarrian, kontu andiagoko jokabidea eskatzen digu. Bizirik irauten lagundu nai diotenak, egiteko ontan sartua danak, seta gogorrik eta arrokeriarik gabe jokatu bear du, apalik eta konturik andienaz. Ez norgeiagoka, ez eta nor jakintsuagoka. Ain gutxi, nor gazteagoka edo zarragoka.

iritzi oker batzuk buruetatik kendu bearra daukagula uste det nik. Ez dezagun uste euskera euskerago edo jatorrago egingo degunik, batua egiñaz. Ez gizarte- legeetan oiñarrituago ere; gauza ageria da. Euskera batu ori, berriz, indarrez eta edozein modutan sartu nai izan ezkeru, gerta daiteke euskera biziaren ilgarri. Eta erderaren bizigarri. Ikastoletan ikasi dutena bera ere, neguteko landara biurtu daiteke umeen buruetan, inguruko girorik gabez, illik geldituko dana. Etxeko euskeratik aldenduegia baldin bada ikastolakoa, etxekoa aaztu eta baztertzea eta ikastolan ezer gutxi ikastea edo bizirik irautekorik ez ikastea gerta daitekena da. Ontan saiorik ederrenak eta asmorik onenak zoroenak gerta daitezke. Lafitte jaunak Ermuan esan zuenez, asmorik onenak, xederik onenak ez dute bide okerrik zuzentzen. Bidasoaz andik datorkigun oar au emengoek ere on artzekoa dalakoan nago. Gezurra dirudi baiña, euskera batua dalako ori andikoen aldera etor- kor izateko asmoz, aiekikoa egiteko eran eramana dirudian arren, andiko aidean dauka oiartzunik gutxien, angoen artan aurkitzen du jarraitzaillierik gutxien. Angoentzat egiña ez dala dirudi. Zergatik ote da? Ez ote da angoek beti euske- ra-gaietan emengoek baiño zentzu ohea erakutsi dutelako?

Orregatik ongi etorri bedi Euskaltzaindiaren epetasun eta astiro jokatzea. Euskeraren biziarentzat osasungarriago izango da ori batzuen itsumustuen ari bearra baiño. Euskaltzaindiak ez dio bere egitekoari ongi eta zuzen erantzungo, berea bear luken gidaritza galduaz, iñongo indarkeriri, iñoren oldar eta bultzadari, zinka eta biraoka jardun bearrari amor emateagatik, jaramon egiteagatik. "Denboraren buruan, premiak bearturik, zerbait aldatu bearra gertatuko balitz ere"... Urrezko arau au edo oar-arazpen au ez du Euskaltzaindiak aaztu bearuko. Itsua izango li- tzake atzera egin bearra, eta are itsusiago bein oker emandako pausu bat

zuzentzeko atzera egin naieza, urrats txar eta oker batean gogortu eta setatzea. Euskeraren eta euskaldunen kaltetan izango litzake orrelako jokabidea.


Bukatu dezadan onen bestekin nere itzaldi au, luzearen luzez zuen aspergarri egin ez nadin. Bide luze samarra eragin dizuedana, gizaldiz gizaldi, mendez mendez, gure klasiko zaarretan asi eta gure egunotararte. Idazle zaar aietan pakegiroan azaleratu zan auzia, idazle bakoitzak al zuen bezala erabakitzen saiatu zana, gaur burrukabide gori eta gorri biurtu zaigu. Ez dedilla Azkue eta Menéndez Pidal'en beldurra, gure erruz edo obenez, egi biurtu. Ez al da gure euskera inguruko otso-azerien zintzurretan ilgo. Orain artean beintzat bizirik iraun duen izkuntza, euskera batua dala ta ez dala, ez al degu ilzorian ipiñiko. Lagundu dezaiozun, badaezpadako norgeiagokeririk gabe lan egiñez, osorik eta bizirik irauten.

Lino Akesolo

UDABERRIKOA

Udaberria izen pozgarria, loreilla ere tartean degula. Poza beraz orrelako zoriar, txoriak ere kantari ditugula, izadiari begira jartzen gaitu, garai edo urtearo zoragarri onek. Beraz, izadia ederra dala ikusteko udaberrian, begiak iriki eta begiratu besterik ez-daukagu, eta leiatu ederragua egiten, euskera bezelaxe: Guk lantzen degun neurrian edo laguntzen, izadia ere ederragoa izango da. Era berean euskera ere, zaitu, eta alegindu errikoiagua egiten, erri ta errialde bakoitzak dituen oitura eta euskera ere zaituaz, nai bada Euskalerra ere aurrera atera, Euskera, baserria, sendia, gure erlijioa, baita ere,... eta, gure asabaengandik ikasi genduen aobeagotu (ori bai), eta berbada baditugu ainbat trebetasun, benturaz geiegikeria dala eta, izadia eta gizadiaren kaltegarri gertatzen zaizkigunak eta orrela izadizaintza ere, bearrezko da. Garrantzizko egitekoa benetan: Gizonak asmatutako zenbat trebetasun eta aurrerapean baditugu, baña ez ote gera konaturatzen gizona bera ere norbaitek egin eta izadiaren esparruan agertzen gerala? Noski baietz! eta ez orí bakarrik: Egilleak berak deitzen gaitu eliza katolikuaren bitartez, zorion bete orretara eta, askatasuna degu onartu ala ez. Beraz, gizakiok badegu itxaropen eta poz'ik guri begira: EUSKERAZAINTA ETA EUSKALDUNON EGITEKOAN, gure kristau azia bataioan artu genduenok, ia jabetzen geran, gure egitekoa aundia dala; Euskalerra eta gizadia ere, zorientzuago izan dedin, euskaldunon naia orrela dan ezkerro. Gure euskera zaitu eta Euskalerra aobeagotu eta euskaldunok eredu izaten alegintzea benetan pozgarria litzake: UDABERRIKOA...?

Benigno Madina



AETZEN USKARAS

NOR NORK INDIKATIBO

IDUKI

nik yi	yaukat	
nik gura	daukat	xaukatat, -nat
nik zu	zauzkit	
nik zek	zauzkitet	
nik gaek	dauzkit	xauxkitat, -nat
yik ni	naukak, -n	
yik gura	gaukak, -n	
yik gu	gauzkik, -n	
yik gaek	dauzkik, -n	
garek ni	nauka	ñaukak, -n
garek gi	yauka	
garek gura	dauka	xaukak, -n
garek gu	gauzki	gauzkik, -n
garek zu	zauzki	
garek zek	zauzkite	
garek gaek	dauzki	xauxkik, -n
guk yi	yaukagu	
guk gura	daukagu	xaukatagu, -nagu
guk zu	zauzkigu	
guk zek	zauzkitegu	
guk gaek	dauzkigu	xauxkitagu, -nagu
zuk ni	naukazu	
zuk gura	daukazu	
zuk gu	gauzkizu	
zuk gaek	dauzkizu	
zek ni	naukazie	
zek gura	daukazie	
zek gu	gauzkizie	
zek gaek	dauzkizie	

gaek ni	naukate	ñaukatek, -n
gaek yi	yaukate	
gaek gura	daukate	xaukatek, -n
gaek gu	gauzkite	gauzkitek, -n
gaek zek	zauzkite	
gaek zek	zauzkitee	
gaek gaek	dauzkite	xauzkitek, -n

NOR NORK INDI KATI BO

EDUN

nik yi
nik gura
 nik zu
 nik zek
 nik gaek

yut
dut
 zitut
 zituztet
 tut

Orela

diat, dinat

tiat, tinat

yik ni
yik gura
 yik gu
 yik gaek

nuk, nun
duk, dun
 gituk, gitun
 tuk, tun

garek ni
 garek yi
garek gura
 garek gu
garek zu
 garek zek
garek gaek

nu
 yu
du
 gitu
 zitu
 zituzte
 tu

nik, nin

dik, din
 gitik, gitin

tik, tin

guk yi
guk gura
 guk zu
 guk zek
 guk gaek

yugu
dugu
 zitugu
 zituztegu
 tugu

diogu, dinagu

tiagu, tnagu

zuk ni
zuk gura
 zuk gu
 zuk gaek

nuzu
duzu
 gituzu
 tuzu

zek ni
 zek gura
 zek gu
 zek gaek

nuzie
 duzie
 gituzie
 tuzie

gaek ni
 gaek yi
gaek gura
 gaek gu
 gaek zu
 gaek zek
 gaek gaek

nute
 yute
dute
 gituzte
 zituzte
 zituztete
 tuzte

nie, nine

die, dine
 gitie, gitine

tie, tine

NOR NORK INDIKATIBO

EDUN

Iragana

nik yi	yinduda	
nik gura	nue	nia, nina
nik zu	zinduzta	
nik zek	zinduztate	
nik gaek	nitue	nitia, nitina
yik ni	ninduta, ninduna	
yik gura	yue	
yik gu	ginduzta, ginduzana	
yik gaek	yitue	
garek ni	nindue	nindita, nindina
garek yi	yindue	
garek gura	zue	zia, zina
garek gu	ginduze	gindita, gindina
garek zu	zinduze	
garek zek	zinduzte	
garek gaek	zitue	zitia, zitina
guk yi	yindugu	
guk gura	gindue	gindia, gindina
guk zu	zindugu	
guk zek	zinduztegu	
guk gaek	ginduze	gindizata, gindizana
zuk ni	ninduzu	
zuk gura	zindue	
zuk gu	ginduzu	
zuk gaek	zinduze	
zek ni	ninduzie	
zek gura	zindute	
zek gu	ginduzie	
zek gaek	zinduzte	
gaek ni	nindute	ninditeta, ninditena
gaek yi	yindute	
gaek gura	zute	zitea, zitena
gaek gu	ginduzte	gindizteta, gindiztena
gaek zu	zinduzte	
gaek zek	zinduzte	
gaek gaek	zituzte	zitiztea, zitiztena

NOR NORI NORK TRINKOA

ERMAN

nik gari dramakot
yik gari dramakok, -n
garek gari dramako
guk gari dramakogu
zuk gari dramakozu
zek gari dramakozie
gaek gari dramakote

nik zuri dramakizut
garek zuri dramakizu
guk zuri dramakizugu
gaek zuri dramakizute

nik zei dramakiziet
garek zei dramakizie
guk zei dramakiziegu
gaek zei dramakiziete

nik gaei dramakiet
yik gaei dramakiek, -n
garek gaei dramakie
guk gaei dramakiegu
zuk gaei dramakiezu
zek gaei dramakiezie
gaek gaei dramakiete

yik niri dramakidak, -n
garek niri dramakida
zuk fin dramakidazu
zek niri dramakidazie
gaek niri dramakidate

yik guri . dramakiguk
garek guri dramakigu
zuk guri dramakiguzu
zek guri dramakiguzie
gaek guri dramakigute

nik yiri dramakitat, -nat
garek yiri dramakita, -na
guk yiri dramakitagu -nagu
gaek yiri dramakitate

EKARRI

dakarrakot
dakarrakok, -n
dakarrako
dakarrakogu
dakarrakozu
dakarrakozie
dakarrakote

dakarrakizut
dakarrakizu
dakarrakizugu
dakarrakizute

dakarrakiziet
dakarrakizie
dakarrakiziegu
dakarrakiziete

dakarrakiet
dakarrakiek, -n
dakarrakie
dakarrakiegu
dakarrakiezu
dakarrakiezie
dakarrakiete

dakarrakidak, -n
dakarrakida
dakarrakidazu
dakarrakidazie
dakarrakidate

dakarrakiguk
dakarrakigu
dakarrakiguzu
dakarrakiguzie
dakarrakigute

dakarrakitat, -nat
dakarrakita, -na
dakarrakitagu, -nagu
dakarrakitate

NOR NORI NORK INDIKATIBO

Orela

nik gura yiri dautat, daunat
nik gura gari dakot xakotat, xakonat
nik gura zuri dauzut

nik gura ze nik gura gaei	dauziet daiet	xaietat, xaienat
yik gura niri yik gura gari yik gura guri yik gura gaei	dadak, dadan dakok, dakon dauguk, daugun daiek, daien	
garek gura niri garek gura yiri garek gura gari garek gura guri garek gura zuri garek gura ze garek gura gaei	dada dauk, daun dako daugu dauzu dauzie daie	xadak, xadan xakok, xakon xauguk, xaugun xaiet, xaien
guk gura yiri guk gura gari guk gura zuri guk gura ze guk gura gaei	dautagu, daunagu dakogu dauzugu dauziegu daiegu	xakotagu, -nagu xaietagu, -nagu
zuk gura niri zuk gura gari zuk gura guri zuk gura gaei	dadazu dakozu dauguzu daiezu	
zek gura niri zek gura gari zek gura guri zek gura gaei	dadazie dakozie dauguzie daiezie	
gaek gura niri gaek gura yiri gaek gura gari gaek gura guri gaek gura zuri gaek gura ze gaek gura gaei	dadate dautek, daune dakote daugute dauzute dauziete daiete	xadatek, -ne xakotek, -ne xaugutek, -ne xaietek, -ne

Baita: dauzut, dauzie, daugu eta abar.

NOR NORI NORK INDIKATIBO

Oreia

nik gaek yiri nik gaek gari nik gaek zuri nik gaek ze nik gaek gaei	dauzkitat, -nat dazkiot dauzkizut dauzkiziet daiztet	xaxkiota, -na xaxkieta, -na
---	--	--------------------------------

yik gaek niri	dazkidak, -n	
yik gaek gari	dazkiok, -n	
yik gaek guri	dauzkiguk, -n	
yik gaek gaei	daiztek, -n	
garek gaek niri	dazkida	xaxkidak, -n
garek gaek yiri	dauzkik, -n	
garek gaek gari	dazkio	xaxkiok, -n
garek gaek guri	dauzkigu	xauxkiguk, -n
garek gaek zuri	dauzkizu	
garek gaek zei	dauzkizie	
garek gaek gaei	daizte	xaxkieta, -na
guk gaek yiri	dauzkitagu, -nagu	
guk gaek gari	dazkiogu	xaxkotagu, -nagu
guk gaek zuri	dauzkizugu	
guk gaek zei	dauzkiziegu	
guk gaek gaei	daiztegu	xaixkieta, -na
zuk gaek niri	dazkidazu	
zuk gaek gari	dazkiozu	
zuk gaek guri	dazkiguzu	
zuk gaek gaei	daiztezu	
zek gaek niri	dazkidazie	
zek gaek gari	dazkiozie	
zek gaek guri	dauzkiguzie	
zek gaek gaei	daiztezie	
gaek gaek niri	dazkidate	xaxkidate, -ne
gaek gaek yiri	dauzkitek, -ne	
gaek gaek gari	dazkiote	xaxkotek, -ne
gaek gaek guri	dauzkigute	xaxkigute, -ne
gaek gaek zuri	dauzkizute	
gaek gaek zei	dauzkiziete	
gaek gaek zei	dauzkiziete	
gaek gaek gaei	daiztete	xaixkiete, -ne

NOR NORI NORK INDIKATIBO

Iragana

nik gura yiri	nauta, nauna	
nik gura gari	nako	ñakota, -na
nik gura zuri	nauzu	
nik gura zei	nauzie	
nik gura gaei	naie	ñaieta, -na
yik gura niri	yade	
yik gura gari	yako	
yik gura guri	yagu	
yik gura gaei	yaie	

garek gura niri	zade	xadata, -na
garek gura yiri	zauta, zauna	
garek gura gan	zako	xakota, -na
garek gura guri	zagu	xaguta, -na
garek gura zuri	zauzu	
garek gura zei	zauzie	
garek gura gaei	zae	xaieta, -na
guk gura yiri	gindauta, -na	
guk gura gari	gindako	gindakota, -na
guk gura zuri	gindauzu	
guk gura zei	gindauzie	
guk gura gaei	gindaie	gindaieta, -na
zuk gura niri	zindade	
zuk gura gari	zindako	
zuk gura guri	zindagu	
zuk gura gaei	zindaie	
zek gura niri	zindadate	
zek gura gari	zindakote	
zek gura guri	zindagute	
zek gura gaei	zindaiete	
gaek gura niri	zadate	xadateta, -na
gaek gura yiri	zauteta, -na	
gaek gura gari	zakote	xakoteta, -na
gaek gura guri	zagute	xaguteta, -na
gaek gura zuri	zauzute	
gaek gura zei	zauziete	
gaek gura gaei	zaiete	xaieteta, -na

NOR NORI NORK INDIKATIBO

Iragana

nik gaek yiri	nauzkita, -na	
nik gaek gari	nazkio	ñazkiota, -na
nik gaek zuri	nauzkizu	
nik gaek zei	nauzkizie	
nik gaek gaei	naizte	ñaizukieta, -na
yik gaek niri	yazkida	
yik gaek gari	yazkio	
yik gaek guri	yazkigu	
yik gaek gaei	yaizte	
garek gaek niri	zazkide	xaxkidata, -na
garek gaek yiri	zauzkita, -na	
garek gaek gari	zazkio	xaxkiota, -na
garek gaek guri	zazkigu	xaxkiguta, -na
garek gaek zuri	zauzkizu	
garek gaek zei	zauzkizie	
garek gaek gaei	zaizte	xaxkieta, -na

guk gaek yiri	gindauzkita, -na	
guk gaek gari	gindazkio	gindaxkiota, -na
guk gaek zuri	gindauzkizu	
guk gaek ze	gindauzkizie	
guk gaek gaei	gindaizte	gindaixkieta, -na
zuk gaek niri	zindazkide	
zuk gaek gari	zindazkio	
zuk gaek guri	zindazkigu	
zuk gaek gaei	zindaizte	
zek gaek niri	zindazkidate	
zek gaek gari	zindazkiote	
zek gaek guri	zindazkigute	
zek gaek gaei	zindaiztete	
gaek gaek niri	zazkidate	xaxkidate, -ne
gaek gaek yiri	zauzkieta, -na	
gaek gaek gari	zazkiote	xaxkioteta, -na
gaek gaek guri	zazkigute	xaxkiguteta, -na
gaek gaek zuri	zauzkizute	
gaek gaek ze	zauzkiziete	
gaek gaek gaei	zazkiete	xaxkieteta, -na

NOR BALDINTZAZKOAK

IZAN

Baidintza

ni	banintz(e)	banindua, -na
yi	bayintz(e)	
gura	balitz, baze	bazuta, bazuna
gu	bagine	bagindua, -na
zu	bazine	
zek	bazinete	
gaek	balira, bazire	balitua, balituna

Ondorioa

ni	nintzateke	nindukek, -ken
yi	yintzateke	
gura	litzateke	lukek, -ken
gu	gintzatezke	gindukek, -ken
zu	zintzateke	
zek	zintzatezke	
gaek	liratezke	lituzkek, -ken

(Jarraitzeko)
Josu Cabodevilla



ERDERAKADAK ETA AKATSAK

1.— "Miterrand'ek arrera EMAN DIE" (ETB, XI-19) = ARRERA EGIN, esaten du Euskalerrri euskaldunak.

2.— "ARAZO FAMILIARRAK dituztenak... GIRO FAMILIARREAN biltzea du elburu..." (ETB, XI-19) Oraindik ere FAMILI-GIROAN esatea, or nonbait!

3.— "PREBISIOAK auxe erakusten digu...". (ETB, XI-19).

4.— "Argi GERATU BEAR DA"... (ETB, XII-27) Gutxienez ere... BEAR DU.

5.— "Ori SUERTATZEN DENEAN, egingo dute billera". (ETB, XII-27).

6.— "INKONPATIBILITATEAREN KOMISIOA... INKONPATIBILITATEAREN LEGEA". (ETB, XII-27) Orrelakoak esateko, ez dago euskaldun izan bearrik.

7.— "APENDIZITIS gaixotasuna sendaturik, IRU EGUNETAN ETXEAN DA". Eta... beste egunetan zer egin bear du, edo non egon bear du? "Iru EGUN BARRU... IRU EGUN BAIÑO GEIAGORIK GABE..."

8.— "JUANARI GURE ANAI..." Gaztelerazko esaldi onen itzulpena da: "a Juan nuestro hermano..." "Joan gure anaiari" izan bear luke. (Naparroa'ko AÑORBE errian orma-arri batean idatzirik dago).

9.— "ESANGO ZAIT, ez arrazoirik gabe, gerrak sartu duela ezinegona". (Andu Lertxundi, DM) Onela bear: esango DIDATE... zerbait.

10.— "Diruak herri-ekintzetarako DESTINATZEA PROPOSATU zien herritarrei... (Rufino Iraola) D.V. Euskeraz obeto badaki, baiña..."

11.— ... "eta bestetik, euskalkiren baten ezagupenak sakondu nahi izan DUE-NARI aukerak eskaintzea". (Eusko Jaurlaritzza, Euskararen "SUSTAPENERAKO Zuzendaritzza. Zabalkunderako eskutitza, 91-1-14) Ezagupenak baldin ba'dira, DITUENARI izan bear du.

12.— Bestetik, SUSTATU ta SUSTAPENA baiño itz egokiagorik erabiltzen ez ba'dute, "sustoz" izutuko ta "sustatuko" dituzte euskaldunak. Eusko Jaurlaritzza'ko euskera-arduradunek euskera ohea ez ba'darabilkite...

13.— "Aren egiaGANAKO maitasunez zabaldu egin duzu zure Eliza". (Orduen "Liturgia" liburuan, Epaillaren 23'ko oititza) Nik dakidanez, egia ez da burua ta anak dituan norbait, beraz... egiaREKIKO bear du.

14.— "Zuzen itzazu gaur gure urratsak zure gogoaren bideTIK". (Orduen "Liturgia" liburuan, 1'go Larunbateko eskariak) Euskalerrri osorako ta bereziki Bizkai-Gipuzkoa aldeetarako, ulergarriago litzake or aditza bere osoan jarrita: zuzendu itzazu, gramatikakeriak alde batera utzirik.

Askoz okerrago dago oraindik, "bideTIK zuzentzea". Zer esan nai du? Izan ere; NONDIK zaindu? BideTIK zuzendu ditzala. Beraz, auxe esan nai du orrela idatzita: "Zure gogoaren bideTIK (begira zaudelarik?), (eta bestela, zure bideTIK kan-

pora?) zuzendu itzazu gure urratsak". Eta ori esan nai ez dutenez, onela bear zukean: "Zuzendu itzazu zure gogoaren bideAN".

15.— "Akuilu lanari esker lortu du beka, nahiz Crouch-ek ez duen gehiegi sinesten Kemp-en dohain intelektualketan". (Anjel Lertxundi, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa) "Dohain intelektualetan" euskeraz ere esan dezakegu, eta bestetik, nere ustez, "zerbait sinisten dugu, zerbait sinisten diogu norbaiti". Geienera ere, "norbaitengan sinistu" esango genuke.

16.— "Bera baino aurrekoek sortutakoa jasotzen dakiena, baina sormenik erakutsiko ez duen adolezentea". (Anjel Lertxundi, ZABALIK orrietan, 1991'ko-04-3'koa) "Bera baino aurrekoek" ez da euskera. Izatekotan ere "BERE AURRE-KOEK sortutakoa" eta bestela "BERA BAIÑO leenagokoek sortutakoa" izango litzake egokien. Lertxundi'k badaki euskeraz obeki idazten, agerpen bi auek ez bai-dira zuzeneko euskera jatorraren eredu.

17.— "Hainbat bertso diferente egin da, harrezkeroztik, antzerki-lan honena, eta pelikulak ere bat baino gehiago dira". (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-04-3'an) Bai biurri dagoala esaldi ori, eta gazteleraz pentsatuta idatzia, nere ustez.

18.— "Existitu zuen, bai. 1619'n jaio zen Bergerac-eko Cyrano, Parisen, eta bertan hil 1655an". (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa) Ibargutxi'k ere badaki obeki. Euskeraz ari galararik, ain bearrezkoa ote da EXISTITU ZUEN ori erabiltzea?

19.— "Aurtengo neguarenak egin ditu". (Andoni Aizpuru, ZABALIK orrietan, 1991'ko-04-3'koa) "Neguarenak egin DU" entzun izan dut beti. Arritu egin nau, eta ez gutxi, "egin DITU" idatzirik ikusteak.

20.— "Fondoko eskitik alpinora dagoen aldea... Trabesiako eskia beste bien konbinaketa besterik ez denez, alpinoaren eta fondokoaren arteko desberdintasunak aztertuko ditugu lehenik". (Andoni Aizpuru, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa) Ez al legoke euskal-kutsu geiago ematerik? Bai noski.

21.— "Datorren igandean, 12,30etan, Azpeitiko zezen-plazan egingo den korrika-saioan omenaldi egingo zaie aspaldiko bi korrikalariri". (Felix Ibargutxi, ZABALIK 1991'ko-04-3'koa) "EGINGO DEN eta EGINGO ZAIE" bata bestearen ondoren ain egoki ez gertatzeaz gainera, egin, ZERBAIT EGITEN DUGU. Orregatik, egokiago leudeke esaldi oiek beste era ontara: IZANGO DEN korrika-saioan" edo "EGINGO DUTEN", eta "omenaldia EGINGO DIETE".

22.— "Gure bezeroei jakin erazten diegu EZEN gure SISTEMA INFORMATIKOEN behin-behineko bateratzea ta kutxa sukursalen sare bakarraren eraketa direla eta (200 sukursal gera) moldatze eta egokitzapen-lan bereziak jartzen ari garela" (KUTXA, G.K.). Gaztelerazko, "les advertimos QUE..." ori euskeraz esateko, EZEN erabiltzea, erderakada makurra da. Osorik artuta, zein euskaldunek ulertuko du, gazteleraz ongi ez ba'daki? Bestetik, "direla eta" ori orrela ez da ez ulergarri ta ez euskera. Onela askoz garbiago da: "direla-eta" gutxienez eta are ulergarriago "dirala-ta" idaztea.

Azkenik, gutxienez ere "INFORMATIKA-SISTEMEN eraketa" idatzi ezkerro, baluke euskal-joskerarik edo kutsurik. Bestela ez.

23.— "...gustatuko litzauguke baldintza berrietan zu harpidedun GISA berriz ere gure artean izatea". (JAKIN aldizkarian arpidetzeko deia) Ez nuke "ARPIDE-DUN GISA" sartu nai arpidunen artean: beste edonor bezala baizik, bete-betean arpidedun izanez.

24.— "Atzerriko AKTUALITATE KULTURALAREN INPORTATZAILEA" izango ornen da JAKIN aldizkari BERRIA. (JAKIN, arpidetza-orritik artua) JAKIN'ek dakarren euskera GISA ortako ba'da, geiago zait INPORTA.

Gaztañaga'tar Jesus'ek

"NEURE IDAZLAN BILDUMA"

1986 urtean, Jose Mari Etxaburu "Kamiñazpi" k "Ondarrabiako Kondaira" argitaratu eban, azpaldi baten Donostia'ko Aurrezki Kutxaren leiaketa batera bialdua.

1989 urtean, "Zer" aldizkarian zatika agertutako "Neure lau urteko ibillerak"; "Auspoa" sailleko 199 garren zenbakiagaz.

Orain "Neure Idazlan Bilduma" deitureagaz ainbat euskal egunkari eta aldizkarietan idatzitako lanak.

Jose Mari etenbakoa izan da orrelako lanak idazten. Lantxoak neurriz, baiña lan sakon, burutsu eta aldian aldiko lez egin eta beti ikuspegi jator eta leial bate-tik begiratu ta ikusita.

Oraingo onetan "Kamiñazpi" esku zabal dator. Ez dau nai saldu ez eta kobratu bere libururik. Irakurtea nai dau. Origaitik irakurriko dabenei edo leikenei doan emoten dabil, 320 orrialdedun liburua.

"Euskerazaintza" k atsegiñez agertzen dau liburu onetako itzaurea bailan igarri ta ikusten dalako Etxaburu'ren pentsabide eta jokabide argi, garbi eta zeatza.


Ziurtzat euki nai eta bizkaieraz idatzita egon, beste euskalkietakoak be ez dabela sailtasunik aurkituko irakurri eta ulertzen.

Liburu bitxi, atsegin eta gure denboretako gorabera askoren jakingarriz betea benetan.

A.Z.

11. IIII

Neure Idazian Bilduma



ITZAURREA

Ez nator esku artean gauza andiren bat dakardalakoan. Iñok baiño obeto dakit idazti onen baliorik eza. Baiña neure bizi guztian izan dodan zaletasunik andiena (zaletasuna bakarra be esan neike) euskerea izanik, izkuntza onen literaturan neure idazti bat itxi nai neban eta besterik eziñean, urteak zear an eta emen idatzi dodazan idazlantxoetatik pillo bat aukeratuta, neure nai ori egi biurtzeko ainbat gai ba-daukadala ikusi dot eta emen daukazu irakurle.

Egia, beste liburutxo bat, TXOLINTXU be eginda nago; baiña ipuin liburutxo a ez da neure-neurea, andik eta emendik jasotakoak neuk jantzita baiño. Ta nik, neure-neurea nai neban.

Ogei urte baiño len asi nintzan euskeraz idazten, EKIN bizkaitarrera Ondarru'ko barriak bialduaz. Orduan ITURRI-ONDO nintzan. Gero, ogei urte ta geiagoko ixil aldia ondoren 1957'an ZERUKO ARGIA'n asi nintzanean, obeto zala ta, ITURRONDO'ra aldatu neban. Baiña beste batek be izenorde bardiña erabilten eta barriro aldatu bearra izan neban. Ta len iturri baten ondoan bizi nintzalako (San Juan Txurru iturria) ITURRI-ONDO artu neban lez gero Kamiñazpi auzoan bizi nintzanean, inguru aren izena neureganatu neban. Egia, tarteka iñoiz besteren bat edo beste erabili izan dot.

Ezetera sakontzen ez dakigunok danetan musturra sartu bear izaten dogu zerbait egin nai badogu. Nire idazlanak be olantxe dira, danetarikoak; baiña batzuk garrantziko gaiak ikutu egiten dautsela esaten ausartzen naz. Niretzat bai, beintzat. Bear bada, irakurle batzuentzat ez da olan izango, danok pentsakera bardiña ez daukagu ta.

Urte askoren aldea dauke idazlanak eta iñoiz neure eretxiak alkarren aurka egotea be izan leiteke. Esate baterako, len euskera bat egitearen aldekoa nintzan, danok euskera bardiña egitearen aldekoa, eta gero euskera batzeko oiñarriak jarten asi ziranean, orren ia aurka nengoan. Nik, gizajo onek, gure denporako gipuzkerea —edo, onartuko zala orretarako uste neban. Baiña gero erabillean izkera ta ortografia ezin nituan iruntsi. Ortik geienbat euskera batuarentzako nire etsakeria.

Dana dala, euskera batuak gure berbeta au indartu daijala nai dot eta ori lortzen badau nire txaloak irabaziko ditu. Baiña nik neuk, onezkero, olan jarraituko dot, bizkaitar naiz gipuzkotar, ikasi dodan euskerean, H barik eta Pello Errota ta Pedro Maria Otaño ta abar idatziaz eta ez Peilo Errota ta Pedro Maria Otaino ta antzekoak. Ez dot uste onetan oker nabillenenik.

Emengo idazlan batzuk, naikoa, gipuzkeraz argitaratu nituan, baiña liburu baten izkelgi bi ez erabiltearren bizkaieratu egin ditut.

"Ditut", "nituan" eta olangoak irakurrita, nire euskerea ez dala bizkaitar jator-jatorra norbaitek uste izan leike. Berba orreik eta euren saillekoak, olantxe edo ia olantxe esaten dira nire errian, Ondarru'n; eta Mogel'en idaztiak irakurten bado-guz, Bizkai'ko erri geiagotan be erabilten dirala esan leiteke.

Bear bada, aditzetik kanpora be bizkaitarrak ez diran berba batzuk irakurleak arkituko ditu bertan. Baiña edozelan be asko ez dira izango. Geienez be esku bietako atzaparrakaz zenbatzeko ainbat liburu guztian. Beraz liburu onetako euskerea bizkaitar-bizkaitarra dala iñok ez dau ukatuko.

Gramatika aldetik begiratuta beste auzi au be argitu nai neuke: Erderazko "tener" ta "estar" zelan euskeratzen diran.

"Tener" era bitara euskeratzen da: "euki" ta "izan" (ukan).

"Estar" be bitara euskeratzen da: "egon" eta "izan".

Lenengo "tener" azaldu daigun. Zerbait gaiikiari buruzkoa danean "euki" erabili bear ei da:

"Lau etxe daukadaz".

Ostera zerbait sentimentu azaltzeko "izan" (ukan) erabili bear ei da:

Biotzean min dut, min etsia,
negar ixilla darion miña.

(Lizardi)

Bai, jokabide au jatorra izango da baiña gu baiño asko lenagotik be zeatz eroaten ez zana. Idazle zarrak aitaturko gendukez baiña ezer baiño obea 1808'garren urteko bertso zar batzuen arteko au ipintea dala onena deritxat diñodana egiztatzeko:

Biotza "daukat" triste,
alegratu ezin det;
motibua zer "dedan"
deklaratu nai det.
Kautibaturik "nauka"
dama polit batek;
ni atormentatzen nau
krueldade onek.
Beraz ez "du" kulparik,
esango det zeñek.

Bertso onetan lau bidar ipinten da "tener"en esanaikoa, lauretan sentimentua azaltzeko; baiña beti ez darabil "izan" (ukan) erdietan baiño ta beste erdietan "euki".

Berdin jazoten da "estar"egaz be. Bat geldi dagoala esateko "egon" erabilten ei da ta sentimentu egoera azaltzeko "Izan".

a) "Gure umea geldik dago".

b) "Gure aita pozik da arrain asko ekarri dabe ta".

Baiña emen be "egon" "izan"en barrutian sartzen da geienetan; au da, beti dago bere tokian eta bestearenean be geienetan.

Ta geuk be, diñoezan legeak buruan izan arren, beste askori jarraituaz, "euki" ta "egon" erabilli doguz ia beti; bear danean uts barik ta bear ez danean be sarritan.

Beraz, nire jokabide au iñok ez daiala eredutzat artu.

Bertan darabildan izkereari buruz zerbait geitu bearrean naz.

JOAN aditza laburtutako igaroan, "niñoan", "ziñoazan", "joan" eta abar idatzi ditut gramatika baten olantxe ikusita. Baiña azkanengoa, "joan", infinitibuan be olantxe da ta askotan illun geratzen da. Orregaitik, "niñoian", "ziñoiazan", "joian" eta abar ipintea obe izango zan, olan, azkanengoa beintzat, argiago gelditzen da ta. Baiña egiña egiña dago.

Oarra:

Beste liburu bi be eginda nago. "Ondarrabia-ko Kondaira" ta "Lau urteko neu-re ibillerak".

Etxaburu'tar Jose Mari
("Kamiñazpi")

r i

EUSKERAZAINTZA ez dabil izen barri ta sigla batzuen billa. Baiña izen baten billa jo bear izan dau, eta erakunde bat antolatu, beste zenbait erakunderen aukeran, lana egingo ba du.

^.. r.)..n-^

(e) (e) (e) (e) (e) (e) (e) (e)

GEUREARI EGIN

Arazo bikaiña dozu lana, eguneroko lana. Egun baten edo bitan bai lanik bage; baiña laster, lan barik, ez dakizu zelan aldia emon: or zaarrak lanaren kez-kaz. Gizonarentzat lana beraz, Urtzik egin eta gizonari emondako zer guztiak lez, ona danik ezin daikezu ezetz esan.

Gu be Euskarazaintzako talde polit bat, illero, Deba'n alkartu oi gara azkenen-go zapatuan geure lanak osotzera. Zeintzuk lan? Alkarte au, Euskerea zaindu nai dauan euskaltzale mordo batek osotzen dauana dozu. Andrazko ta gizonezko, gazte eta adiñean a urreratu, gure izkuntzaren bizia ta ederra opa dabena egiña. Aparillaren 27'an be an gintzazan.

Erri Akademia dozu Euskerazaintza. 10-tik ordu bata eta erdiak arte lan lan, euskal lana: egindako lanak aztertu, aurreko batzarrean arturiko asmoak irauliz, ak eta onek buruturikoak irakurri, an eta emen, aldizkari, eguneroko ta kaleetan aurkitutako utsak eta euskera jatorraren kontrako barrbaskeriak aztertu, liburuetan naiz itzaldietan botatako okerrak aztertu (Euskerazaintza aldizkarian datoz onako asko); zer egin dan eta zer egin daikegun, itzaldi, omenaldi ta euskal egun eta abar... Leiketak, poesi, ipuin, irakurgaizkaok (oraintsu Elbire Andereñoari egiñiko Ipuin eta Olerki sariketa, VII'garrena, adibidez); igazko urte azkenerranta napar euskal idazle jator Markelin Garde'ri Kargaztelu'n ospatu genduan omenaldi sentikorra, eta laster Zornotza'n, Euskerazaintzako buru lez Aita Lino Akesolo'ri, olakoetan oitura danez, bazkune orretako buru aukeratua izaneko itzaldi irakurtea dalata egingo jakon goratzarrea, laster Euskera Eguna dala-ta Ondarruan Euskerazaintzak eratuko dauan, batzar, itzaldi, kanta, teatru ta abar. Ekiñaren frutua, ziur asko.

Euskaldunaren oitura, lanaren jarrai, gorputz nekatuari berea emotea. Guk bere, Anes'en etxean bazkari gozo ugariz geure barrenak ondo asetu ondoren, bakotxak bere egoitzerako bidea artu genduan.

Nire lagun txoper Paul Atutxa'k eta nik, "Gorri", Zubikarai ta oraintsu etorten asitako gazte ondarrutar bat aurretik genduzala, Markiña'rako bidea artu genduan. Ondarrua'n egotaldi laburra (emen leporatu eustan aldizkari onen zuzendarriak, Augustin Zubikarai'k, lan au idazteko zama (eta Markiña'n giñan bereala neure arreba Maria ta loba Maritxu'ri agur egiten.

Emen giegi luzatu barik, Amoroto'rantza giñoiazan. An bada, aurreko egunean, gaur Erroma'n, karmeldar Ordenako Nagusiaren kontseillari lez, an aurkitzen dan Aita Felix Malax-Etxebarria'ren koñatea il eta gaur arratsaldeko seiretan ospatzen ziran aren omenezko illetak, eta ara joan bearra neban nik be.

Ori zala-ta seiretako bete-bete egin zan erriko eleiz apaiña erritar fedetsuz. Bertako apaiz jaunak emon eban meza, bertako seme Anakabe'k eta nik lagundurik. Erri-meza gogoz abestua, itzaldia atsegiña, Jaunartze ugaria, gorpuari azken agur beroa... Abade, meza-mutiko ta erritar ugarik lagundua izan zan gorpua, or beian Santa Barbara azpian, dotore agiri dan erriko iltegeraiño.

Gaur gure artean, etxe ta inguru, erriak oso dotoretuz doaz, Jaurilaritza, Diputazioño ta errietako Aiuntamenduak esker, eta Amoroto orretan ezta azkenengoa; lendik be alegindu ziran bertoko agintariak, eta oraingoan oraingoak geiago arduratzen dirala esanaz ez dautsagu, nik uste, iñori kalterik egiten. Eleizea txukun, Udaletxea ondo, eskolak ondo be ondo, frontoi barria ikusgarri, plaza zabal, garbi ta zabal; bideak apain, lengo etxeak zuri ta ikusgarri, barriak be asko ta eder: Amoroto'k bizi nai dau, zapatu ta igandetan batez be, kanpotar jente asko bertaratzen jatzu. Ni gazte nintzala entzute aundikoa etzan arren, gaur ospe zabalaren jaube da. Udan, andik eta emendik joandako ume-mordoak egurastu oi dira bertan. Euzkadi'n nun-nai dira toki ederrak, eta bat, ez izan ezpairik, axe dozu.

Neure erri maiteari agur gozoa esanik, Larra'ra bidean giro ederpean. Oleta bide gurutzea —Amoroto'ko auzotegia— edonok ezagutzen dau gaur-egunean. Iru bide alkartzen dira bertan, Markina, Lekeitio ta Aulesti'rakoak; iru jatetxe izen nasaiko ditugu bertan, askok zapalduak. Maiatzpazkoz bertako jaiak, leen eta orain.

Gu Gizaburuaga'rako bidean jartean, or bide ertzean, eskumatik, gizon gazte bat kiñuka, joateko gura laguntza nai dau. Ertzeratu ta geugaz artu dogu, ta iru gara orain. Lenengotan, gaiztoen bat ete dalako, zirrara? Ba dira gaur olakoak, baiña ez uste dan beste. Geienetan arpegian ezagutzen. Bertatik asi gara itzez aintxiñatik ezagunak bagiña lez.

— Zuek orduan Euskerazaintzakoak zarie? —dirausta.

— Bai, eta aintxiñatik; amabi bat urte edo geiago diranetik. Zeuk be gura taldekoa izan nai ete? Azken urteotan polito jatorkuz gazteak be. Moda barriaz asperturik edo, euskeraganako griñak eragiñik edo, ba dakusguz gure artean arpegi. Euskaldun zintzoa dirudi, maltzurkeri bakoa.

— Ni baserritarra nauzue, baiña euskera asko irakurten dot, aulestiarrok be ez gara ain atzeratuak eta. Kanpoan lan pizkat egiñik, baserriko lanari pozik dara-gioit. Errekaldian daukat neure baserria; ezkondua naz, seme-alaba bi ditut; Ilande ta asteburuetan astia izaten dot zerbait euskeraz irakurteko, seme-alabei erakutsiz, neu ta emaztea be eskolatzeke.

— Ba al dozu "Euskeratzaleak" gure aldizkariaren barririk?

— Igazko udazkenera arte ez. Baiña, urte-erdi bat dala, Oleta'ko Epermendi tabernan aurkitu neban zenbaki bat, etxera eroan ta urrengo domekan, emazteak eta biok irakurri genduan ia dana Atsegin izan jakuzan bertan datozan gauzak. Irakurtaldi bakotxa amaikeran au esaten gendun biok: "Au euskera ederra! Geure joskera gozo polita. Gai atsegiñak euskera bizian!

— Bai, zenbaki guztietan datoz gai interesgarriak, ederto azalduta. Eta zer deritxazu gure lanari buruz?

— Ze esango dautzuet? Eder-ederra dala. Munduko izkuntzetan ederrenetaikoa da gure euskera, ertz-askotatik begituta. Gaur gal-zorian daukagu. Ez bei itzali geure zabarkeri ta erruz. Iñoiz baiño etsai geiago ditu azken urteotan: prentsa, irrati eta telebista, or doguz garrasi utsean, berau iruntsi nairik.

— Baita, ba-dogu, nire ustez, beste arerio bat be, euskal idazleak gaur darabilen zatiketa, "batuak" sortu dauana diñot, bizkaitarrontzat benetan kaltegarri. Batuzaleak ez dabe nai eurena ezik, bizkaieraz ezertxo bere ez, ez egunkaritan, ez irratan...

— Egia diñozu.

— Nik ikastolara bialtzen ditut neure umetxoak, eta ikastolan "batua"; ETXEAN GEUREA; ETXEAN EZ DOGU alkar ulertzen. Zelako nastea! Familiak, ez erriak ez dabe aintzat artzen euskera barri ori. Eskolan ez ei dabe onartzen "Batuan" idatzitako liburuak izan ezik.


— Olantxe dozu; gu geure liburuak saltzeko, saltzen dira, baiña estu ibiltzen gara. Batuzaleak, ekin bizian ibilli oi dira, gurerik saldu ez dedin. Orretan dagien lana, benetako euskera landu ta zabaltzen egingo balaba, beste txori bat genduke kantari. Geuk geure itsukeriz, eta zatarkeriz, ondatu ta galdu bear dogu geure izkuntza maitea.

Orrek nakar ni kezkatzen. Orrek odoltzen daust, neuri lez euskalerrri jator guztiari, barru osoa. Gu bai itsuak!

Antzeko izketa mingotsez eldu gara Murelaga-ra. Iru ez-ezagunok emen agur-tu dogu samin-anpulus, aurrera giñoazenok, ixillik, luzaro ausnartuz esanak.

Oiz-azpitik zear, Urretxu, Zugaztieta, Autzagene, Zornotza... Zortzi ta erdietan lekaide lagunakaz nengoan, barriketari.

Aita Onaindia



ORDUEN LITURGIA, ARGI NAIKO BATZUK

164 ayekan:

Iriak ez du, ez eguzki, ez illargi-bearrik, argitan egoteko; Jaungoikoaren aintzak argitzen du, eta Bildotsa du bere argi-ontzi.

Argitan egoteko' iriak ezdu ez eguzkiaren eta ez illargiaren bearrik: Jainkoaren aintzak argitzen du, eta bere argigarri Bildotsa du.

1022 zoriontsu izango zera eta ongi zaizu joango (= te irá bien)

zoriontsu izango zera, eta ongi ibilliko zera.

1021 Etxea Jaunak ez bada eraikia / etxegilleak alperrik ari dira. / Jaunak zaintzen ez badu iria / iri-zaia alperrik ari da.

Etxea Jaunak eraikia ezpada / ... / Iria Jaunak zaintzen ezpada / ...

Alperrik zaizu argitu gabe jaikitzea Argia baiño leen jaikitzea alperrik zaizu

Jaunak ematen baitdie ogia / bere maiteeri lo daudela

Jaunak bere maiteeri ogia lotan daudelarik ematen baitie.

Ain zuzen, Jainkoaren doai dira semeak / sari dira sabel-semeak /

Gudari-eskuan gezia bezala / gazte-aroko semeak ala.

Izan ere' aurrak Jainkoaren doayak dira / sabel-aurrak Jainkoaren sari; gazte-aroko aurrak / gudari-eskuan geziak bezela.

Doatsu gezi-ontzia aiekin bete dezakeena / ez daiteke lotsa etsaiekin atean auzitan ari dala / Jaunak eraiki bezaigu etxea, eta zaindu gure iria.

Gezi-ontzia bere aurrez bete dezakeana doatsu da / atean etsayekiñ auzitan ari danean eztaiteke lotsatu. / Etxea Jaunak eraiki bezaigu, eta gure iria zaindu.

191 a Bedeinka ezazue, erriak, gure Jainkoa / Zabaldu Aren gorespenak oiuka.

Erriak, gure Jainkoa bedeinka ezazue / eta Aren gorespenak oyuz zabaldu.

1320 Nere serbitzari egiten dena, goratuko du nere Aitak.

Nere Aitak nere serbitzari egiten dana goratu egingo du.

950 a ez da Nigana utsik itzuliko; baizik egingo du Nik nai nuena, eta beteko

Nik agindutakoa.

Nigana ezta utsik itzuliko: Nik nai nuana eta Nik agindutakoa egingo ditu.

- 985 a Jainkoak, Berak egin eta bere Semeren odolaz ber-erositako guztien ardua aundia dauka.
Jainkoak Berak egindako eta bere Semearen odolaz berrerositako guztien ardua aundia du.
- 898 a Atzerri ugari jo ditu, errege bizkorrak il ditu.
Atzerri asko yo zitun, ta errege altsuak il. (Olabide).
Erri asko zauritu ebazan eriotzaz, errege aaltzuak il ebazan (Kerexeta).
Harek jo izan ditu asko jenda jendaya, eta hil errege indar handitakoak (Duvoisin).
Atzerri asko jo ditu, eta errege aaltzuak ill.
II frappa des nations nembreuses, et fit mourir des rois puissants (Crampon)
Hirió a naciones en gran número, dió muerte a reyes poderosos. (Biblia de Jerusalén).
- 960 a Oiuka ari naiz biotz guztiaz, beteko ditut zuk ezarriak.
biotz osoz oyuka ari naiz, zuk aginduak egingo ditut.
- 900 a Atzerriak etorriko dira, Jauna, eta zure aurrean auspeztuko.
Jauna, atzerriak etorri eta zure aurrean auspeztuko dira.
- 579 a Gaiztakeria mintzo zaio gaiztoari biotzean, / okerkeria du aoan ausnartzen
Gaiztoari biotzean giztotasuna mintzo zayo, oean okerkeria ausnartzen du
- 286 a Gure nebeak artu zituan Arek / eta gure miñak eraman (¿nora?)
Arek gure nekeak artu zituan, eta gure miñak jasan.
- 286 a Gure pekatuak bere bizkarrean abe-gaiñera zituen eraman.
Gure pekatuak bere bizkarrean artu eta abe-gaiñera eraman zituan.
- 321 a naramazu bide zelaitik (¿nora?) = *bide ordekat eraman nazazu.*
- 864 a Indarkeria = odolkeria = gaiztakeria -KERI atzizkia adierazten danari dagokion eta egiten duanari eztagokion *egite bat* adierazteko erabiltzen da; TASUN atzizkiak berriz izate edo izakera bat adierazten du. Ontasun = ona izatea; gaiztotasun = gaizto izatea; gaiztakeri bat egin du = gazito bati dagokin zerbait egin du; umekeri bat egin = ume batek egingo luken zerbait egin. Orregaitik' kerri atzizkiaren aurretik izenondo bat (gaiztoa da, ume utsa da, okerra da, biurria da, berritxu bat da) jarri bear da. Baiña "gizon ori oso indarra da", edo "oso odola da" eziñ esan ditezke; orregatik' indarkeri, odolkeri eta orrelakoak' zentzugabekeriak dira. Indarkeri orde'z' gogorkeri esan liteke, odolkeri orde'z' ankerkeri (¿odoltzalekeri?)
- 235 a Ager gaitzen Jaungoikoaren gogoko eramanpen aundiz, barauean eta zuzentasun-egarriz. Eramanpen = capacidad de transporte da; *barauean: ¿zergatik ez sukaldean edo goiko kalean? barauz edo barau egiñez obe.*
- 1013 a Begi-aurrean ipintzen dut beti Jauna (¿nere eskuarentzat orren eroso aldago?) eskuñean daukadala, ez naiteke dardara. *Jauna beti gogoan dut; eskuñean (?) baldin badet' enaiz ikaratuko.*
- 710 Zintzotasun-ezaguarri ditut eskuok garbitzen / Jauna, zure aldarea dut inguratzen, gorespenak oiuka otsegiñaz, / zure mirari guztiak zabalduaz.
Eskuok zintzotasun-ezaguarri garbitzen ditut / Jauna, zure aldarea inguratzen dut, gorespenak oyuka ots egiñez, zure mirari guztiak zabalduz.
(Gogoratu: italianoaz (prantzesaz, alemanez) mintzatu da; italianoaz (prantzesaz, alemanez) mintzatu da. Ha hablado en italiano, ha hablado del italiano).
- 414 a Gurutzeko oiñazeak eraman ondoren (obe: jasan ondoren) (Gg.: eraman = eman erazi eroan = joan erazi; erakutsi = ikus erazi; erakatsi = ikas

- erazi; erasan = jasan erazi Aya'n entzuna: karga onek arako abeari erasan egiten dio).
- 416 a ez ustelkeriazko eta gaiztakeriazko legamiarekin = *ustelkerizko eta gaiztakerizko (gaiztakeria bat egin du gaztelanizko porquería gogoratuz sortutako jakitunki bat besterik ezta; euskeraz gaiztakeri bat, gaiztakeri asko esaten degu).*
- 1022 a Doatsu Jaunaren beldur dena: ederki (*bildur dana obe*) (bi aldiz); Jaunari beldur diona (beñ) = el que teme a Dios: erdalkeri utsa. Liburuan geyenetan "Jaunari beldur diona" agertzen da = "el que te teme a Dios. E.b.: 565 a, eta Aren errukia gizaldiz gizaldi beldur diotenengana.
- 419 a Neke aundiak eraman ondoren; *jasan ondoren*.
- 907 a irakatsiko dizuet beldur izaten Jaunari (=tener miedo a Dios).
- 906 a Onar, Jauna, maitasunez zure morroia. Altube'k zionez' *ediñ eta ezan* aditzen *aurretik* bakarrik kentzen dira aditzen bukaerak: *etor dediñ, ekar dezan; onarr ezazu, Jauna... edo onartu, Jauna... bearko luke beraz... Orren ezarriak irakas neri; emen ere beste bi okerr: voy a Hernani = Ernanira noa; a la medida de tu bondad = zure ondasunaren neurrira: erderakada borobilla. zure ondasunaren neurrian obe. Irakas neri: irakas ezaidazu, edo irakatsi neri.*
- 421 a Eta agindu zigun, erriari erakus genezaiola eta aitortu, Bera dala Jaungoikoak bizien eta illen epaille ipiñi duena = *Eta Jainkoak bizien eta illen epaille egin duana Bera dala erriari erakustea eta aitortzea agindu zigun.*
- 423 a onginai utsez salbatuak zaudete (¿noiz a rre?) *salbatuak zerate* (vous êtes sauvés, estáis salvados: vous êtes assis, estáis sentados = eseririk zaudete).
- 933 a Zuzen itzazu, Jauna, nere urratsak zure esanaren neurrira (a la medida de).
- 1007 emaiouzu leialtasuna nere biotzari, zure izenaren beldur izan dedin (ederki).
- 943 Nere Aitaren naia egiten duena sartuko da zeruetako erreinuan. (¿Nor sartuko da zeruetako erreinuan? Zeruetao erreinuan ¿nor sartuko da?) *Zeruetao erreinuan nere aitaren naia egiten duana sartuko da.*
- 945 a Jainkoak egiten du nai duen oro: galdera bi eratara egin diteke, ta bakoitzarik erantzun bat dagokio: Jainkoak ¿zer egiten du? *Jainkoak nai duan oro egiten du; Nai duan oro ¿nork egiten du? Nai duan oro Jainkoak egiten du.*

A. Zatarain

**EUSKERAZAINTZA, Euskeraren Erri-Akademia dan ezkeru, erri-euskera-
ren serbitzu ta laguntza zuzenean jardungo da. Erri-Euskeratik joko dau ta
erriarekin ibiliko da gaurko bizi-unerako bear dauan Euskera osotuz.**

**EUSKERAZAINTZA'k bizitik biziagora ibili nai dau, Euskera bizitik Euske-
ra biziago ta indartsuagora.**



ESALDI ETA ESAERA BATZUK

Aingira kumak lakoxea.

(Mutil ziriñakaitik esaten da).

Antxoa txikia ta abadea, alkarri bedeinkaka.

Antxoa gosia guraria da, ez gosia.

Atun sasoiari pekoetak be atun tatoak.

Arraiña dagon tokian, okelak usaiñik ez.

Arraiñak mus, txalak mu.

Arraiñaren arbiak txis usaiñik ez.

Baporak katian (txalopak lotuta), zirri-zarria oean.

Bokarta deitzen dautse Kateitik aruzkoak antxobiari.

(Kategi, Gipuzkoan sarrerako mikelete etxeari deitzen joko).

Belakin asarratutako aixia. (Aize zakarra).

Bla-bla-bla aizetan belak.

Bat alarguna, (Alargun bat) bakarreko bi aiña.

Damu dot Jauna Eleiza eta kalia...

Dan dan kanpaiak. Jakin ia nor dan.

(II kanpaiak entzutean agureak larritu egiten el dira berealakoan).

Dauoneko zetan etxera, lapikuak ikustera?

(Askotan andrak ez dabe nai izaten jateko ordurarte sukaldean iñor ikusi).

Dedu andiko gizona da a.

(Errespetu andikoa).

Deduz egin gauzak areri.

(Arduraz ibilteko arentzako gauza egiten).

Deitu barik ez da zerura be.

Diamotxu ori, joan zaite ortik!

Diamotxu a zetan dabil beti nasteak sortzen?

(Diamotxu, demoniño edo antzerako berba ordeaz erabilten da).

Domuru santuru manturu, gaurgo eguna tururu.

Dramio. (Bat zerbaitetan arrapatzea).

Arek daukaz dindilizkakuak?

"Dindirri" baiño txikixaua. .

(Batel txikiko baten izena).

Dirua baiño gauza zikiñagorik ez.

Diruzale amorratua, baiña alperrik gixajua.

(Gaisorik egon eta diruagaz baliatu ezin danagaitik esaten da).

Doi-doian dabil Peru, beti atoian.
(Beti iñoren kontura dabillen bat).
Drasta Drasta ataraten eban dirua.
(Dirua erakusten arro diranekaitik).
Dungulu ta guzti esnea artu.
Durundia. Belarriko durundixe salduko dautsut.
Dzauan dzauan ibilten zan.
(Arro arro, zabal zabal ibilten zan bategaitik).
Dakarrena etxe-alde, daroana etxe kalte.
(Batek zerbait ekarriaren, geiago eroaten dabenean).
Emon tollanak eta ixildu bein!
(Tolla arrantzatu ondoren geldi erazteko, jo bear izaten zalako).
Emoizu matalazurreko bat.
(Matalazurreko = matrail-azurreko).
Emon ez da a!
(Pertsona zekenagaitik esaten da).
Emonak gatzik ez.
Emona galdua sarri.
Errixetan esandakuak, beroak ekarri eta otzak eruan.
Errekaixeak brix.
Errekaixiak brix, Markiñan eurixe.
Emia ta arra, urria ta zidarra.
Eskama asko ta barriketa gitxi.
Etixerik etxe eskian, arima-pielak aidian.
(Len oiturazko eben emakume batzuk etxerik-etxe euren illen alde
meza dirutan ibiltea, gabetan illen arimak lo egiten ez eutsela izten-eta).
Enplastata lagako zaitut!
Esan asko ta emon gitxi.
(Agindua bat eta emona bi...).
Erlaizeak uretan, aizea or dabil olgetan.
Garagarrak egiten astua, laster da busti lastua.
(Astua bean etzanda dabillenetan esaten da).
Grak eta blast.
(Umetako joko bat).
Gurmak daukadaz.
(Bat berean ez dagoenean).
Gizonak prakak galdu, andriak gonak aizetu.
(Gizonak bere gizontasuna galtzen dauanean, andreak nal dauana egi-
ten dauala).
Gabeak kalia eta goizian lo, laster dau txalupak ondua jo.
Gona ta praka zarrak etxian, lapurrik ez zelatian.
Gona barrenak aidian, errekaizia kalia.
Gohapeko alua, egarri askotako zulua.
Gaur da San Juan; biar Juan zan.
Gizona mutu ta andrea ixil, irugarrena nun dabil?
Gose danak arrain fiña baiño lodia naiago.
Goserik ez dau kentzen antxoa txikiak, zabaldu baiño.
Ipar-kaleko errekaizia, galerrenaren aitzia.
Ilda gero itto.

Jan da jateko, ilda gero be gosezto.
Juan da jua eta ez ekian nora jua.
Kirkilla, arra kantaria, emia ixilla.
Kukurruku ollarrak, ollandak parrandan.
Korain barik txibitan Pedro gaixua, San Pedrori lez kardamuak jan
dautso burua.

Mankala jasota be Tomasa beti sepulturan.

(Mankala jasotea illaren urtea igaro ondoren egiten da eleizetan, eta denporak igarota be beti illaren arrenkura eta oroitzetan dabillanagaitik esaten da).

Txilin txilin jote, iñunzenteren bat azkenak emoten.

(Txilin-txilin jotea, umeen illetetan jote daben kanpaia izaten da.

Zaunka bako txakurra, galdu zan etxean bildurra.

A. Zubikarai

MARKIÑA-XEMEIN I

Maiatzaren 8'an, Markiña'ko Udal Liburutegian, liburu berri bat aurkeztu zun gure lankide Zubikarai tar Augustin'ek.

Bere esanetan, liburu au aurrerago argitaratutako "Ondarroa Baserri giroan", "Berriatua", "Ipazter", "Mendaja", "Amoroto eta Gizaburuaga", "Etxebarria", "Ea, Natxitua, Bedarona" eta "Aulesti"ren sailekoa eta euren jarraikoa da.

"Markina-Xemein I" au, erri oneri eskeinutako lenengoa da, tomo bitan agertuko dalako bertako monografia. Lenengo onetan Ziortza, Bolibar, Iturreta eta Barinaga auzoen kondaira eta jakingarriak datoz. Bigarreanean erriburua eta beste auzoak.

Liburu onek 352 orrialde ditu eta argazki ugariz ornidua da, Juan Fernandez Egiguren izanik orretarako lagun.

AUGUSTIN ZUBIKARAI
JUAN PREZ. EGIGUREN




M
A
R
K

N
A

X
E
M
E

N
I



NERE IKUSPEGITIK

BREITAIN AUNDIKO BESTE IZKUNTZAK

Agian zera usteko duzu, irakurle; "ingelera munduan nagusi dalarik, bere jaioterrian Breitainia Aundian, mintzaera ori bakarria izango da noski".

Izan ere, ez da ala. Gaeliera, keltar (celtas) izkuntzen azken arrastoak, an bizi baitira; Gales'en, galesera naiko indartsu bizi da; Aginte ta ikastetxeetan ere sartu da, ta orain ez dirudi eriotz-bidetik dabillenenik. Eskozia'n, batez ere Orkidea ta Hebridas ugarteetan, eskoziar gaeliera dugu, ori bai, galesera baiño aulago arkitzen duzute gaur egun, 80.000 iztun besterik ez dituala. Irlanda'n irlandera mintzatzen dute. Izkuntza onek badu arazo latza; Inglatera'tik azkatu ta Erkal edo Errepublika osatu zutenetik, latizkuntza edo izkuntza ofiziala bihurtu dute, ingelezarekin batera noski. Mailla guztietan eskatzen dute, ertzain izateko dala, eskola-agiria eskuratzeko dala. Ala ere bizi pattal eta makala du, ez da asko mintzatzen (eskualde jakin eta zeatz batzutan ez ba'da), eta eskolan ikasitako mailla oso mugatua da.

Ipar Irlanda'n, berez, irlandera aspalditxo zegoan galduta, baiña beren nortasuna ta iaera berreskuratu naian, batzuk gogotik saiatzen dira beren izkuntza zaarra ikasten. Bitartean, Ipar Irlanda'n, badira makiña istillu ta konponezin...!

Emendik, izkuntza auek gal ez litezen opa genuke (aien modura, guk ere geren-gerena badugu), ala gertatu ezkeru, Lurbira osoko aberastasun ikaragarria galduko litzake-ta.

INDITARREN BERRI

Oraingoan, Kanada aldean bizi dan gizatalde bitxi baten berri eman nai nizuteke. Inuitarrak deitu oi zaiote, ta "inuk" izkuntza mintzatu daroe.

Gizaki auek, jela ta izotz ingurugiroan bizi dituzu, ta eiza dute batipat euren biziera. Talde bakoitzak "shaman" edo buruzagi bere-berea ba'du bere menpekoen egitekoak azalduko dituan gizona.

Nolako konponbideak ematen dizkiete beren artean sortutako gatazkeri? Sendi edo famili bakoitzak, bestearen emakumezko batetaz jabatzen dira; orrela, gatazka ondu artean atxilo izango ditue.

Eta zer egingo lioteke iltzailleari? Ez luteke ilko; ildakoaren sendiak erabaki bear luke gaizkiñarekin zer egin, il-ezik; ezarri lezaioteken zigorrik garratzena erabateko baztertzea (ostracismo) da, taldearen alkarlana ukatuz.

Ez dira ez Kanada'tar guztiak europear antzekoak, dakustezutenez. Ori duzute beren Zuzenbide (Derecho) berezia, baiña beren tarietako, noski; gatazka Kanada'tar batekin sortu ezkeru, konponbidea Kanada'ko legeen arabera billatuko luteke.

IPUIAK

Ipua, bati baiño geiagori, txorakeria idurituko zaio. "Asmatutako zerbait ez danez, zer aberasgarri ekar lezake, egia aurkezten ez ba'du? Umeei kontu oiek edestu bearrean, ez al litzake ohea jakintza-gaiak azaltzea"?

Egia da bai, umea azitzen doan neurrian, pixkanaka-pixkanaka jakintza-gaiez ere oroitzen joango zaigula; baiña, ume orrek burua bakarrik ez, biotza ta sentimenak ere baditu; bai asmamena ere; umea alaia izan dedin, ipuiak eta pasadi-
zoak kontatu bear dizkogu, bere asmamena bere neurrian erabil dezan, gaiñez ein gabe, noski. Emen ere, geiegikeriekin arreta aundiz ibilli bear degu.

Ipuiak ere jakintza-gaiak ditugu, jakituriko altxor ugariak. Oietako asko, sentza edo belaunaldirik-belaunaldi zabalduak ere badira ta onek gure ezaera ta senari obeto eltzen lagun egin dezaiguke. Ipuiak esateko oitura nonbait zaarzaarra dugu, abenda ta erri guztietan zabaldua, geixeago ala gutxixeago dala. Gaiñera, iñoiz, erri bateko ta besteko ipuiak berdintsuak ezan litezke, biak alkar-tzen dituzten ezaugarriak azaltzen diralarik.

Ipui-esakuntza, aberatsa ba'da ere, gero-ta galtzenago nabaritzen dugu. Baiña ez ditugu gure aurrak ain atsegin zaizkien ipui oiek entzun gabe utzi bear.

ZUUR-IZTIA

Izen au damaioгу oldozjakintzari filosofiari, alegia.

Batzuek diotenez, jakintza onek ez du ezer balio, ez ornen du ezer eraikitzen, eta ez gaitu aurrerapide berrietara bultzatzen. Ori egia ote da? Ziñez ezetz.

Bearbada, zuur-iztiak ez du zuzenean zubi, etxe, erririk eraiki, baiña, gizakiak bere bizitzako uste, itxaropen, elburuak aztertu eta neurtu ez ba'litu... Nola asi zitekean gizakia ezer berririk eraikitzen, ezer ez ba'zekian, abere uts-utsa baldin ba'zan?

Gizon-emakumeek aurrera egin dezaten, beren ingurugiroa aztertu, ta lan oiek emaitzak egikaritzen asiko dira orduan. Gaur ditugun aurrerapenak, igitresna-egil-
leei (ingeniero) bakarrik ez beste batzuei ere zor dizkiegu aiexek aztertu bai-
zuten lurbiraren egoera gizakien bearrak erosotasun aundiagoak nola iritxi
zezaketen gizadi osoak zeranakien joera edo norakoa.

Gaur bertan ere, zuur-iztiaren bearra sumatzen dugu nunbait. Gizadia dabillen norabidea ontzat artu edo, aldiz, gaitzetsi egin bear duan jendea bear dugu; guk gerok ere gure gogapenak egin ditzakegu, ta beste batzuen argibideak, gai berari buruz sortzen dituzten gogoetak kontutan artu-bearrekoak ditugu.

Gizadiak gaur artu duan norabidea, askotxok buru-ezereztutzearena (autodes-
trucción) dala diraustate; nik ez dut uste nai-ta-ez orrelakoa izan bear duanik,
baiña aurrerantzean kontu geiagoz aritu bearco dugu lurbirari eman nai dizkio-
gun azpegi ta itxura, okerrak ezan ez ditezen.

EUSKARA TA EUSKERAREN ARTEKO TARTEAK

Azken finean-AZKEN BATEAN (ORDUAN BERAZ. DANA-DALA).

Soziologia-GIZARTE-IZTIA.

Antropologia-GIZA IZTIA. GIZAKI-IZTIA.

Humanismo-GIZABIDEA.

Botanika-LAN DAR E-IZTIA.

Biologia-BIZI-IZTIA.

Teologia-JAINKO-IZTIA.

Biologia-BIZI-IZTIA.

Sistematizatu-E RABATE RATU.

Xiringilla-TXERTAKI, TXERTAKIN.

Azenario-ZAIÑORI.
Borraska-AIZE-ERAUNTSIA.
Zikloi-AIZEBELTZ (ZURRUNBILLO-torbellino).
Propietate, propietate-JABEGO, Etxaguntza-JABETZA.
Posesio-EDUKITZEA. EDUKIGO.
Espresio-ADIERAZPIDE. ADIERAZPEN/ITXURA.
Expropiar-JABEGETU. JABEKATU, JABEGABETU. JAUBEBAKOTU.
Gertatzen dena da oso zaila dela-GERTATZEN DANA OSO ZAILLA DALA DA.
OSO ZAILLA DA.
Asanblada-BATZARRA. BILTZARRA.
Greba-LAN-UZTEA.
Ekosistema-IZADIERA.
Erlijioso-UZKURZTI, ERLIJIO-ZALE, JAINKO-ZALE, JAUNGOIKOIA, ERLIJIO-LAGUNDIKO.
Heredatu-JARAUNTSI, oiñordetu.
Obligatu-BEARTU.
Boilo (ARGIAN agertua)-OPIL.
Ez da errealitateari ajustatzen-EZ ZAI O EGIARI EGOKITZEN. EZ DU EGIAREN KIN BAT EGITEN.
Errubio-ILLEORI, orail-KIRRU.
Emango zaizue-EMANGO DIZUEGU. EMANGO DIZUTEE... (Leiotik begira). Ez zaie ikusten ez dira ikusten-EZ DITUT IKUSTEN.
Oillararen gandorra gorria da-OILLARRAREN GANDORRA GORRIA IZATEN DA.
Erremerteria-ERRENDERI.
Normalean-GEIENETAN.
Beti eta onak diren-ONAK IZAN EZKERO.
Promes-AGINTZARI.
Ez ba'da etortzen-ETORTZEN EZ BA'DA.
Amnistia-ATXILO-JAREITEA, ATXILOTU-JAREITEA.
Entzerrona-ITXIALDIA.
Polikiroldegi-KIROLDEGI, KIROLETA.
Moneta-TXANPON, DIRU-KOSKO.
Esigitu-ESKATU, ALDARRIKATU.
Martxo-EPAILLA.
Balore-BALIO.
Femur ("Euskaltzaindia" dalakoak onartua); Erriak ("Herri xeheak", batzuek dioten bezela, erri txee ta zapalduak) beti IZTAR-EZURRA esan oi du.
Estenoi-BULAR-EZURRA.
Subiranotasuna-BURUJABETZA.
Independenzia (independencia política tendrá que ser, porque la dependencia lingüística del idioma de Cervantes es clara)-AZKATASUNA.
Libertate-ASKATASUNA.
Akordio-ITUN, ITUNBEN, ITZARMEN.
Tankea-BURDIÑORGA, Orgatxapela.
Intsumisio-MENEGIN-EZA.

Etxaburua'tar Asier'ek



EUSKALDUNAK MUNDUAN. IÑIGO LOIOLA'KO

Deitura desberdiñak ditu bere izenak. Latíñez Enecus deitzen diote; gero, berriz, Ineco eta aizkenik Iñigo. Berak aldatuko zitun izen oiek Erromako erara eta Ignatius izenpetuko ditu bere idazlanak.

Garai artako oitura zan patronimiko bat artzea abizenaren aurretik. Orrela ba, berak ere ba zuan bat; Iñigo López de Loiola. Anai zarrenak, ordea, beste izen bat artzen du López'eren orde: Pérez de Loiola, Juan, beuroen aurreko batek izen ori zeramalako. Juan onen aurrekoak beste izen au zeraman: Ma rtín García de Oñaz.

Emen agertzendana auxe da: Oñaz eta Loiola biak dirala Iñigo'ren sustraiak. Beste al detik, berriz, abizenari edo apellidueri ez ziotela inportantzi aundirik ematen. Iñigo eta bere anai apaizak biak artu zuten etxearen izena: Labia, López aurretik zutela: Peru eta Iñigo López de Loiola.

Gurasoak eta gurasoen gurasoak, aundikiak izan arren, baserritarrak ziran berez eta etxea zeukaten lurrez inguratirik. Lur oietatik at ere bazituzten base-riak, bumi-olak eta Elizaren emaitzak. Orra Loiola etxearen emaitza aberatsak.

Loiola torrea zan, erri guztietan daudenen antzekoa, gerora moztu bazuten ere. Ladrilluz jasotako zatiak adierazten digu zer nolakoa zan botatakkoa.

Aide Nagusiak

Aundikiak bi taldeetan banatuta zeuden, alkarri gorroto ziotenak: Oñaz eta Ganboa. Burruka luzea eta negargarria izan zan euren artekoa Euskalerrri osoan eta andik kanpo ere bai.

Burruka oietan nor geiagoka zebiltzan: "e qual seria maior", Salazar idazleak dionez. Arrijasotzen eta aizkora jokoaren antzera, orduan gerra eta burruka jokoan, alkar iltzen eta alkarri lapurretan.

Burruka oiek dirala bide, moztu zituzten Aide Nagusien torreak.

Oñaz-torrea mendian eta Loiola-torrea ibarrean, oiek biak izan ziran Iñigo'ren jatorrizko bi sustraiak. Eta, Ioiolatarrak oñaztarren buru ibilli ziran beti. Gertakizun onek gero, Iñigo'ren bizitzan, zer-ikusi aundiak izango ditu bere jokabideak argi-tzeko; Iruña'ko gerratean batez ere.

Aide Nagusien aurka sortu ziran Erri-billak, etxeak alkarren inguruan bilduak (villa) eta ez ordurarte zeuden bezala mendietan sakabanatuta. Erri-billetan sortu ziran baita ere Hermandadeak edo Anaidiak aundikieri arpegi emateko. Anaidi auek sortu zituzten zenbait ermita baztarretan, gaurko parrokiengatik eginkizuna betetzen zutenak. Aide Nagusiek ere bazituzten eurenak. Amar aña zituzten loiolatarrak XIV'garren gizaldian; guztien artean San Sebastian de Soreazu zan aundiena, gerora Azpeitiko parroki bihurtuko zana; Anaidien babesean asieran eta geroago loiolatarren eskuetan eroria. Andik aurrera ez zan arazo orreri buruz eztabaidarik palta izango...

Egibar'ko baserria

Iñigo-ren ama-titi Maria de Garin, Egibar baserriko etxeoandrea, izan zan eta bien arteko artu-emanak ez ziran sekulan galdu. Errementari baten emaztea zan eta berak eman zion titia Iñigo'ri.

Iñigo il da gero, bere bizitza idaztean, bi urteko aldea zegoen batzuen eta beste-teen iritxietan, zaarrago ala gazteago. Alkartu eziñik, idazleak Egibar'era jo zuten, ama-titi bizi zalarik, berari galdetzeko noizkoa zan Iñigo. Baserritar arrek memori ona zeukan oraindik eta bere esanetara biurtu ziran idazleak: batzuek esan baiño bi urte geiago zitun Iñigok: Egibar'ko etxeoandreak zionez, Iñigo 1491'garren urtean jaio zan.

Iñigo bera zebillen naastuta zaartzaroan: 1555'an berak zionez 62 urte zeukan. Ala balitz, 1493'garren urtean jaioa bear luke. Baiña, Egibar'ko etxeoandreak arrazoi; memori ohea zeukan Iñigo berak baiño. Agiri notarial bat dago Azpeitian 1505 garren urtekoa eta bertan agertzen da testigu edo lekuko bezala Inego de Loiola. Amalau urte bear ziran gutxienez testigutza egiteko. Amalauak izan ezker, orra 1505'ri amalau kendu eta 1491'garren urtea ematen digu. Ama-titik agertu zuena, ain zuzen ere.

Bere erriko, bere etxeo eta baserriko kutsua ez du sekulan galduko Iñigok, Erroman bere egoitza izan arren eta mundu zabalari begira egon. Gipuzkoako zati bat Calahorra'ko gotzaitegikoa zan eta bertako arabar gotzai batek Iñigo'ri eskabide bat egin zion Erroma'ra: bialtzeko, alegia, euskaldun aita Gipuzkoa'ra. Aita Araoz eta aita Otxoa bialduko ditu, euskaldun jatorrak biak. Aiekin batera gizon prestu bat, erdalduna izan arren: gerora Francisco de Borja santua izango zana.

Erroman bizi zalarik, bere zaartzaroan, lagunek festa egin nai ziotenean "lau gaztaña erre ematen giñun, gustokoak bait zitun oso...". Gaztain erreak ezik (zenbat jan ote zitun aurtzaroan Egibar'en), Euskalerriko dantzak eta kantuak gogoan zitun. Ona zer dion historiagille batek: Iñigo Paris'en zegoala apaiz, gaixo bateri laguntzen zion eta onek eskabide bat egin zion esanez, poz aundia artuko zuela apaizaren erriko dantza eta kantuekin. Iñigo aren gogoetara makurtu zan eta gaixoaren aurrean sekulako dantza euskaldunak egin zitun eta kantak abeztu... eta orrenbestez gaixoak barnean zitun tristurak kanpora botatzen asi. Au esaten duena Portillo historiagillea da "Razón y Fe" deritzan aldizkarian, 1915, 295-196 orrialdeetan.

Beti izan zuan musika-zaletasuna Iñigok eta Erroman bere zaartzaroko gaixo asko laguntzen zion. Orregaitik eskatzen zion Lagun

diko aita Frusio'ri klabikomioa jotzeko eta beste anai koajutore bateri, kantatzeko abots ederra bait zuan onek.

Iñigo kapitan gudaria izana zan; baiña, Loiola baillarako musikak eta dantzak bere gogoan itsatita zeramazkin eta orduko zaletasunak ez zitun guztiak aaztu, arazo larriekn bere barruan estalita bazitun ere...

Egun batez, organoa jotzen entzun ondoren, onela esan zion aita Ribadeneira'ri: "nere gogoa beteko ba'nu, Jesus'en Lagundian kantua eta koroa ipiñiko nituzke...". Baiña, ez zitun ipiñi gizonak lanerako libreago egon zitezten.

Beste orrenbeste gertatzen zitzaion izadi eta naturaren aurrean: goiko zeru urdiñak eta mendi orlegiak ikusi ondoren, barru-barruko eragiña izan oi zuan beti. Badirudi Iñigo soldadu zaarra gaztain-morkotza legorra izanduko zala. Oiek, ordea, itxurak besterik ez ziran. Arazo larrietan sartutako gizonak orretarako astirik ez zuela dirudi, sentimentuentzako, alegia; baiña, gaiñeko soiñeko besterik ez zan ori. Barruan, euskaldun mendikoi sentimentalak ziraun.

Jesus'en Lagundiak, Iñigo'ren asmoetan, uri aundietan egin bear zuan bere lana; baiña, bere Lagundiarentzat, beretzako bezela, etxe-baserriak malta zitun eta alantxe agintzen die etxeak toki erosoan jasotzeko izadiarekin artu-emanak ez galtzeko eran. Berak ere Lagundiaren Kostituzioak idazteko lagun baten baratza-ra joan oi zan aulki eta maixxo batekin. Giro artan, bere etxeko giroan, lana obeto ateratzen zitzaion.

Iñigo eta Euskera

Iñigo, Loiola'ko baillaran ezia eta baserri-esnea edozkia, euskalduna zan mamiraiño. Euskeraz bazekian eta orregaitik alta Araoz'ek, besteak aditzerik nai ez duenean, Iñigo'ri idaztean, euskal itzak sartzen dizkio tarteka.

Berak, Iñigo'k, ez dakigu euskeraz idatzi zuenik; baiña, Azpeitiko kaleetan bere parrandako lagunekin euskeraz itz egin bear, gaur bertan ere ez bait da besterik egiten. Orduan areago. Bere lanetan ez dago euskarazko itzik; baiña euskera dago bere idaz-lanen mamian. Itzak erdaldunak dira; barruko josketa eta mamia, ordea, oiek euskaldunak dira. Euskeraz ezitako gizon batenak.

Badira gaurko egunez makiña bat idazle beuren buruak euskalduntzat dauz katenak idaztean itz euskaldunak erabiltzen dituztelako. Itzak euskaldun eta joskera eta mamia erdaldun. Iñigo'k egin zuena, baiña alderantziz. Onen idaz-lanak beti izan dira gaitzak eta zaillak beste izkuntzetara biurtzeko: joskerakin ez dute asmatzen.

Iñigo euskalduna zan, baserritarra naiz eta torre batean jaio, Egibar'en azia eta Azpeitia'ko giro euskaldun oso batean. Gerora Kastilla'ra aldatu ba'zan ere, erderatik ez zuan sekula ondo ikasi. Erderarik menperatzen ez zuelako gertatu zitzaion Paris'en eta Erroma'n gertatutakoa: erdera naastu zuan frantsez, italiano eta aleman itzez.

Bere bameko giarra euskalduna zan, naiz eta Erroma'n bizi eta Europa'ko orduko arazo larriak biotzean eraman.

Besteen aurrean, euskaldun itxura ez zuan sekula galdu: gizon barrukoia, kanpora bere barruko bizia nekez azaltzen zuana, errealitateari eta eguneroko bear-kizuneri lotua eta bere asmoak aurrera eramateko bumia baiño gogorragoko borondatea eta espiritu-indarra.

Soldadu eta kapitana, orregaitik ipiñi zion bere Lagundiari "Compañia" izen; baiña, soldadu ura euskalduna zan, baserri-giroan ezia, menditarteko gizadiarekin alkartua... Oiek eta ermitatxoen kanpai-aspedena bere biotzean iñoiz ere zearo aaztugabea.

Kastilla-bidean

XIII eta XIV'garren gizaldiak, Iñigo jaiotakoaren aurreko biak, Gipuzkoa eta Nafarroa arteko mugak burrukez beteak daude: lapurretak, suak eta giza-erailketak ugari.

XIII'garrenean, 1274'tik 1328'garrenerarte, frantsezak ziran nagusi Iruña'n eta gipuzkoarren etsai. Kastilla'ren aurka presta dute sekulako eraso eta, bide batez, Gipuzkoarren aurka ere bai. Eraso artatik sortu zan Beotibar'ko burruka eta giputheen garaipena Tolosa inguruan, gertakizun artatik artuta daude Gipuzkoa'ko arma-arriak dituen amabi kañoiak, naparreiri arrapatutakoak. Naparrekin batera zetozen gazkoiñak eta frantsezak.

Gipuzkoa (Ipuzkoa zan garai artan) gizaldi aren, XIII, asieran alden du zan Kastillaruntz; bitartean Nafarroa'rekin bat egiña zebillen eta Beotibar'ko gertakizunak eman zion aizkeneko bultzada aldentze artan. Andik aurrera giputxek beti Kastilla'ko Erregearen alde jokatu dute.

Beotibar'en giputheen buruzagiak Gil López de Oñaz eta Juan Pérez de Loiola ziran. Orra loiolatarren bi izenak: Oñaz eta Loiola. Andik aurrera Loiolako begiak, gipuzkoarrenak bezala, ego-alderuntz egongo dira jarriak. Ortik sortu ziran Kastilla'ko Kortearrekin berebiziko ar-emanak, oñaztarren artean batez ere. Andaluzialdean ikusiko ditugu mairuen aurka burrukan. Mairueiri kendutako lurraldeetan izen euskaldunak agertzea ez da batere arritzeko, an ibilliak bait ziran Erregearen Kortean bezala. Egite oietatik atera zituzten, Erregeak emanak, ainbat eta ainbat onura eta mesede.

XV'garren gizaldiaren aizkenetan jaiotako Iñigo. Gizaldi orrek makiña bat burruka ikusi zitun: Oñaz eta Ganboa, Aide Nagusiak Erri-billen aurka eta Agramont Beaumont'en kontra. Auek naparrak.

1451'an Aide Nagusiek desapio egiten diete gipuzkoar erri-billeiri: Azkoiti, Azpeiti, Deba, Mutriku, Getari, Tolosa, Ordizia eta Segura'ri. Auek Anaidi bat, Hermandade bat, sortu zuten elkarren artean beuroen erriak Aide Nagusien era-soetatik gordetzeko.

Burruka oiek dirala-eta, sei urte beranduago, 1457'an apirillak 21, Enrike IV'garrenak Aide Nagusien torreak mozteko agindua eman zuan eta gaiñera Ximena errira, Andaluzian, baztatu zitun, mairuen aurka burrukatzera euren zaldun eta oiñezkoekin, eta beuroen kontura. Lau urte iraun zuan dezterruak. An ibilli zan Iñigo'ren aitaita Juan Pérez de Loiola eta beronen aita zan Lope Garzia de Lazkano. Ordukoa da Loiola torrearen mozketa.

Alaz ere, ez zuten Kastilla'ko Erregearen faborerik galdu, aurretik eurak eta euren aurrekoek berari eta beure aurrekoei egindako serbituengaitik. Orrela Jaun Lo olakoak, Iñigoren aitaitak, bere seme Beltran'eri, Iñigo'ren aitari, Loiola'ko torrea jauregi bihurturik eta zebilla osoa utzi aal izan zion eragozpenik gabe.

Ordez, Beltran jauna an zebillen Grranada'ko eraso-aldean, aizken garaipena lortuta, mairuak Afrika'ra bota zituzten arte. Serbitzu oiek mesede berriak erakarri zituzten Loiola'ko torreari. Kastilla'ko Erregearen agintzapean zibiltzan buru-belarri loiolatar guztiak: Iñigo'ren bi anai zaarrenak Napoles-gerratean il ziran, irugarrena Indietan eta beste bat Hungria'n turkoan aurka burrukan. Martin maiorazgoa, berriz, Nafarroan Belateko artan frantsezeiri erasoka...

Odol ustutze aundiak Loiola'n; baiña, Loiola'ko odola aberatsa izaki: Iñigo zin 1 etxean amairugarrena. Bere aurretik amabi anai-arreba zitun.

Mairu eta turkoen aurkako burruka aiek berealdiko giroa sortu zuten "zaldun-liburu"entzat. Zorioneko "Libros de Caballería", Iñigo'k gaxoaldian Loiola'n eskatu zitunak, mairuen aurkako burrukak zituzten gai. Zortzireun urteko burruka eta gerra mairuak Afrika'ra bota arte; ondoren turkoek erasoka Europan. Gizonak guda-giroan sortu eta ezitzen ziran. Iñigo'ren gastaroan giro ori zeruraino igota zegoan; ez da, ba, arritzeko Iñigo'k ere arma-bidea aukeratzea.

Oiek asko ez dirala, Ameriketarako deia: urrea, zillarra eta aberastasunak ugari Indietako bideetan. Abenturak, zer esanik ez. Danak batera.

Ar-eman aundiak Kastilla'kin soldaduzka dala bide; merkatu-arrazoibidea ere bazan tartean: Kastilla'ko artilleak euskal kaltetik irten oi zuten bai Ingalaterra'ra eta bai Flandes'era ere, andik ojal biurtuta etortzeko. Urrea bazan, zillarrik ere bai, zertarako gauzak egiten saiatu? Errezagoa zan zeuden lekutik artu eta erosi. Konponbide orrek ez zitun ondoren eder-ederrak ekarri: auzoko errietako lantegiak aberastu eta urrea amaitu zanean, ez erre eta ez lantegi. Orra Amerikeetatik itzultitako zigorra, erre lapurtuaren truke.

Ikusten danez lokarri aundiak eta ugariak zeuden Gipuzkoa eta Kastilla'ren artean. Arritzekoa ez da orduko egoera: Kastilla'ko aundikien etxeetan (zenbaitzuk euskal jatorrizkoak) giputx giza-seme asko zegoela, alegia, bai serbitzari, bai idazkari eta notario, baita zaldunak ere zaldun-jokoak ikasten.

Iñigo gure Urrezko-aroakin batera jaio zan eta bizi. Amerikeetako urreak, burrukak eta garaipenak edonun, barku-gintza ibai-baztar guztietan urduri, burniolak eteng bean, ikasgintza eta garraioak, armagintza eta balaustrak, Kanada'ko baleak eta Terranoba'ko makailaua, artoa amerikarra baserrientzako aberastasun, etxe-berritze, jauregi berriak, eliza galantak...

Zorabioak artutako gizarte-giroa.

Loiola'ko semerik gazteena, soldaduzka aukeratu du oore billa... Aundikia zan, Aide Nagusien kimua eta bere indarrak ezagutzen zitun. Gogoraino elduko zan; ez zion etsiko bien bitartean. Asmoa eta gogoa tinko eta elburua garbi.

Bere anai Peru'k apaizgoa aukeratu zuan; baiña, Iñigo'k letrak ikasteko afizio gutxi. Joerarik ez eta bertan beera utzi zitun asitako latiñak. Soldaduzka naiago Erregearen serbitzuan, beure aurrekoen antzera.

Bere seme gazteenak aukera ori egiteak ez zion penarik eman aita burrukalaria, eriotzaren arriskua ezagutu arren; eriotza, edonun eta edozelan galtzen da bizia, ez dakigu nun topako degun. Gudateak eriotza ekarri lezake; baita oorea ere beste onura askorekin batera.

Kastilla'ko Arevalo'n

Arevalo Valladolid'etik egoalderuntz dago Avila'ko probintzian. Erregeak Valladolid'en zeukan egoitza bere Kortearekin batera. Nundik nora jo zuan Iñigo'k Arevalo'ra?

Maria de Velasco andrea, Iñigo'ren amaren senitartekoa zan; bere senarra, Juan Velázquez de Cuellar, Erregearen "Contador Mayor" liburu-kontu eramailak Loiola'ko Beltran'eri seme bat eskatu zion berak ezi eta zaintzekotan, geroa Erregearen serbitzuan sartzeko. Esker ona izan zion beti Iñigo'k etxe oneri.

Fernando eta Isabel ziran Kastilla'ko errege-erregiñak eta beuroen Kontu-eramaillae Nagusia Juan de Velázquez zalduna, Iñigo'ren babeslea, Kortean denboraldi luzeak egiten zitun gizona. Arévalo eta Madrigal'eko gazteluak, lurralde guztiekin, bere mende zeuden eta, naiz eta bereak izan ez, jaun osoa bezala jokatzeko aalmenak zitun.

Isabel erregiña il zanean, bere senar Fernando berriro eskondu zan Germana de Foix frantsezakin: "pinguis et bene pota" - "gizena eta ondo edana". Erregiña onek Maria de Velasco, Arévalo'ko etxekoandrearekin ar-eman estuak izan zitun. Beti alkarrekin nai eta konbite ederrak editen zizkion, janez eta edanez. Iñigo María de Velasco'ren etxean bizi zalarik, aukera zuan persona auen berri izateko eta eurak ezagutzeko ere bai. Areago Korteko pajea izanik.

Fernando'ren ondorengo Felipe Lenengoak, il da gero, alabatxo bat izan zuan oso polita eta ederra. Bere garaian Portugal'eko Juan III'garrenarekin ezkondu zan eta María de Velasco, Arévalo'ko etxekoandreak lagundu zion Portugal'era eta ez zan geiago andik bihurtuko. Bertan gelditu zan betirako.

Velázquez'tarrak errege eta printzeekin zituzten ar-emanak irikiko zioten Iñigo'ri Errege-korteko atearak. An pasatako urteek utzi zioten Iñigo'ri noblezi-kutsu bat, sekulan galduko ez zuena eta urteak pasata ere, pobre bizi arren, nabarmentzen zitzaiona.

Arévalon bizi zala, kaligrafia ikasteari ekin zion lanean, eskribau oso on baterean lortu arteko guztian.

Iñigo bizi izan zuan giroa une artan fededuna zan; oiturak, ordea, naiko lizunak. Polanco historiagilleak dionez, Iñigo'k fedea gorde arren, emakume eta arma arazoetan oso zuan konzientzia lasaia: emakume ondoren ibiltzeko beti prest eta, armak eskuetan, iskanbilleetan sartzeko ere bai. Bere giroa bizi zuan, burua zaldunen-nobelaz beterik.

1515'garren urtean Azpeitia eta Iruña'ko auzitegietan erantzunkizunak zitun egin bearrezkoak Iñigo'k, 24 urte eder gainean zitula eta Erregearen Korteko pajea izanik. Bere bizitza aztertu zutenak begira nola agertzen diguten Loiola'ko semea. Gauza bitxia da eta erderaz, dakarten bezala, eskeiñiko degu. Ona zer dioten:

"Vestía el joven desgarrado y vano traje acuchillado de dos vistosos colores, capa abierta, calzas y botas ajustadas, espada y daga al cinto y sobre la erguida cabeza de rubia cabellera cuyos bucles caían hasta el hombro inclusive, la gorrita de escarlata (divisa del partido oñacino), tocada de pluma gallarda y ondulante. Dejábese ver algunas veces armado de punta en blanco: loriga y coraza relucientes, y, además de la indispensable espada, ballesta con saetas y todos los demás géneros de armas".

Auzia Iñigo eta Peru bere naiaren kontrakoa zan, Iñauterietako (1515) (1512) arazoak ziran: arma-iskanbilla batean odola ixuri zan, eriotzik izan ez bazan ere.

Auzi orretan Enecus deitzen diote Iñigo'ri.

Fernando il eta bere seme Karlos Lenengoa etorri zanean Kastilla'ra, Velázquez gaztelu gabe gelditu zan; gazteluekin batera lurrak ere galdu zitun itzalik gabe gelditurik. María de Velasco andrea alargunduta zegoan eta une larri artan alargunak Iñigo bialtzen du, gomendaziozko gutun batekin, Najera'ko Kondea-rengana. Biderako bi zaldi eta 500 eskudo eman zizkion.

Orra nundik nora ipiñi zuten Iñigo Iruña-bidean.

Iruña'n

Agramont'eko naparrek Frantzia'rekin bat egiñak zebiltzen eta ganboatarrak ziran; Beaumont'ekoek, berriz, oiñaztarrak ziran eta Kastilla'kin alkartuta. Frantzia'ko erregea Napparro'koa ere bazan eta une batean Franzisko Ienenak Napparroa salduko du Napoles'en ordez.

1512'an Fernando, batzuentzako "Katoliku", besteentzako "Gezurtero", erregeak Napparroa menperatzen du Beaumont'arren laguntzarekin eta iru urte beranduago, 1515, Burgos'ko Kortesak Napparroa Kastilla'kin bat egiten du. Bi urte oiek dira, 1512 eta 1515, ain zuzen ere, Iñigo auzietan ikusi zutenak Iñauterietako erronkagaitik.

Ondorengo urtean, 1516, martxoan Katilla'ko koronel zan Villalba gudariak gaindu zuan Frantziako eta Agramont'eko gudarostea Albrit buru zekarrena. Dagonil edo abustuan, Franzisko erregeak Napparroa Napoles'gaitik truke egingo du. Arrezkero naparrak beti izan dira Kastilla'ren menpean.

1512'an eraso egin zuten Frantzia'rekin batean Agramontarrek Belate inguruan. Kastillak irabazi. Gipuzkoarrek Kastilla'rekin bat eginda zebiltzen une artan ere, Martin Garzia de Oñaz loiolatarra tartean zalarik.

Karlos errege berria laister konturatu da Napparroa dala Frantzi-aldetik Kastilla'ri erasotzeko biderik errezena. Ori dala-ta, Doniane Garazi'ko arri-esia berritzen du eta indartzen; baita Iruña'koa ere. Emen gaiñera ziuadela deritzan arrizko itxitura bat egiten du beste zabalagoaren erdiunean. Arri-esi bat beste baten barruan. Ementxe zaurituko zuten Iñigo andik urte gutxi batzuetara.

Napparroa'n Erregearen ordezkari (Virrey) Najera'ko Dukeari eskeintzen dio Cisneros'ek. Dukeak, bere kontura 3.000 oiñezko eta 700 zaldizko presta zitezkean eta bere alde zeuzkan beamontar naparrakin batera, baita giputzak ere aldi larrietarako.

Bere eragozpenak izan zitun izendatze onek, ez bait zegon konforme Kastilla'ko Kondestable zan Fernando de Velasco Agramont'en aldekoa eta ganboatarra. Najera'koa, ordez, Beaumont'en aldeko eta oiñaztarra.

Arazo onek bere lerroak zitun urrun: Fernando de Velasco onek eta Enrique de Lara, Najera'ko Kondeak, biak, euskal mendietan zituzten beuren sustraiak Ganboa eta Oñaz'en zaiñetan.

Oiñaztarrak, batez ere, Kastilla'ko aundikien artean senitarteko asko zituzten; mairuen kontrako gudaketatik zetorkien senitartekotasun ori. Oiek orrela dirala, ez da ain aritzekoa ere aita Araoz'ek diona: Oñaz dala, alegia, Espaiña'ko etxerik zaarrena, eta Espaiña bi zatitan erdibi dagoela, alde batetik oiñaztarrak eta bestetik ganboatarrak; edo bestela, gutxienez, bi talde oietan dituztela beuren zuztarrak.

Napparroa'ko arazo onetan Gipuzkoa geroz eta geiago Kastilla'rekin buru bat eginda zebillen. Batasun au sendotzeko, gotzai gipuzkoar bat izendatu zuten Errege-ordezkoaren konseju-emaille. Rodrigo Mercado de Zuazola zan berau, Mallorka'ko gotzai geroago Avila'koa izango zana. Onek eraiki zuan Oñati'ko Ikastola Nagusia. Giputxa aginpidean sarturik, Gipuzkoa'ko gudariak errezago joango ziran Napparro'ko agintedunari laguntzera, Kastilla'ren alde.

Garai aietan Gipuzkoak Napparroako gotzaitegitik alde egitea erabaki zun eta eskatu ere bai; baiña, eskabidea ukatu egin zioten.

Iñigo, gudari gaztea, ondotoxo etorri zitzaion Najera'ko Duke eta Naparroa'ko Errege-ordezko zan beaumontar eta oñaztarrari. Biak ziran talde berekoak. 1517'an sartu zan Iñigo Dukearen arma-serbitzuan. Urte orretako agorrean etorri zan Espaiñi'ra Karlos Lenengoa eta atzerritik ekarri zitun bere Korterako lagun eta serbitzari ugari. Atzerritarrak nagusi Kastilla'n. Orren aurka jeiki ziran Comeneros deritzan abertzaleak.

Orduko naastea aundia zan: Aide Nagusiek Erri-billen aurka, Oñaz eta Ganboa, Agramont eta Beaumont. Orain agertzen zaigu elemento berri bat, iraultza orren uinak eta olatuak Gipuzkoa'raiño eldu bait ziran. Esate baterako, or daukagu Donosti eta Hemani'ren artean sortu zan burruka.

Iraultza orrek estanda egin zuan Najera'ko errian; baiña, bere Kondeak, Lerin'goarekin batera, erria zanpatu zuan eta gudarieri nai zituzten lapurreta guztiak egiten utzi. Iñigo bera ere an zan burruka artan, naiz eta lapurkerietan parte artu ez.

Lerin'go Kondeak- ekin zion Naparro osoa menperatzen eta artan lagundu zion Najera'koak, Errege-ordezkoak. Laguntzaille naparrak ere baziran; baiña, benetako indarra Najera'tik eta Gipuzkoa'tik zetorkion menperatze ekintza oneri.

Errege-ordekoak bere serbitzari Iñigo gudari gaztea bialtzen du Gipuzkoa'ra, Comeneros'en iraultzak eragin zitun asarreak pakeatzera. Giputxa berez temoso buru-gogora zala, ondotoxo zekian loiolatarrak; ezaupide oieri eta bere buru argiari esker, asarrea baretu eta pakea sortu zuan bi taldeen artean. Orixe konbeni zitzaion Najera'ko Kondeari, Naparroa'ko baretasuna azalekoa bakarrik bait zan. Sua lur-azpian gorderik egona, bere garaian leertuko zan.

Karlos eta Franzisko alkarrekin asarreturik, guda sortu zuten Frantzia eta Espaiña'ren artean. Frantzia'ko Erregeak erasoa antolatu zuan eta bere gudarostearen buruzagi André de Foix izendatu zuan. Enrike de Labrit Naparroa'ko errege-aulkian ipintzea zuten asmo eta bien bitartean, Naparroan zear, Kastilla'ri erasotzea bertoko Comeneros'ak lagun zituztela. Bi urte gertakizunak prestatzen igaro zitzairen.

Enrike de Labrit 1521'ren otsaillean eldu zan Bearne'ra 12.000 oiñezko, 800 lantzadun eta 21 kañoiekin. Martzoaren 24'an Errege-ordekoak ez zitun berekin 250 soldadu besterik eta eurak erreminduak illebeteetan alogerarik jaso gabe zeudelako. Beste guztiak Kastilla'n zitun Comeneros'ekin burrukan. Une larri artan Gipuzkoa'ri laguntza eskatzen dio; baiña, erantzun au artu zuan giputxen aldetik: geuk ere guda geure mugeetan daukagu... Lerin'go Kondearen anai, Francés de Beaumont'eren laguntzarekin, milla lagun bildu aal izan zitun, 19 kañoi aundi eta beste asko txikiagoak. Bera, ordea, Najera'koa, alegia, Kastilla'ra abiatu zan, Francés de Beaumont Iruña'ko buru utzita. Iñigo bialdu zuan Gipuzkoara laguntza billa, aurreragoko erantzuna ezezkua izan ba'zan ere.

Bitarte orretan, maiatzaren 12'an, festa egiten du Iruña osoak, agramontar guztiek eta zenbait beamontarrak ere, Ronkal'etik sartuta Naparroan zear aurrera datorrelako Enrike de Labrit bere gudarostearekin.

Maiatzaren 17'tik 19'ra Iruña-ateetara eldu dira Oiartzun eta Loiola'ko gudariek Iñigorekin batera eta onen anai Martin guztien buru. Iruña-barrenean, geienak, Labrit'eren zai. Agintedunak, berriz, bi aldetan erdibituta: alde batetik Francés de Beaumont eta bestetik erriko Konzekua. Onak esaten zuan, bein Errege-ordezkua erritik alde egin ezkerotzik, bera zala erriko buru mailla guztietan; baita gudatean ere. Arrek, berriz, ezetz: gudarostearen buru bera zala eta berak eramango zuala burruka aurrera. Eztabaida gogorra une larri artarako.

Oiek asko ez dirala, Loiola'ko Martin ateetan barrura sartutzeke, guda artako buruzagitza beretzat eskatzen. Berak defendiko zuala Iruña. Ezetz esan ziotenean, artu bere gudariak eta or dijoa berriro Gipuzkoara, danak bertan beera utzita. Ez, ordea, Iñigo. Ez zion barruak ori agintzen eta bera bakarrik Iruña'ra sartu zan, gerrarako prest.

Foix Kondearen gudarostea Villaba'ra eldu, Iruña'ren aurrez-aurre ifar-aldetik, eta bertan egokitu zan. Iruñatarrek, Labrit'eri ongi-etorri ospetsu bat egiteko, gertakizunak prestatzen. Francés de Beaumont, bitartean, Logroño'ra dijoa egoaldetik bere gudariekin, Iñigo umezurtz utzirik. Onek arekin abiatu bear zuan; baiña, naiago izan zuan Iruña'n gelditu Foix'ekoari aurpegi emateko. Karlos Erregeak Iruña barruan beste itxitura bat egin zuala esan genduan arri-esia: zitudelaren izenako fortaleza bat. An sartu zan Iñigo.

Bertako gudariek armak lagatzeko asmotan zeuden, Errege-ordekoak eta Francés de Beaumont'ek alde egin ondoren. Iñigo'ri, kapitana zanez eta naiz barruko gudaria izan ez, bere iritxia eskatu zioten. Onela erantzun zien: "il bear ba'dezute il, armak eskuetan; baiña, ez etsi". Iñigo'ren itzeetara, asmoa aldatu zuten eta defentsarako prestatu ziran.

Erriko Konzejuak, eurokin ituna eginda gero, atea iriki zizkieten burrukan zetozteneiri.

Bein erri-barruan, Foix'ekoak kañoiak ipiñi zitun zitudelaren arriesiaren aurrez-aurre kañoika erasoan asteko. Zarata asi zanean, barruko buruzagiak eta bere iru kapitanekek burua makurtzeko asmoa artu zuten; baiña, Iñigo'k ezetz, gudariak zirala eta gudarako zirala gudari eta ez lenengo kañoikadari burua makurtzeko.

Beste aldetik, berriz, Foix'ekoak mezu bialdu zion Iñigo'ri, burruka laga eta lagun bezala etortzeko. Alperrik. Bere eginkizuna garbi zeukan Iñigo'k begien aurrean eta inork ez zion biderik okertuko. Ez orixe. Naiago il. Mezuaren arrazoi-bidea Germana De Foix, Femando "Katoliku"aren bigarren emaztea zan: beronen serbitzuan egona bait zan Iñigo garai batean...

Loiola-bidean

Sei orduko bonbardeoak arri-esiaren zati bat ausi zuan. Iñigo oiñezkoa zan eta ez artillero eta bere eginkizuna une onetan egokitzen zan. Ar-esi etenaren zulora salto egin eta, ezpata eskuetan, oiñezko etsaieiri erasotzeko prest. Orma apgurtuaren erdian zutik, kañoi-bola batek ezkubido zangoaren ezurrak zatitu zizkion; ezkerrekoan ere zauriak izan zitun; baiña, ezurrik apurtu ez.

Iñigo erori zanean, burrukari laga zioten beste guztiek. Gudari frantzitarrek jaso zuten, zaindu eta ondorengo egunetan Loiola'ra eraman. Eramailleak ez ziran naparrak izan, Iñigo berak gerora zionez, frantziarrak baizik. Iñigo'ri buruz lagun bezala jokatu zuten, naiz-eta gudatean Iñigo'k aurpegi eman.

Zergaitik jokabide ori? Bazekillako Foix'ko Dukeak Iñigo nor zan.

IruñaTik ekainaren lenengotik bosgarren egunerako bitarte orretan eraman zuten Iñigo Loiolaruntz. Bide luze eta nekagarria. Gaixoarentzat izugarria. Bidean zortzi egunez geldirik egon ziran, deskantsuan. Nun? Bear ba'da Ozaeta'ko errian; emen Iñigo'ren arrebak lagun maite bat ba zuan eta aren etxean atsedean artuko zuten Iñigo'ren larriak ala eskatuta.

Loiola'ra ekainaren amaseitik- emezortzira eldu ziran, Iñigo erdi-illik zakartela. Irugarren bizitzan ipiñi zuten ena. Be-bekoan upeltegia zeukaten nekazari-tresnakin batera eta orromaia, ogia egiteko. An ez zan ikullurik. Lenengoan sala bat zeukaten, sukalde eta sukalde-ostea eta gela pare bat morroi-mirabeentzako. Bigarrenean sala aundi bat bisitak artzeko, komedore nagusia, kapilla eta jaunen

gela zabala alkobakin batera. Bertan jaio zan Iñigo. Irugarrenean seme-alaba eta bisiteentzako gelak.

Iñigo'rena aundia zan eta bi lelo zitun: bata iparraldera eta bestea sorkaldera. Bera ez zan asko konturatu erdi-illik bait zetorren.

Inguruko sendagille guztiak bildu zituzten loiolatarrek gaixoaren inguruan eta sekulako triskantzak egin zizkioten zorioneko anka zauritu aretan. Lo-belarrak ez; ukabillak estutzea beste erremediorik ez zan "zaldunentzako".

Ekainaren 24, San Juan eguna. Azken sakramentuak artzeko garaia eldu dala esaten diote Iñigo'ri sendagilleek. Ekainak 28, San Pedro bezpera. Berri txarrak dira Loiola'n: gauerdiko aldakuntzarik ez ba'da, illa izango da Iñigo.

Ala gertatu ba'litz, gauza auek idazten ez nuan lanik izango; ez bait genduan sekulan izan zanik ere ,jakingo. Zorionez, beste aldera gertatu ziran gau artako gora-beerak: onerako asi eta egun gutxi barru arrisku guztietatik at zegoan Iñigo.

Ala gertatu ba'litz, gauza auek idazten ez nuan lanik izango; ez bait genduan sekulan izan zanik ere jakingo. Zorionez, beste aldera gertatu ziran gau artako gora-beerak: onerako asi eta egun gutxi barru arrisku guztietatik at zegoan Iñigo.

Bigaramonean Noain erriskan Najera'ko Kondeak, giputzak lagun, Froix'koa garaitu zuan. Iñigo'ren lagunak irabazle eta berri ori ematera etorri zitzaion azpeitiar Pedro Zabalakoa.

Egun gutxi naikoak izan ziran berriro Naparro osoa Kastilla'ko Errege Enperadorearen menpean ipintzeko. Gipuzkoarrak leial joka ornen zuten. Euskaldunok beti erdibituta: bata bestearen aurka. Lenago eta orain. Ez al da beti orrela izango.

Izan zitun Arevalo'ko bisitak ere.'

Une artan Katalin, Juana eroaren alabak, gerora Juan II Portugal'eko Erregearekin ezkonduko zutenak, amabost urte bete zitun, eder eta panpox... Guda-gizonek bere edertasuna gorai patzen zuten. Berarekin maite-minduta zebillen aspalditik gure Iñigo ere eta gaixotasun egun luzeetan ez zuan bere iduririk burutik kenduko. Txorabatuta egon oi zan ñaiz iru naiz lau orduetan, denbora igarotzen zanik konturatzeke.

Gai oneri buruz Iñigo berak esango digu zaartzaroan, 1554'garrenean, nola zebillen gaztaroan burua txoraturik, bere maiteari nolako arma-serbitzuak egingo zizkion pentsatzen, naiz eta ondotox jakin eziñezko gauza zala, ez bait zan nola-naiko emakumea, ez kondesa eta ez dukesa, gorangoko maillakoa baizik...

Gauzak orrela izanik, egunak pasa ondoren, ezurak gaizki erantsita, eskubiko zangoa gelditu zitzaion ezkerrekoa baiño motzago, ezur-mutur bat agertzen zitzaiola. Itxusi oso. Gaiñera bere galtza eta polaiña estuak habarmenkeririk gabe jantzi ezin.

Ebakitzea erabaki du, berriro ezurrak ondo antolatzeke.

Ebagi zioten eta zaiñak luzatzeko, tramankulu batean sartu zuten geldirik mogitzeke egun askoetan, martirien antzera... Bere maitearen aurrerako bearrezkoak ziran neke oiek. Ukabillak estuturik eraman zitun min guztiak bere senideak ikaraz betetzen zitula.

Alaz ere eskubido anka motzagoa gelditu zitzaion; baiña, oñaren azpian txaltxo bat ipiñi ezker, errenik ez zitzaion ezagutzen ondo begiratzen ez ba'zizaion.

Irrikatzen zegoan noiz Kastillara biurtu bere maitearen ingumarietara. Bitartean denbora nola-ala pasa bear, eta igaro bear ori errezteko, liburuak eskatu zitun zaldunenak. Amadis, Esplandian eta oien antzeko zaldun-nobelak nai zitun bere biotz-gríñeen arabera.

Baiña, Loiola'n ez zan Libros de Caballerías zeritzan aietakorik; oien ordeztantuen bizitzak (Flos Sanctorum) eta Kristorena (Vita Christi Cartujano) eskeiñi zizkioten. Besterik ezean, eurokin konformatu bear.

Ez zien liburu aieri arretaz eldu egun asko pasa arte. Bere bameko gogoetan aspertzen zanean, orduan jote zuan liburuarengana. Orrelako libururik irakurtzeko afiziorik ez; bestelakoak ere, or nun bait. Apurka apurka, ordea, irakurrialde aieri gustoa artzen asi zan bere aietan zearo murgildu arte.

Gauza aiek irakurrita ondoren au atera zuan lenengoz: oiek egin zutena neuk ere egingo neuke. Auek gogoan erabilli arren, bere maitearen arazoa aaztu ezin. Joko bikoitza zan: bi aurpegikera zituena.

Santuen artean Asis'ko Franzisko agertzen zitzaion indar aundienakin lñigo'ri: biak ematen bait zuten antza berdiña. Biak zeukaten bizitzaren lenengo zatia munduari eta panparrokeriari emanak. Bigarren zatia ere berdiña izango ote zan? Orrek au egin dik, nik ere beste orren beste egin bear diat, zion bere buruari.

Gerora beste santuekin ere berdin gertatzen zitzaion: aien bizitzan ikusten zuana egiteko aalmenez beterik ikusten zuan bere burua. Baiña, danen artean, Kristo'ren bizitzak sortu zion eragiñik biziarena. Cartujano'ren Vita Christi arretaz irakurri eta ausnartutako zenbait pentsakera bere Ejerzizio'tako Liburuan agertuko ditu. Esate baterako, Kristo zala Erregea eta Santuek berorren zaldunak.

Ausnartze auek berekiko eta bakarka egiten zitun, iñungo laguntzarik gabe, Jainkoarena ezik. Euskalduna izanik, nekez irikiko zion bere biotza iñori. Bere barruak ausnartzen zitunak, bere kolkoan gelditzen ziran. Bere artan, bakardadean, sortu zitzaion bere bizitzari elburua aldatzea, iñoren aolkurik gabe: arma-bidea utzi eta Kristoren zaldun izango zan andik aurrera Santuen ekintza miragarrien irudira

Monserrat'era

Lenengo aolkularia Monserrat'en izango zuan lñigok bere bizitzako okerkeri guztiak eta bizi berrirako asmoak aitortu bait zitun ango konfesore batekin.

Kastilla'ko gudarosteko kapitana emakume zale eta iskanbilletan errez sartzea izanik ere, bazitun bere doaiak; bestela Najera'ko Kondeak ez zuan Gipuzkoara bialduko pakegille bezala. Idazten baiño erreztasun geiago ezpata erabiltzen; orrek ez du esan nai, ordea, argia falta zitzaionik buruan, idaz-lanetan baiño arma-lanetan geiago saiatu zala baizik.

Loiola'ko buru-jokabideak, ez bereala nekez baizik, auxe erakutsi zion: maitasun-miñeko pentsamentuetan pozik egoten zala ordu luzeetan; baiña, ondoren mikatza eta barru txarra sortzen ziola egoera orrek. Eta beste aldetik, Santuen ekintzeeri begira ordu pozgarriak pasa ondoren, gero ere biotzeko pakea eta poza uzten ziotela.

Ortik, bere bizirako eta besteentzako lagungarri, ondorio bat aterako du: espiritu txarra eta onaren arteko aldea eta diferentzia. Espiritu txarrak poza dakar eta ondorio tristea: Jainkoa'ren espiritu onak, berriz, pakearekin poza eta ondorengo gozamena.

Argi bat sortu zitzaion barruan lenengoz; eta bigarrenez indarra, argiak erakusten ziona aurrera eramateko. Asmoak ere aldatzen zijoazkion: asieran Santuen ekintzak garaitzea zan, nor geiagoka bezala; gero, berriz, bere bizitzaren uskeria eta lotsa. Garbi ikusten zuan penitentzi latza eginbearrezkoa zuela.

Gauza auetan sortzen zitzaion pake eta pozarekin batera Jainkoa'ren laguntza etorri zitzaion bere asmoak aurrera eramateko. Berez ere ez zitzaion Iñigo'ri gogo-indarrrik falta bere aurrean eginbearra ikusten zuanean. Ikusi degu bere jokabidea Iruña'ko ateetan Martin anaia Loiola'ra itzuli zanean; bera, ordea, Iruña'ra sartu zan bere eginbearra an barru artan zegoalako. Francés de Beaumont'ek alde egiten duanean Logroño'runtz, bera ziudadela barrura arri-esia defenditzera; bertako kapitañek burrukari amor eman nai diotenean, berak ezetz, il arte burrukan egiteko. Ala egin zuan berak zauritu zuten arte eta arriskurik aundiena zegoan tokian bertan...

Beraz, begien aurrean bide berriak iriki zitzaizkionean, ez du geiago atzera begiratuko eta orduan artutako erabakiari ez dio bizkarrik sekulan emango.

Erabakita zeukan Jerusalem'era erromes joatea, gertakizun paregabea gertatu zitzaionean: Ama Birjiña, alegia, bere seme Jesus'ekin agertu zitzaion aurrean, esnai zegoalarik. Ikuskizun arrek berealdiko poza sortu zion bere biotz-barnean; poz orrekin batera bere aurreko aragikerizko bizitzaren nazka; sekulan bere bizitza osoan alde egingo ez dion nazka. **Berberak esanda dakigu gaur.**

Agertze ori bere irudimenaren asmakizuna ala bere burutik kanpoko gertakizuna ote zan? Orrek ez zion kezkarik ematen. Alaz ere, bere iritiz, gauzak bere irudimenetik at gertatu ziran.

Dana dala, gaixo zaneko gertakizuna zan. Ogetik jeiki zanean, lenengo lana belaunikatu, bere biotzeko Birjin Amari ezkerak emateko... Une artatik aldatu zitzaion Iñigo'ri bizitza osoa. Une artatik eginda Loiola ezaguna mundu zabalean.

Ekainean etorri zan Iñigo Loiola'ra eta zortzi-amar illebeta pasa ondoren, 1522'garren urtean, ilbeltzetik martzora bitarte orretan, seguru jakin ez, alde egin zuan etxetik.

Bein bere asmoak sendotuta, Iñigo'k Loiola'n otoitzari ekin zion eta irakurgaie-tan sakondu, barrua ikutzen ziotenak idaztiño batean idatziz. Idaztiño onek serbitzu ona egingo zion Manresa'ko koba-zuloan bere liburu Ejerzizio Espiritualak antolatzeko.

Txirotasuna eta penitentzia aukeratu zitun bere doai berezi bizitza osorako. Irailitza oneri asiera emateko Palestina'ra joango zan, Jesus'ek bere oiñez zapal dutako lurraldeetara. Eta, andik etortzean zer? Kartuja batera joango zan penitentzi egitera.

Baiña, kartuja batean berak nai aiña penitentzi egiten ez ziotela utziko pentsatuz, asmoa aldatu zuan. Garai artan kartujek ospe eta izen aundia zuten eta, beste aldetik, berak Cartujano'ren Vita Christi irakurrita zeukan; ez da, ba, arritze-ko kartujarako gogoia bere barnean sortzea. Beste arrazoibidea ere bazuan bide ori baztartzeko: animen alde jokatzeko deia nabari zuan bere biotzean. Baiña, ez otoitzarekin bakarrik.

Penitentzi gogorrak egiteko irrika zegoan eta Jerusalem'erako bidea artzeko; baiña, ez zuan nai iñork jakiterik zer asmo zitun; ez eta bere bizitz-aldaketaren

berri ere. Ez zedilla iñor konturatu. Euskaldun barrukoia agertzen zaigu Iñigo berriro.

Zalantza orretan Monserrat etorri zitzaion burura. Monserrat'era eskabideak egiten ziran Gipuzkoa'n eta ezaguna zan oso. Gaiñera, Zaldunen Liburuen artean ospe aundikoa zan "Melusina" idaztia. Gai oietako ainbeste nobela irakurritako gizonak Melusina'ren berri jakin bear. Melusina'k suge-itxuran gaztelutik alde eginda gero, bere senarra Monserrat'era baztertu zan penitentzi egitera eta an bertan il zan. Bear ba'da ori ere gogoratuko zitzaion Iñigo'ri.

Monserrat Gipuzkoa'n ezaguna zala esan degu eta bazuan bere elizatxo ere Aizkibel (Jaizkibel) mendiaren maldan, gaur Guadalupe'koa dana. Berri auek Gipuzkoako Aldundian dagoen eskuz idatzitako "Villa de Fuenterrabia" (1625) liburutik artuta ornen daude.

Dana dala eta dena den, Barzelona'n artu bear zuan Jerusalem'era ontzia eta, bide batez, Monserrat'eko Amari bisita egitea erabaki zun.

Najera'ko Dukea ikusi-bearrak emango dio aitzakia etxetik irtetzeko. Andik Monserrat'era erromes eta an aldatuko zitun bere zaldun-jantzi ederrak arloetearenak soñean ipintzeko eta ango jendetza artean ez zan iñor konturatuko bere aldaketarekin.

Najera'ko bidean zitun Iñigo'k Oñati eta Aranzazu. Emen zeukaten frantzizkotarrek beuroen ardurapean Ama-Birjiña'ren elizatxo baserritarra. Oso txukuna eta ez ain zaarra ere. Indar berriak bear zitun Iñigo'k eta aien billa. Gero Monserrat'en jantzi-aldaketak egin eta Palestina'ra erromes. Andik etortzean artuko zitun erabaki berriak.

Ona Loiola'n Iñigo'k sortutako egitaraua.

Iñigo gaixorik zegon bitartean bere anai Martin, Loiola'ko maiorazgoa, guda-arazoak zirala bide, etxetik kanpora zebillen geienetan. Noain'go burruka irabazi zuten Foix eta Labrit'eren kaltean; baiña, bi illebeta pasa ordurako, berri txarrak zetozen Frantziatik: 25.000 gudari eta kañoi aundiekin zetozen berriro erasoan. Maia edo Amaiur gaztelua napar agramontarren eskuetan laga eta frantziarrak Gipuzkoa'n sartu ziran Ondarrabia artzeko asmoz.

An bildu ziran giputxak, baita Martin Loiolatarra ere bere gudariekin batera. Udara zan. Arazo artan konturatu zan Martin bere anai Iñigo ez zala lengoa; guda-santzoak ez bait zion zirkiñik ere egiten barnean.

Bi illabetera etorri zan barrero etxera bere anai kapitanari gudako berriak ematen: Ondarrabi erori zan frantziarren eskuetan. Urriaren 6'an asi ziran kañoika eta 16'an barruko buruzagiek atear iriki zizkioten erasotzen zieten etsaieiri... Gertakizun oiekin Gipuzkoa osoa zebillela erlauntza baten antzera urduri eta zer-nolako zan, berak Iñigo'k, une artan lortu zeikean ospea, beregan bait zuten giputxek itxaropena...

Gai orreri buruz, erantzunik ere ez.

Errioxa'ko Nafarrete'ra joan bear zuala, Najera'ko Kondea bertan zegoelako... Ez joateko: lotsagarri utziko zuela senitarte osoa... Ez zuan asko uzte Martin maiorazgoak nolako ospea ekarriko zion bere Loiola'ko Etxeari Iñigo'ren igesak...

Martzoaren 24'an egin zion Iñigo'k bere gau-bela Monserrat'eko Ama-Birjinari. Aurretik iru egun egin zitun bere konfessorearekin okerkeri guztien aitortza eta asmo guztien azalpena egiten.

Noiz eldu zan Iñigo Monserrat'era? Beranduenez martzoaren 21'an.

Nafarrete'tik zetorren, Errioxatik, eta aste pare bat bearko zitun bidean. Etxetik Nafarrete'ra, Aranzazu'tik zear, beste aste bete. Beraz, geienak diotenez, otsaillaren aizkenetan edo martzoaren asieran irtengo zuan Iñigo'k Loiola'tik. Ilbeltzean irten zuela esaten duna ere bada idazleen artean.

Bitarte artan, Ondarrabi'ko gudaketa zala-ta, Kastilla'ko Errege-etxea eta Kor-tea Gazteiz'era etorrita zegoen. Donosti'ri erasotzeko aalmenik ez zuen izan Frantzia'ko gudarosteak.

Adriano, Utrech'eko Kardenala eta Erregearen Ordezkoa, Gasteiz'en zegoala, albistea etorri zitzaion Erroma'tik, Aita Santu izendatu zutela. Garrantzi aundiko albistea, Italia'ko erregenik nagusia Aita Santua bait zan.

Istilluak gertatu ziran Araba'n eta bere ingumarietan, agintari-mota guztiak bertan bildu ziralako Aita Santu berriari agur egitera... Onek eta bere talde-laguntzailleak Erroma'ra joateko Barzelona'ko bidea artu zuten Zaragozan zear. Martxoaren 12'an irten zuten Gazteiz'tik Errioxa'ra eta andik Zaragoza'ra. Beraz, Iñigo'ren bide berbera. Eta aldi berean.

Iñigo'k ez zuan nai aiekin topo egiterik eta aurea artu zien, ezagun zaarrak bait zitun talde artan, eta ez zan Zaragoza'n gelditu. Emen aparteko jendetza bildu zan ongi-etorri ospetsua Aita Santuari egiteko.

Etxetik irteera

Najera'ko Kondea zan etxetik irtetzeko aitzakia: bere jaunarengana joatea, alegia. Jantzi ederrez apainduta mando gaiñean abiatu zan bi eskudero laguntzaille zitula aldamenetan: bata Andrés de Narvaiz eta bestea Juan de Landeta, biak azkoitiarrak.

Loiola'tik Arantzazu'ra, Amaren aurrean gau-bela egitera beste erromes askorekin batera. Bear ba'da, an bertan egingo zuan bere garbitasunaren eskeintza Ama-Birjiñari.

Andik, Gazteiz'en gelditzeke, Errioxa'ra. Nafarrete'n Najera'ko Kondea'rekikoa bete ezker, librea zan bere asmoak eta bizimodu berria elbururaino eramateko. Dukat batzuek zor zizkion Dukeak eta aiek eskatu zizkion Dukearen diru-zaiñari. Berekin esku-zabal izan zan famili baten lagundu zion aurrena eta gero bere laguntzaille-morroieiri. Biak etxera itzuli-erazi zitun mezu onekin: Monserrat'era zijoala erromes penitentzian eta pobrezian.

Beste mezurik ez zuten jaso ondorengo urte luzeetan.

Tudela'tik Zaragoza'ra bidean moro batekin izan zuan eztabaida bero bat, Ama Maria'ren birjintasuna zala-ta. Eskerrak bide-gurutze batean alde egin ziolari, zalantzan bait zegon atzetik joan eta ezpataz garbitzeko ere. Bere dama berria Ama Birjiña zan eta onen izen ona moroak iraindu zuan...

Zaragozan mogimendu aundia zebillen Aita Santu Adriano'ri ongi-etorria antolatzer eta an sartu gabe aurrera ekin zion Iñigo'k. Igualada'ra eldu zanean zakuzko soñeko bat, orpoetarainokoa, egin erazi zuan; jantzi, ordea, Monserrat'eko Amaren aurrean jantziko zuan betirako, zaldunen antzera gau-beilla egiteko.

Bein Monserrat'en, mandoa ikuilluan laga eta bera aitorle baten billa asi zan, Gipuzkoa eta Kastilla'ko berririk jakingo ez zuena. Roselloi-aldeko apaiza aukeratu zuan bere bizitzaren berri emateko.

Monserrat'en eunen bat lagun bizi ziran, danak alkar jota; beneditarrak ziran oititzari eta liturjiari emanak, bereiziki Errosario eta Eukaristiaren debozioak zabaltzen zutenak.

Iru egun, martzoaren 21'tik 24'rako bitartea, otoitzean, barau gogorarekin batera, pasa zitun bere azterketak egiñez aitorrtza preparatzeko. Gauzez ez zitun ez jantzirik ez oiñetakorik kendu. Idatzi zitun geien ikutzen zioten ideiak eta sentimenduak; baita pekatuen zerranda luzea ere. Guztiak irakurri zizkion bere aitorleari 24'an. Ondoren, pakea eta poza biotz-muiñean.

Abadegian utzi zuan mandoa eurentzako; ezpata eta puiñala aitorleari eman zizkion aldara-aurreko burni-esian esegiteko ex-boto baten antzera. Antxe egon ziran denbora batean beste ex-botoak ipintzeko kendu zituzten artean. Ordurako ez zan Iñigo oraindik ospetsu; bestela gordeko zituzten ondotoxo.

Bere jantzi aberatsak eskale bateri eman zizkion gauzez, alkandora aiñeko guztiak, bere burua sakukiz jantzirik. Alaitasuna gaiñezka zuan, gixa artan ez bait zuan iñork ezagutuko. Orrela egin zuan gau-pasa bere Damaren aurrean, zutik edo belauniko, erromes askoren artean... Zenbat pentsamentu buruan eta zenbat sentipen biotzean...! Ainbeste ziralarik, Jerusalem'era joan aurretik, ingumari aiantan gelditzea erabaki zun, zerki oiek guztiak bere idaztiñoan, Loiola'koan, xeetasun osoan ipintzeko.

Albako meza entzun zuan 25'an, Ama Birjiñaren festan, eta, argitu baiño lenago, iñork ezagutuko ote zuan bildurrez, alde egiten du Monserrat'etik. Zuzenean Barzelona'ra joan bearrean, zearka Manresa'tik joatea erabaki du, ara zuzenean joan gabe, zenbait ezagun bait zitun Barzelona'n. Najera'ko Dukesa katalana zan eta katalan zaldunak ezagutu zitun Iñigo'k Najera'koeekin. Askatasun osoa nai zuan bere bide berriari jarraitzeko, iñungo ezagunik gabe inguruan, santutzat artu ez zezaten alako aldakuntza ikusi ondoren.

Lau illebate igaro zitun Manresa'n etengabeko otoitzean eta izugarritzko penitentziak egiten. Garai ortako Jainko-esperientziakin konparatzeko utsak irudituz itzaitzizkion Loiola eta Monserrat'eko argietatik ateratako jakinduriak.

Manresa'tik atera zitun bere Gogo-jardun edo Ejerzizio Espiritualak, soldadu bat besterik ez zalarik oraindio. Gerora Jesus'en Konpañia sortuko du Protestalaritzak dakarren burrukari aurpegi emateko. Burruka orretan murgildurik igaroko du bere bizi osoa Iñigo'k: burruka batetik bestera aldatu da; baiña, beti burrukan il arte. Zaiñetik burrukalari gure giputxa.

Lutero'k sortarazitako gerrak berekin eramango ditu Europa'ko zatirik ederrenak eta andik zetorren ujolari Iñigo'k ipiñiko zion aldaparoa urari eutzi aal izateko. Lan ortarako aukeratua izan zan Loiola'ko amairugarren semea.

Iñigo aukeratua izan zan egunetan, begira zer gertatzen zitzaion Lutero'ri:

Lutero'k 1521'an austen du zearo eta betiko Erroma'ko Elizarekin. **Maiatzaren 4'an** gordetzen dute Watenburg'eko gazteluan Alemania'ko Printzeek.

Iñigo Iruña'n zauritzen dute urte orlan berean; eta **ekainaren** 24'rako Loiola'ko etxean da.

Lutero'k 1522'ko martzoaren lenengoan gaztelutik irtetzen du bere protesta-ekintza asteko... Egun oietan zijoan Iñigo Monserrat'eko bidean eta 24'an egingo du bere aitorrtza Monserrat'en, ondoren Manresa'ko leizean bere burua gordetzeko aitortz eta penitentzi artean.

Une artan Iñigo'k ez zeukan Lutero'ren berririk; baiña, onen erasoari aurre egindakoen artean, Iñigo aiñakorik ez da izan beste bat.

Ez da, ba arritzeko Lope de Vega antzezkgille miragarriki onela ba'dio bere "Vela de Armas" antzerkian.

"En aquel monte serrado...
un soldado vizcaíno
(y cansado de servir
guerras del mundo, en Navarra
contra las flores de lis)
la espada al altar ofrece
porque se quiere ceñir
armas que conquistar almas:
que Dios se lo manda así:
Mucho le pesa al soldado
de verse cojo, al salir
a guerra tan peligrosa,
que se **han** vuelto más de mil.
Pero, díjole una voz:
'Ignacio, fuerte partid
que no ha menester los pies
quien ha de ser querubín...'
No se ha de preciar España
de Pelayo, ni del Cid,
sino de Loyola sólo
porque a ser su sol venís".

**Arrinda'tar Anes
Ekaina. 1986**

San Ignazioaren irudiakaren
V. Mendurrena




Ignacio de Loyola
(1491 - 1556)



kutxa

guztizko herriak eta lurak
eta gurekin, eta gurekin



RH EZEZKORRA

Liburu berri txalogarri bat ondoan dedala osatuko det gaurko idazlana. "Rh EZEZKORRA" bere izena, ta berastegitar Jakakortexarena'tar Txomin apaiz argiak egiña ain zuzen.

Berrogei urte Amerika'n igaro ondoren, orain bere jaioterrian bizi dan apaiz onek, eliz-lanetatik kanpo lan arrigarriak egiñak daduzka itsasoz aruntz, aberzaletasunak eraginda. Adibidez: Argentina'ko libururik pamatuena dan "Martin Fierro" berak euskeratu zun olerki borobillez.

Esan zitekean-ba, ainbeste lan egin ondoren bere errira etorri danean ezurrak, uztera, azken urteak patxaratsu pasa bear lituzkela? Ez da orrelakorik gertatzen ordea On Txomin'ekin; apaiz aberzale sutsu au lanerako jaio zan, eta ziartu nago alperkeririk ezagutu gabe ilko dala.

Anai-arteko guda petral ura zala bide erbesteratu bear izan zun On Txomin'ek ere; amar bat urte ez dira urruti erriratu zala ta nik dakidanez, irugarren liburua du oraingoa.

Argentina'ko sendagille jakintsuetatik bildutako uztaaren etekiña degu liburu au. Euskaldunak zer odol degun eta bere gora-berak nolakoak diran dakazki liburuak euskeraz eta Gazteleraz, argi ta garbi. Euskaldunak, izkuntzarekin beze-la odolarekin ere oso bereziak ornen gera, Rh Ezezkorra nagusi dalarik.

Liburutik artutako lerroak dira ondorengoak: "Euskaldunak berriz, ludiko beste aberri guztiengandik Euskerarkin berexi nai izan gaituan antzo, ba dirudi odolakin ere berexi nai izan gaituala Irazaleak, iñungo endatan aurkitzen ez dan laintantan bai dauka euskaldunak bere odolean Rh ezezkori, ia eunetan 40'ko laintantan"

Ondorengo au ere jakingarria da: "Rh ezezkori odoleko neskatxa bat, Rh baikorreko batekin ezkontzen zanean, amaren odol garbiak, burruka latz bat asten zuen aitaren odol Rh baikor orren aurka eta odolean gaitzak iota, iaiozkeko aurra gaixotu eta askotan il egiten zan, orretxegatik euskaldunak euskaldunakin ezkontzera io dute, ondorengoetan ezbear izugarriak sortzen bai zitzaizkien".

Ikastolarik eta ikastetxerik ez luke bear, On Txomin'en "Rh Ezezkorra Euskaldunetan" liburua gabekorik.

On Txomin idazkera ain Euskera garbia dalarik, badu beste alderdi on bat liburu onek, bi izkuntzetara dagolako, Euskaldunaren odolaren jakingarritatik aparte, Euskeraz eta Gazteleraz ikasteko liburua dala esan liteke zalantzik gabe. Adibidez: "Irazaleak" irakurrita bat jarri liteke zalantzan, ondoan datorren Gazteleran ikusiko du ordea "Creador" dala. Beraz, liburu jakingarri ontan ezin liteke ezer alperrik galdu.

Ni baiño gizon ospetsuagoan aitamenak merezi ditu liburu onek; bildur naiz ordea ala ez ote ditun izango. Izkuntza eta odola oso bereziak izango ditugu euskaldunak, beste zerbait ere badegu oiek bezin berezia ta nabarmena.

Zorionak On Txomin. Ale ederra eman diguzu. Jarraitu bide ortatik Jaungoikoak nai duan arte.

Laka kortexarena'ta r Txomin Apaiza



EL Rh NEGATIVO
EN LOS VASCOS



KARDABERAZ BILDUMA - 43

Amaika aldiz aitaturzen dan:
"Euskaldunaren odola".
Baiñan geiegi ezgenikigun.
ez nundik eta ez nola.
Liburu orrek berekin dakar
arrigarrizko eskola;
pozgarria da nai bada beintzat
gure eskutan dagola.

Berastegitar apaiz argia
ain da langille mardula,
esan liteke bere bizitzak
atsedenikan ez dula.
Berari esker ale bat geigo
eskuetan badegula;
On Txomin maite Jaun zerutarrak
luzaro lagun deizula.

El Diario Vasco 7-IV-1991
Txomin Garmendia

ESALDI JATORRAK

— Iturri onek ur epela ematen du ta otz egiten duanean, LURRUNEAN EGON oi da. Sindika'ko amonak.

— Etxe berrian A ZER NOLAKO leioak jarri dituzten...

— Zu, SALTAKA BATEAN JOANGO ZERA...

— Burukiko ardi-illea, EGUZKI BETE-BETEAN jarri bear da.

— LO-BETETAN NENGON eta txiliñak esnatu nau.

— Baserria erre zanean, GOI-BEAK ELKAR JOTA gelditu ziran...

— Gizon ona zan, baiñan EDAN-GAIZTOKOA.

— Arria bota ta kristala TXIKI-MILLA-APUR egin zan. Oyartzun'en.

TXIKI-MILLA-PUSKA Errenderi'n.

— Nolatan ez didazu deitu?

— Amarrak JO ZAI nengon zuri deitzeko.

— Larrialdi batean: Oraintxe NERE AZKENA!

— Oiean manta au jarizen ba'degu, KIXKAKI GAIXTO egingo gera.

— Arrea, grisa, ZIKIN-ESTALKIA DA.

— Bidea egiterakoan, lurra ETZANEAN KENDU gendun, baiña EUDIAK EMAN eta lur-jausiak egin zaizkigu.

— Zer zabilta, Joxe? —Ementxe, EIZA-NAIEAN...

— Basarri **idazteari utzia** dago. Txomin Garmendia'k.

— Ta? Itzaldia ondo? —Ez ba! UTSAREN ONDORENGOA izan da.

— Joxe gizon ona da; GAIZKI-EGIÑAK ONEZ eramaten dakiana da.

— Jaingo-zaletasunak, beartsuen estutasunak lasatu ta, aberatsen GEIEGI-NAIA neurrira ekartzen du.

— BEAR-ALDIAN aurkitu ta **lapurretari eman** zion.

9-1-25

— ZANA ZAN GUZIA luze-luze etziñik zegon. 90-XI-29 Latiegi'k.

— Emen EGONEAN oztu egiten da. Pitxu'k. 71-2-13.

(Gomazko bota-altuak eta lanerako jantzi zarrakin zegon gizonezko bat ikusi eta Aya'ko emakume batek esana):

— Zer zabilta, DENA LAN-ITXURAN JARRITA? 91-2-28.

— AITAREN BATEAN joan zaizkigu urtearen lenengo bi illabeteak. (Joxe Ayerbe'k "Sagardotegiak leen eta orain" El Diario Vasco izparringian. 91-3-8).

— Bizkarreko KRAKATEKO batek EMAN DA, lau egunez DE-ALDETIK IBILLIA NAIZ. 91-3-8.

— KALE-UMEA IZATEKO, baserri-lanetan oso yayua da. 91-3-18.

— AL DAN GUZTIAN euskeraz mintzatu. 91-3-18.

— Orrek ez dik KOLPE ZORRIRIK JOTZEN. Imanol Murua'k. 91-3-22.

— Otz dago, baiña IBILLIAN ez dago otzik.

— Ikerketa egiteak BERERIK bai ote du?

— (Aizea ta eudia bat-batean etorrira: — EDERRA JARRI DU... Zarautz'ko emakume batek. 91-3-23.



ESALDI JATORRAK

- Alaba etxean ote da?
- Nik ala uste! Aterkia emen dago **beintzat eta...**

- Zer ordu da?
- Zortzirak bost gutxi edo.

- Ori ez dago IÑUNDIK IÑORA ARRAPATZERIK...

- Eguraldia jasotzen ari dula dirudi!
- Bai! Alaxe da! JON'EK ETA a zer aldea biar mendian ibiltzeko...

- LUZE IRITZITA EGONGO zerate, baiña au ta au gertatu da.

- Galiziar izkuntza il-ZORI LARRIAN DAGO. Gaztañaga'k, Saski Naski'n.

- Azkureka asten gera GEREN BAITAN. Berrondo'k, Saski Naski'n.

- Egia ez dan zerbait ENTZUTE UTSAK, NERE ONETIK ATERATZEN NAU!

- Oyek GU EZ BEZELA BIZI dira gero... Pitxu'k.

- URTE ASKOREN BURUAN nai nuana eskuratu det!

- Pixalliak EZIN EGONIK nago!

- ONDO BAIÑO OBEKIAGO aztertua izana da.

- Bakoitzak, ZEIN BAIÑO ZEIN garrantzi aundiagoko egitekoa du.

- ORTXE-ORTXE.– ORTXE-ANTXE.– ALDE-aldera (gutxi gora-bera).

ODEI GORRIZTAK

Odei gorriak dakustaz ortzian
eguneko eriotzaldia artzean;
norenak izango,
norantza joango...?
Suzmur itoak dantzudaz aizean
argia ezabatzen asten danean;
norenak izango,
norantza joango...?

Sointxu samur txikiak zatituak,
norberekeri eroak puxkatuak;
norenak izango,
norantza joango...?
Mintzobako eztarri gaixo mutuak,
eriotzari emondako sointxuak;
norenak izango,
norantza joango...?

Jaio aurretik eraildako opariak
billakatzen ei'dira odei gorriak;
norenak izango,
norantza joango...?
Sointxu samurak miñetan autsiak,
bizi-naiak sorturiko oiua etsiak;
norenak izango,
norantza joango...?

Ume-gaiok, aingeruen laztanak,
jaio bageko itxaro joanak;
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!
Darizuezan odolezko orbanak
gorritzen dabez odeien ezpanak;
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!

Ez dozue ezagutuko argi-izpirik,
ez eta amaren kolko gozo epelik;
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!
Ortzi-zear gorrimiñez jantzirik,
aizearen altzoan norabarik;
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!

Oiuz dantzudaz giza-eskubideak,
noiz zuenak aurgai errubageak...?
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!
Euronak be badabebz abereak,
noiz entzungo zuen bizibideak...?
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!

Ori egiteko gai zaran ama,
betiko galdu dozu errai-laztana;
bai larritasuna,
aren oiartzuna...!
Antzi bat etorriko da zugana
naiz lanean, naiz oian etzana;
bai larritasuna
aren oiartzuna...!

Noizean bein semearen Marra
adituko da latz eta zakarra,
oiuka odoletan
taupada zorotan...!
Alperrik izango orduko negarra,
ezin berpiztu erauzitako adarra,
oiuka odoletan,
taupada zorotan...!

Zubiri'tar Iñaki